Egungo prebentzio-lan hauen arrakasta obrak egin bitartean erdiesten den segurtasun-mailaren mende egongo da.Baldintza Tekniko Berezien Orrietan zehaztuta datoz Proiektu honen egileak bere garaian onespenerako aurkeztutako proposamenak bete behar dituen baldintzak eta kalitateak.

Jarraian, gure jardueran gertatzen diren arriskuak identifikatuko ditugu:

Landare-lurrezko zotalak eta landare-lurra ateratzea eta metatzea, ingurumena lehengoratzeko lanak egiten diren bitartean gero berriro erabil daitezen.

Zotalak gaur egungo mendi-hegaletatik aterako dira, baina horiek aldapa handikoak direnez gero, makineria iraultzeko arriskua dago.Hori eragoztearren, makineria ondo finkatu dadin saiatu beharko dute, horrelako arriskurik ez izateko.

Lur-mugimendua:lurra eta harriak erauztea eta erauzitako materialak zabaltzea

Lan horiek egiteko ere mendi-hegalaren erdi-parean lan egin beharko da, nahiz eta jada eginda egongo den zabaldegitik ekin ahal izango zaion erauzte-lan horri, iraultzeko arriskua gutxituz.

Bide-zorua macadam motako material pikordunez egitea.

Obra-gunean ibilgailuen zirkulazioa egongo denez gero pertsonak harrapatu ditzatela eragozteko neurriak hartuko dira, batez ere materialak zabaltzeko unean.

Ingurumena lehengoratzea

Lur-mugimenduaren ondorioz osatzen diren ezpondetan landare-lurra zabalduko da eta, gero, zotalak kokatuko dira, nahiz eta, ezponda horiek tamaina txikikoak baldin badira, makineria iraultzeko arriskua egon daitekeen, bidearen ertzetik bertatik lan egitea beharrezkoa izateagatik.

5. OBRAN ERABILI BEHARREKO SEGURTASUN-NEURRIAK

Laneko arriskuen inguruan egindako azterketa horretatik eta obraren eraikuntzak fase desberdinetan dituen arazo berezietatik, ondorengo segurtasun-neurri hauek definitu dira:

Ibilgailuen trafikoa

Obrako ibilgailuek horietarako mugatutako eremuetatik kanpo zirkula dezatela eragozteko beharrezko babes-neurriak hartuko dira, horrela adieraziko duten zerrendak eta seinaleak kokatuz.

Lan horietan gehien erabiliko diren makinak atzerako hondeamakina mailudunak, iraulki-kamioiak eta/edo dumperrak izango dira, eta horien segurtasun-neurriak jarraian deskribatuko dira:

Beldar edo pneumatiko gaineko atzerako hondeamakina

Sastrakak garbitzeko lanetan, ibilgailuen gainean kargatzeko lanetan, lur-mugimenduetan eta landare-lurra zabaltzekoetan erabiliko da.

- Aurrerako martxaren eta atzerako martxaren argiak izango ditu, atzerako ispiluak bi aldeetan, iraulketaren eta kolpeen aurkako segurtasun-atetxoa eta su-itzalgailu bat izango ditu atzerako hondeamakinak.
- Debekatua dago koilararen barruan pertsonak garraiatzea.
- Atzerako hondeamakina garabi gisa erabiltzea ere debekatua dago.
- Debekatua dago lubakien eta zangen barruan lanak egitea, atzerako hondeamakina iristen den eremuaren barruan.

Iraulki-kamioia

- Deskarga egin eta berehala, eta berriro abioari ekin aurretik, kaxa osorik jaitsi beharko da.
- Berariaz debekatua dago fabrikatzaileak adierazitako gehieneko kargaren gainetik kamioiak kargatzea, neurriz gaineko kargaren arriskuak eragozteko.Gidariak kabinaren kanpoaldean egon behar du kargatzen den bitartean.

Dumperra

- Dumperraren gidaria horretarako pertsona gaitasunduna izango da, gida-baimenaren jabea, eta ez da onartuko langile baimendunek zuhurgabeki inoiz ere gidatzea.
- Dumperrean materialak garraiatzen direnean ezingo da gehieneko karga gainditu.
- Ez da baimenduko dumperraren gainean langileak garraiatzea.
- Ibilbide-amaierako topeak jarriko dira, kamioiak indusketa-lanen ertzeraino hurbil daitezela eragozteko.

Oharra:Jarduera zehatz bakoitzarentzat adierazitako guztia gainerako obra osoari aplikatu dakioke, horrela eskatzen baldin badu.

Oinezkoen mugimenduak

Obraz kanpoko pertsona guztiak bertatik igarotzea kontrolatuko da, edozein jardueratan lanean ari diren bitartean.Obrako langileek barne-ibilbideak edukiko dituzte, eta obrako ibilgailuen joan-etorrietarako erabiliko direnetatik bereiziak izango dira.

Era berean, obra inguruetan dauden arriskuak oinezkoei jakinarazteko beharrezkoak diren babes-neurri kolektiboak hartuko dira.

Norbanakoen babeserako ekipoak kontratistaren kontura izango dira.

Arriskuaren azterketa horretatik ondorioztatzen da badaudela arrisku batzuk, babes kolektiborako instalazioaren bidez konpondu ezin daitezkeenak.Langileek eta obran esku hartzen duten gainerako pertsonek egin beharreko jarduera indibidualen berezko arriskuak dira.

Arriskuen seinaleak jartzea

Diseinatutako prebentzio-neurrien eraginkortasuna hobetzeko, beharrezkoa da ondorengo seinale-zerrenda erabiltzea:

Laneko arriskuen seinaleak jartzea

Aurreikusitako norbanakoen babeserako ekipoen eta babes kolektiboen osagarri gisa, seinale multzo arautua erabiltzea erabaki da, obran lanean ari diren guztiei une oro dauden arriskuak gogorarazteko.Informazio gisa, gure obrarako hautatutako seinaleak ondorengoak dira:

DEBEKATUA DAGO OBRAZ KANPOKO EDONOR BERTAN SARTZEA

LEHEN SOROSPENETARAKO EKIPOA

ERNE, ARRISKUA:IBILGAILU ASTUNEN IRTEERA

Eragindako zerbitzuekin interferentziak

Inguru horrek dituen ezaugarriak direla eta, interferentziak egon daitezke txaboletara eta urasketara doazen ur-hornidurako hodiekin.

6. LAGUNTZA-NEURRIAK LANEKO ISTRIPUAK GERTATZEN DIRENERAKO



Lehen sorospenak

Segurtasun eta Osasun Proiektu honen helburu orokorra laneko istripuak eragoztea den arren, gogoratu behar da, kontrolpean edukitzen zailak diren arrazoi batzuen ondorioz, horrelakoak agertu daitezkeela.Hori dela eta, beharrezkoa da istripuak jasaten dituztenei lehen sorospenak eskaintzeko modua aurreikustea.

Lehen sorospenetarako botikina

Obra honek duen arrisku-ahalmena eta aurreikusitako langile kopurua kontuan izanik, beharrezkoa da lehen sorospenetarako botikin bat antolatzea, istripuren bat jasaten dutenei lehen osasun-arreta eskaini ahal izateko.

Enpresa mankomunatuaren Medikuntza Zerbitzuak obran eskaintzen duen osasun-arretarako ere erabil daiteke.

Izandako lesioen ondorioz zaurituak beste norabait eramatea beharrezkoa izanez gero, hitzartutako anbulantzia-zerbitzu baten bidez edo, zaurituaren larritasunaren arabera beharrezkoa izango balitz, aire bidezko ebakuazio-zerbitzu baten bidez garraiatzea aurreikusten da.

Prebentzioko medikuntza

Obra honetan gaixotasun profesionalak eta, halaber, nahasmendu fisikoek edo psikikoek, alkoholismoak eta gainerako toxikomania arriskutsuek eragindako istripuak ahalik eta gehien murriztu nahirik, beharrezkoak diren medikuntza-azterketak egingo dira obra honetarako langileak kontratatzen dituztenean.Halaber, obra honetarako azpikontratatzen diren gainerako enpresei ere gomendio hori bete dezatela eskatuko zaie bere garaian.

Baldintza Orrietan istripuekin eta osasun-laguntzarekin loturik enpresek dituzten betebeharrak adierazten dira.

7. SEGURTASUN MAILA KONTROLATZEKO ERABAKITAKO SISTEMA

Segurtasun Planak jasoko du zein den obrako segurtasun-maila.

Babes kolektiboa eta hori gauzatzeko modua aurreikusitako obra-plana burutuz kontrolatuko dira.

Norbanakoen babeserako ekipoak nola banatzen diren kontrolatzeko, horiek jasotzen dituen langileak sinatu egin beharko du Eraikuntza Enpresaren prozedurekin ados dagoela dioen agiria, eta kalitate-politikarekin loturiko jardunbideari lotu beharko zaio eta urriaren 24ko 1627/1997 E.D. bete beharko du, dagozkion ataletan, eta halaber, Laneko Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/95 Legea (29. artikulua).

8. OBRAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA ERAMATEKO INPRIMAKIA

	OBRETAN SEGURTASUNAREN JARRAIPENA EGITEKO GALDETEGIA
	OBRA: **KONTRATISTA:**
	BISITA-EGILEA:

KONTROLATZEKO KONTZEPTUAK		**OBRAKO BISITAK**												
		1 ..../..../....			**2** ..../..../....			**3** ..../..../....			**4** ..../..../....			
		E	**D**	**Zuzenketa Eguna**	**E**	**D**	**Zuzenketa Eguna**	**E**	**D**	**Zuzenketa Eguna**	**E**	**D**	**Zuzenketa Eguna**
	I.LUR-MUGIMENDUA ETA LUBAKIAK													
1	Ezpondak													
2	Eskoratzeak													
3	Gainkargak indusketaren ertzean													
4	Ertzetik ibilgailuak zirkulatzea													
5	Indusketa-langileentzako sarbidea													
6	Lubakietatik ateratzeko maldak													
7	Lubakiak ahitzea													
8	Beste batzuk													
	II.HODIAK INSTALATZEA													
9	Hodi eta pieza bereziak metatzea													
10	Garraiatzea													
11	Manipulatzea													
12	Instalazioaren garbitasuna eta higienea													
	III.EGITURAK ETA OBRAK MAILA DESBERDINEAN													
13	Aldamioak													
14	Oinarriak, euskarriak txarrantxatzeak finkatzea													
15	Laneko plataformaren zabalera (gutx. 60 cm.)													
16	Barandak laneko plataformetan (≥90 cm)													
17	Igoerak eta irispideak													
18	Plataforma eta aldamio gaineko materialak													
19	Sareak													
20	Zuloak, forjatuak eta eskailerak babestea													
21	Beste batzuk													
	IV.- OBRA ETA IRISPIDEETAKO BABESGARRIAK													
22	Inguru-hesia													
23	Seinalea													
24	Makineria eta ibilgailuentzako sarbideak													
25	Oinezkoentzako sarbideak													
26	Beste batzuk													

E-Egokia

D-Desegokia

	OBRETAN SEGURTASUNAREN JARRAIPENA EGITEKO GALDETEGIA														
	OBRA: **KONTRATISTA:**														
	BISITA-EGILEA:														
KONTROLATZEKO KONTZEPTUAK		**OBRAKO BISITAK**													
		1 ..../..../....			**2** ..../..../....			**3** ..../..../....			**4** ..../..../....				
		E	**D**	**Zuzenketa Eguna**	**E**	**D**	**Zuzenketa Eguna**	**E**	**D**	**Zuzenketa Eguna**	**E**	**D**	**Zuzenketa Eguna**		
	V.BIDEEN AFEKZIOAK														
27	Seinale bertikalak														
28	Seinale horizontalak														
29	Gaueko seinaleak														
30	Balizak														
31	Trafikoaren antolamendua														
32	Behin-behineko desbideraketak														
33	Langile seinale-egilea														
34	Jantzi islatzaileak														
35	Bideen garbiketa														
36	Beste batzuk														
	VI.BESTE ZERBITZU BATZUEKIN LOTUAK														
37	Ura														
38	Saneamendua														
39	Telefonoa														
40	Gasa														
41	Elektrizitatea														
42	Aireko linea elektrikoen azpiko bidegurutzeak														
43	Beste batzuk														
	VII.OBRAKO MAKINERIA														
44	Iraulketaren aurkako kabina-babesgarria														
45	Makina-erreminten babesgarriak														
46	Beste batzuk														
	VIII.OBRAKO MAKINERIA OSAGARRIA														
47	Makina-erremintaren babesgarriak														
48	Makina-erremintaren babesgarriak														
49	Soldadura														
50	Beste batzuk														

E-Egokia

D-Desegokia

OBRETAN SEGURTASUNAREN JARRAIPENA EGITEKO GALDETEGIA

OBRA: **KONTRATISTA:**

BISITA-EGILEA:

	KONTROLATZEKO KONTZEPTUAK	OBRAKO BISITAK											
		1 ..../..../....			2 ..../..../....			3 ..../..../....			4 ..../..../....		
		E	D	Zuzenketa Eguna	E	D	Zuzenketa Eguna	E	D	Zuzenketa Eguna	E	D	Zuzenketa Eguna
	IX.JASOTZEKO MAK. ETA BALIAB. OSAGARRIAK												
51	Eslingak, kableak eta gakoak												
52	Balantzinak												
53	Saneamenduko putzu-kutxak												
54	Beste batzuk												
	X. OBRAKO INSTALAZIO ELEKTRIKOA												
55	Koadroen babesgarriak												
56	Instalazio eta makinetako lur-harguneak												
57	Kableen egoera, kokapena eta babesa												
58	Entxufeak, etengailuak eta juntura iragazgaitzak												
59	Beste batzuk												
	XI.NORBANAKOEN BABESGARRIAK												
60	Kaskoa												
61	Segurtasuneko oinetakoak												
62	Segurtasun-uhala												
63	Segurtasun-betaurrekoak.												
64	Entzumen-babesgarriak												
65	Beste batzuk												
	XII.SHko INSTALAZIO KOLEKTIBOAK												
66	Komunak												
67	Aldagelak												
68	Sukalde-jangela												
69	Botikina												
70	Beste batzuk												
	XIII.OBRAKO TXUKUNTASUNA ETA GARBIKETA												
71	Materialak biltegiratzea / metatzea												
72	Lan-eremuak												
73	Bide eta irispideen garbiketa												
74	Obra-hondakinak eta zaborrak ateratzea												
75	SHko instalazio kolektiboak												
76	Beste batzuk												

E-Egokia

D-Desegokia

9. SEGURTASUN ETA OSASUNAREN MAILA KONTROLATZEKO IZENDAPENEN AGIRIAK, ESLEITUTAKO OBRA EGIN BITARTEAN APLIKATU BEHARREKOAK

Kontratista esleipendunak eginkizun horretarako erabili ohi dituen agiri berak erabiltzea aurreikusten da, arriskuen prebentzioan duen antolamenduan nahasmendurik ez eragitearren.Nolanahi ere, Baldintza Tekniko Berezien Orrietan jasotako betebehar batzuk bete beharko dituzte agiri horiek, eta Segurtasun eta Osasuneko Zuzendaritza Fakultatiboak ezagutu eta onetsi egin behar dituzte, Segurtasun eta Osasun Planaren parte gisa.

Gutxienez, eduki horiek ondorengo zerrenda honetan erabiltzea aurreikusten da:

- Segurtasuneko Arduraduna izendatzeko agiria.
- Segurtasuneko lantaldea izendatzeko agiria.
- Maniobren seinale-egilea izendatzeko agiria.
- Zenbait makina erabiltzeko baimen-agiriak.

10. SEGURTASUN ETA OSASUN ALORREKO HEZIKETA ETA INFORMAZIOA

Laneko arriskuen inguruan eta erabili beharreko lan-metodo seguruen inguruan langileek duten heziketa eta informazioa funtsezkoa da laneko arriskuen prebentzioak arrakasta izan dezan eta obra istripurik gabe egin dadin.

Kontratista esleipenduna legez behartuta dago bere ardurapean dauden langile guztiei lan-metodo seguruari buruzko heziketa bat ematera, eta era horretan, langile guztiek ezagutuko dituzte beren lan-jarduerak dituen berezko arriskuak, maniobra jakin batzuetan hartu beharreko jokabideak, eta beren babeserako beharrezkoak diren babesgarri kolektiboak eta norbanakoen babeserako ekipoak egoki erabiltzeko moduak.Baldintza tekniko berezien orriek ezartzen dituzte zein diren heziketari buruzko jarraibide eta irizpideak, Kontratista esleipendunak bere Segurtasun eta Osasun Planean garatu ditzan.

Donostian, 2017ko maiatzean

Proiektuaren Egilea

Stua.:Álvaro García González
Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria
8.345 zk. Elkargokidea
Plazuela, Ingeniería Civil y Ambiental, S.L.

II. BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN ORRIAK

AURKIBIDEA

1. HELBURUAK
2. BABES KOLEKTIBOKO BALIABIDE GUZTIEK BETE BEHARREKO ARAU ETA BALDINTZA TEKNIKOAK
3. NORBANAKOEN BABESERAKO EKIPOEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK
4. OBRAKO SEINALEAK
5. HIGIENE-ARRISKUAK HAUTEMATEA ETA HIGIENE-ARRISKUEN SEGURTASUN-NEURKETAK EGITEA
6. SEGURTASUN ETA OSASUN PLANAK PROPOSATUTAKO ALTERNATIBEI BURUZ ERABAKITZEKO APLIKATUTAKO SISTEMAK
7. OBRAN APLIKATU BEHARREKO LEGERIA
8. BALIABIDE OSAGARRIEN, MAKINEN ETA EKIPOEN SEGURTASUN-BALDINTZAK
9. LANGILEENTZAKO BEHIN-BEHINEKO INSTALAZIOEN ETA ENPRESAREN EREMU OSAGARRIEN BALDINTZA TEKNIKOAK
10. OBRAN SUTEEN PREBENTZIOA EGITEKO BALDINTZA TEKNIKOAK
11. LANGILEEI HEZIKETA ETA INFORMAZIOA ESKAINTZEA
12. BABES KOLEKTIBOAREN ETA NORBANAKOEN BABESERAKO EKIPOEN MANTENTZE-LANAK, KOKAPEN-ALDAKETAK, KONPONKETA ETA ORDEZKAPENA.
13. LANEKO ISTRIPUREN BAT GERTATUZ GERO EGIN BEHARREKOA
14. NORBANAKOEN BABESERAKO EKIPOAK NOLA BANATZEN DIREN KONTROLATZEA
15. PREBENTZIOKO LANGILEEN GIZA PROFILAK
16. SEGURTASUNEKO ARDURADUNAK EGIN BEHARREKO EGINKIZUNAK
17. MAKINERIA ETA MAKINA-ERREMINTAK ERABILTZEKO BAIMEN-ARAUAK
18. SEGURTASUN ETA OSASUNAREN ALORREAN KONTRATISTA ESLEIPENDUNAK DITUEN BETEBEHARRAK
19. SEGURTASUN ETA OSASUN ARLOKO AURREKONTUAREN KONTU-SAILAK NEURTZEKO ETA ZIURTATZEKO ARAUAK
20. SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA
21. GERTAEREN LIBURUA

1. HELBURUAK

Segurtasunari eta Osasunari buruzko baldintza tekniko berezien orri hauek obra honetako kontratu-agiri bat osatzen dute, eta honako helburuak dituzte:

1. Kontratista esleipendunak Segurtasunari eta Osasunari buruzko Azterketa honekin loturik dituen betebehar guztiak zehaztea.

2. Erabakitako prebentzioaren kalitatea zehaztea eta egoki antolatzea.

3. Kasu jakin batzuetan nahitaez bete beharreko prebentzio-neurriak zehaztea edo obra honetako eraikuntza-sistemak berezkoak dituenak Segurtasun eta Osasun Planaren barruan sar ditzala eskatzea Kontratista esleipendunari.

4. Eraikitakoaren geroko mantentze-lanak egiteko erabakitako prebentzioaren kalitatea zehaztea.

5. Segurtasunari eta Osasunari buruzko Azterketa honetan jasotako prebentzioari Segurtasun eta Osasun Planak egindako proposamen edo alternatibak ebaluatzeko sistema definitzea.

6. Erabiltzea aurreikusten diren prebentzio-neurri guztien kalitate-maila jakin batzuk finkatzea, horien arrakasta bermatzeko xedez.

7. Erabakitako prebentzioa eta horren administrazioa nola gauzatzen den kontrolatzeko moduak definitzea.

8. Segurtasun eta Osasun alorrean heziketa-programa jakin bat finkatzea, diseinatutako prebentzioa arrakastaz ezarri ahal izateko balio duena.

Hori guztia, obra laneko istripurik edo gaixotasunik gabe egin dadila erdiesteko xede orokorrarekin, Segurtasun eta Osasun memorian finkatutako helburuak betez; xede horiek ez dira hemen aipatuko, txostena gehiegi ez luzatzearren, baina kontratu-agiri honetan funtsezko arau gisa jasotzat ulertu behar dira.

2. BABES KOLEKTIBOKO BALIABIDE GUZTIEK BETE BEHARREKO ARAU ETA BALDINTZA TEKNIKOAK

Baldintza orokorrak

Eniriotik Igaratzako txaboletara doan bidea motordun ibilgailuentzat egokitzeko, Segurtasunari eta Osasunari buruzko Azterketa honen memorian jasotakoaren arabera, Kontratista esleipendunaren ardura izango da horiek guztiek ondorengo baldintza orokor hauek betearaztea:

1. Kontratistaren Segurtasun Planaren barruan zehaztuko da obra honen babes kolektiboa.

2. Segurtasun eta Osasun Planean aurkezten diren alternatiba eta proposamenak onetsi ahal izateko, beharrezkoa izango da seriotasuna eta, halaber, kalitateko ordezkaritza tekniko bat, obra-exekuzioari buruzko planoen bitartez.

3. Edozein lan egiten hasi aurretik, beharrezkoak diren seinale guztiak muntatuko dira.**Debekatuta dago babes kolektiboa eskatzen duen lan edo jarduera bat hastea, arriskua gutxitzen edo ezabatzen duen eremuan babes hori guztiz muntatua egon arte.**

4. Kontratista esleipenduna behartua dago bere "obra-exekuzioaren planean" materialak eta seinaleak muntatzeko data, horien kokapena aldatzekoa eta, halaber, horiek kentzekoa jasotzera eta eskaintzera, aipatutako dokumentu teknikoen barruan jaso eta eskainiko duen obraren exekuzio-planeko eskemari jarraiki.

5. Obra egin bitartean, beharrezkoa izan daiteke onetsitako Segurtasun eta Osasun planean aurreikusitako babes kolektiboa instalatzeko modua edo antolamendua aldatzea.Hori gertatzen bada, egoera berria segurtasun-planoetan definituko da, antolamendu berria edo muntatzeko modu berria zehatz-mehatz definituz.Plano horiek Obrako Zuzendaritza Fakultatiboak onetsi behar ditu.

6. Lan honetan proiektatutako babes kolektiboen helburua langile guztiak eta obrako bisitari guztiak arriskuetatik babestea da, hau da: enpresa nagusiko langileak, enpresa azpikontratistakoak, enpresa kolaboratzaileetakoak, langile autonomoak eta obra-zuzendaritzako edo Jabetzako teknikarien bisitak, erakunde ofizialetako ikuskaritza-bisitak edo arrazoi desberdinengatik gonbidatuak.

7. Kontratista esleipenduna, indarreko legeriarekin bat etorriz, behartua dago babes kolektiboa bere baliabideekin edo azpikontratazio bidez muntatzera, egoera onean mantentzera eta kentzera, eta Jabetzaren aurrean erantzungo du, obraren Esleipen Kontratuko eta Proiektuaren baldintza tekniko berezien orrietako zigor-klausulekin bat etorriz.

8. Kontratista esleipenduna behartua dago, aurreikusitako eta muntatutako erabilera-kokapenean, edozein arrazoirengatik huts egiten duten babes kolektiboak mantentzera, harik eta ikerketa egiten den arte, Segurtasun eta Osasuneko Zuzendaritza Fakultatiboaren berariazko laguntzaren bitartez. **Pertsona batek edo batzuek istripua izan dutelako huts eginez gero, indarreko lege-arauekin bat etorriz jokatuko da, eta gainera, gertaera horiek gertatu orduko, berandutu gabe, Obrako Zuzendaritza Fakultatiboari jakinaraziko zaio.**

3. NORBANAKOEN BABESERAKO EKIPOEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Baldintza orokorrak

Norbanakoen babeserako ekipoak obra-unitate bakoitzaren zeharkako kostuetan sartuta daude eta nahitaezkoa da horiek erabiltzea.

Arau orokor gisa, norbanakoen babeserako ekipo eroso eta eraginkorrak hautatuko dira, horrelakoak erabiltzeari inork uko egin ez diezaion.Horren bidez justifikatuta geratuko da Kontratista esleipendunak bere langile taldea obra burutzeko baldintzarik onenetan daukala.Adierazitakoaren arabera, berariazko baldintza gisa ezartzen da:obra honetan erabili daitezkeen norbanakoen babeserako ekipo guztiek ("N.B.E.") bete egingo dituzte

indarrean dauden lege-baldintza guztiak ("CE" marka edo horren antzeko homologazioa, iraungitze-data arte, premien araberako kopurua, eta abar).

Ekipo horiek erabilgarri egongo dira obrak irauten duen bitarte guztian, baita obra-lekura egindako bisitek irauten duten bitartean ere, ondoko hauentzat:

Zuzendaritza Fakultatiboarentzat

Zuzendaritza Fakultatiboko kide ez diren Jabetzako kideentzat.Parte

hartzen duten enpresetako buruentzat.

Obra-buruarentzat.

Obra-buruaren laguntzaileentzat.Arduradunentzat.

Langileburuentzat.

Obrako laguntzaile teknikoentzat.Ikuskaritza-bisitentzat.

4. OBRAKO SEINALEAK Bide-seinaleak

Obrara doazen errepideen titulartasunaren jabe diren erakundeek horrela eskatzen badute, bide-seinaleek "Zirkulazio Kode" berria beteko dute, baita MOPUk xedatutako "8.3-IC Herritik kanpoko obra finkoetako Seinaleak, Balizak, Babesgarriak, Garbiketa eta Akaberari" buruzko Errepide Arauaren edukia ere, nahiz eta horiek ez diren hemen hitzez hitz aipatutako, txostena gehiegi ez luzatzearren.

Obra honetako bide-seinaleak bikoitzak izango dira; hau da, batetik, obrak daudenez hirugarrengoei eragin diezaieketen arriskutik babestu nahi ditu bideko gidariak, Segurtasunari eta Osasunari buruzko azterketa edo plan baten helburuetatik erabat kanpo geratzen bada ere, eta horrez gain, obrako langileak ere babestu nahi ditu obra barrura ibilgailuak oro har bortxaz sartzeak eragiten dituen istripuetatik.

Deskribapen teknikoa

KALITATEA:Berriak izango dira, estreinatu gabeak.

"8.3-IC" Herritik kanpoko obra finkoetako Seinaleak, Balizak, Babesgarriak, Garbiketa eta Akaberari" buruzko Errepide Arauaren arabera normalizatutako trafiko-seinalea.

Seinaleak muntatzeko arauak

1. Debekatua dago pilatutako harriekin edo solte dauden materialekin horiei eustea.Berezkoak dituzten oin zuzen metalikoen eta tripodeen gainean jarriko dira.

2. Seinaleak elementu opakoen bidez estalita egongo dira, horiek iragartzen duten arrisku, gomendio edo informazioa alferrikakoa denean eta edozein arrazoirengatik oraindik kentzea komeni ez denean.

3. Bide-seinaleentzako plano berezietan adierazten diren tokietan eta distantzietara kokatuko dira.

4. Seinaleak garbitzeko eta mantentze-lanak egiteko lantalde bat egongo da iraunkorki, obra honetan jarritako bide-seinaleen eraginkortasuna bermatuko duena.

5. Nolanahi ere, Obra Zuzendaritzak obra egin bitartean egiten dituen iruzkin eta gomendioak kontuan hartuko dira.

Bide-seinaleak muntatuko dituztenek nahitaez bete beharreko segurtasun-arauak

Bide-seinaleak ez dira nahierara muntatuko.Segurtasuneko Arduradunak edo obrako Zuzendaritza Fakultatiboak eskaintzen dizkioten planoak teknikariek prestatuak dira eta horrelakoen eraginkortasuna bermatzeko beharrezko zehaztapenak betetzen dituzte, eta plano horiek ahalik eta modurik zorrotzenean bete beharko dituzte.

Seinaleak jarri diren bide-tartea aztertu eta birplanteatu egingo da, eskainitako planoak eta horiek egoki muntatzeko arauak kontuan izanik.Edozein arrazoi dela medio, seinale bat edo batzuk ikusgaitasun nahikorik ez dutela hautematen badute, Segurtasuneko Arduradunari edo Obrako Zuzendaritza Fakultatiboari jakinarazi beharko zaio, irtenbide egokia eman diezaieten eta, gero, praktikan jar dezaten.

Lan honetarako, eta Segurtasuna bermatzearren, nahitaezkoa da langileak lanean egiten dituen mugimenduetan eroso eta seguru sentitzen den modu batean erabiltzea norbanakoen babeserako ekipo horiek.

5. HIGIENE-ARRISKUAK HAUTEMATEA ETA HIGIENE-ARRISKUEN SEGURTASUN-NEURKETAK EGITEA

Eraikitzaile esleipenduna behartuta egongo da bere Segurtasun eta Osasun Planaren barruan higiene-arriskuen neurketa teknikoak jasotzera eta, gero, horiek gauzatzera, bai zuzenean edo bai laborategi, mutua patronal edo enpresa espezializatu batzuen laguntzaz edo horiek kontratatuta, aurreikusten diren edo hauteman daitezkeen higiene-arriskuak hautemateko eta horiek ebaluatzeko, lanak egiten diren bitarte guztian; alde horretatik, ondoko neurketak egin beharko dira:

- Lanen eta horien ingurunearen maila akustikoa.
- Harriak zulatzeko lanetan sortutako hauts-maila.

Obraren higienerako beharrezkoak diren neurketa eta ebaluazio hauek beharrezko tresna tekniko espezializatuak erabiliz egingo dira, betiere langile kualifikatuen eskutik.

Egoerari buruzko txostenak eta ebaluazioak Obrako Zuzendaritza Fakultatiboari eskainiko zaizkio, erabakiak har ditzan, betiere lan berezi horiek egingo dituzten langileen onespenarekin, horien esperientzia funtsezkoa delako hainbat kasutan.

6. SEGURTASUN ETA OSASUN PLANAK PROPOSATUTAKO ALTERNATIBEI BURUZ ERABAKITZEKO APLIKATUTAKO SISTEMAK

Segurtasunari eta Osasunari buruzko azterketaren egileek, Kontratista esleipendunak bere Segurtasun eta Osasun planean proposatutako alternatibak identifikatzeko, ondorengo irizpide teknikoak erabiliko dituzte:

1. Babes kolektiboak errespetatzea:

   A. Proposamen alternatibo horretan ez da eskatuko ordezkatu nahi denean eskatutakoak baino maniobra kopuru handiagoa egitea; arrazoi honengatik:zenbat eta maniobra gehiago egin, arrisku kopuru handiagoa izango da.

   B. Horien ordez ezin daitezke norbanakoen babeserako ekipoak jarri.

   C. Ez dituzte aurreikusitako kostu ekonomikoak areagotuko.

   D. Ez du eragingo obra-exekuziorako epea luzatzea.

   E. Ez du edukiko Segurtasunari eta Osasunari buruzko azterketa honetan aurreikusitakoak baino kalitate gutxiago.

   F. Segurtasunari buruzko azterketa honetan aurreikusitako irtenbideen ordez, baldin eta funtzionamendu egokia bermatuz merkaturatu badira, ezin daitezke artisau erara egindako beste batzuk jarri (tailerrean edo obran eginak), non eta ez diren berariazko kalkulu baten bidez, plano teknikoetan irudikatuta eta teknikari eskudun baten sinaduraz justifikatzen.

2. Norberaren Babeserako Ekipoak

   A. Proposamen alternatiboak ez dira izango Segurtasunari buruzko Azterketa honetan aurreikusitakoak baino kalitate gutxiagokoak.

3. Beste gai batzuk

   A. Segurtasun eta Osasun Planak ezin zorrotzago erantzun behar die Segurtasunari eta Osasunari buruzko Azterketa honetan jasotako betebehar guztiei.

   B. Kontratista esleipendunak obraren esleipenerako eskaintzan proposatutako "obraren exekuzio-plana" jasoko du Segurtasun eta Osasun Planak, eta gutxienez, Segurtasunari eta Osasunari buruzko Azterketa honek jasotzen dituen datu guztiak bilduko ditu.

7. OBRAN APLIKATU BEHARREKO LEGERIA

Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoko lan-legeria guztia transkibatuta dagoela ulertu behar da, baina ez da hemen berregingo, luzeegia gertatuko litzatekeelako.Obra honetan aplikagarri den Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako Zuzenbide Positiboa nahitaez bete beharrekoa izango da, eta beraz, hori hemen

transkribatzeak edo ez transkribatzeak ez du garrantzirik bere eraginkortasunari begira.

8. BALIABIDE OSAGARRIEN, MAKINEN ETA EKIPOEN SEGURTASUN-BALDINTZAK

Obran erabiliko diren makina eta ekipo osagarri gehienak alokatuak izango direnez gero, Kontratista nagusiak bermatu egin beharko du langile makinariek beharrezkoak izan daitezkeen norbanakoen babeserako baliabide guztiak dituztela.

Debekatua dago baliabide osagarriak, makinak eta ekipoak partzialki muntatzea; hau da, beren eginkizuna betetzeko merkaturatzen diren osagaietako bat edo batzuk gabe erabiltzea.

Baliabide osagarriak, makinak eta ekipoak erabili, muntatu eta kontserbatzeko orduan, muntaketa- eta erabilera-baldintza seguruak ezin zorrotzago betez egingo da, eta horien ekoizleak argitaratutako erabilera-eskuliburuan jasoko dira baldintza horiek.

Obra honetan erabili beharreko baliabide osagarri, makina eta ekipo guztiek indarreko legeria aplikatuz eska daitezkeen segurtasun-gailu bereziak edukiko dituzte.Berariaz debekatua dago aurreko baldintza hori betetzen ez duten baliabide osagarriak, makinak eta ekipoak obra barrutian sartzea.

Baliabide osagarri, makina eta ekipoen merkatuak "CE" marka duten produktuak eskaintzen baldin baditu, Kontratista esleipendunak, obra-exekuziorako eskaintza aurkezteari begira azterketa egiteko unean, kontuan hartu beharko ditu horiek eta horrelakoak eskuratzen ahalegindu, marka hori ez dutenak baino seguruagoak direlako izatez.

9. ENPRESAKO LANGILEENTZAKO BEHIN-BEHINEKO INSTALAZIOEN ETA EREMU OSAGARRIEN BALDINTZA TEKNIKOAK

Enirio Aralarko Mankomunitatearen jabetzako txabola horietako bat erabiliko denez gero eta horiek beharrezko zerbitzu guztiak dituztenez gero, ez da baldintza gehigarririk ezarriko.

10. OBRAN SUTEEN PREBENTZIOA EGITEKO BALDINTZA TEKNIKOAK

Obrak suak kiskalita gera daitezke, mundu guztiak dakien bezala, gizarte-hedabideek luze eta zabal ezagutzera emandako ezbehar garrantzitsuak direla eta.Obra hau, gehienak bezala, sute-arriskupean aurkitzen da, eta beraz, horiek eragozteko edo itzaltzeko, nahitaez bete beharreko ondorengo arau hauek ezartzen dira:

1. Debekatuta dago sua egitea, metxeroak erabiltzea, soldadurak eta antzekoak egitea material suhargarrien presentzian, baldin eta gerta litekeen sutea itzultzeko su-itzalgailu egokirik ez badute aldez aurretik.

2. Kontratista esleipenduna behartuta dago bere Segurtasun eta Osasun Planean plano bat jasotzera, eraikuntza-fase desberdinetarako ebakuazio-bide batzuk islatuko dituena, obraren exekuzio-planaren eta eraikuntzarako duen teknologia bereziaren arabera.

Begi-bistakoa da Proiektu fasean ezinezkoa izango dela bide horiek zehaztea, eta hala egingo balitz, eremu teorikora mugatuta geratuko lirateke.

3. Suteak itzaltzeko metodo gisa, UNE 23.110 araua betetzen duten su-itzalgailuak erabiliko dira, eta hedaduraz, NBE CP1-96 araua edo horren ondorengo aldaketak aplikatuko dira.

   Suteetarako itzalgailuak jarriko diren obrako tokiak:

   - Obrako langileentzako aldagelak eta komunak.
   - Obrako langileentzako jangela.
   - Lehen sorospenerako lokala.
   - Produktu edo material suhargarriak gordetzen diren biltegiak.
   - Koadro elektriko orokorra.
   - Obrako makina finkoen koadroak.
   - Materialen biltegiak eta tailerrak.
   - Sute-arriskua duten metaketa bereziak.

   Gainera, suteak eragin ditzaketen soldadura-lanetarako su-itzalgailu mugikorrak egotea eta erabiltzea aurreikusten da.

4. Kontratista esleipendunak, bere Segurtasun eta Osasun Planean, diseinatutako prebentzio maila errespetatuko du, hori aldatzeko askatasuna emango zaion arren, dituen eraikuntza-sistema eta antolamendu propioetarako egoki denaren arabera.

11. LANGILEEI HEZIKETA ETA INFORMAZIOA ESKAINTZEA

Kontratista esleipenduna legez behartuta dago heziketa jaso duten langileak bere mende edukitzera; alegia, Segurtasun eta Osasun alorrean ezaguna den heziketa teorikoa edukitzeaz gain, dagokion obran aplikatuko dena, obra mota bakoitzari berariaz dagokiona; eta era horretan, obra honetako langile guztiek:Beren lan-jarduerak berezkoak dituen arriskuei buruzko ezagutza eduki behar dute, baita maniobra jakin batzuetan hartu beharreko jokabideari buruzkoa ere, eta halaber, beren babeserako beharrezkoak diren babes kolektiboak eta norbanakoen babeserako ekipoak egoki erabiltzekoak.

Jaso ahal izan duten heziketa konbentzionala alde batera utzirik, informazio hori idatziz emango zaie, eta Baldintza Tekniko Berezien Orri hauetan xede horretarako gehitu diren testuak erabiliko dira horretarako.

Kontratistak Laneko Arriskuen Prebentziorako bere plana baldin badauka, enpresaren arriskuen prebentziorako planean aurreikusitakoa aplikatuko da.

- Heziketa-kronograma.

Segurtasunari eta Osasunari buruzko azterketa honen memorian islatutako bide kritikoa ikusirik, langileentzat heziketa-ikastaro batzuk egitea aurreikusten da, ondorengo helburu orokor hauek bete ahal izan ditzaten:

A. Segurtasunari eta Osasunari buruzko azterketa honetako prebentzio-edukiak ezagutzera ematea, onetsitako Segurtasun eta Osasun plan bilakatzen denean.

B. Obra zehatz honetan aplikatu beharra ulertzea eta onartzea.

C. Langileen artean laneko arriskuen prebentziorako benetako giro bat sortzea.

Adierazitakoarekin bat etorriz, ondorengo irizpide hauek ezarriko dira, Segurtasun eta Osasun Planak garatu ditzan:

1. Kontratista esleipendunak, bere Segurtasun eta Osasun planaren barruan, laneko arriskuen prebentziorako heziketa-ikastaroak zein datatan eskainiko diren adieraziko du, Segurtasunari eta Osasunari buruzko Azterketa honek "nahitaez bete beharreko arauak" atalean horrekin loturik eskaintzen dituen irizpideak errespetatuz.

2. Segurtasun Planak berariaz jasoko du nahitaez bete beharreko arauak eta aipatutako dokumentuaren jatorrizkoaren ertz batean "jaso dut" egokia sinatu beharra langileei garaiaz jakinarazteko betebeharra.Ekintza honen bidez bi helburu garrantzitsu beteko dira:berehalako heziketa eskainiko da, eta heziketa hori eskaini izana dokumentu bidez egiaztatuta geratuko da.

3. Segurtasun eta Osasun alorreko ezagutzak aldez aurretik erdietsi behar dituzte langileek, heziketa-ikastaro hauetako adibide zehatzetan aplikatu ahal izateko.

12. BABES KOLEKTIBOAREN ETA NORBANAKOEN BABESERAKO EKIPOEN MANTENTZE-LANAK, KOKAPEN-ALDAKETAK, KONPONKETA ETA ORDEZKAPENA.

Kontratista esleipendunak, bere Segurtasun eta Osasun planaren barruan, laneko arriskuen prebentzioaren alorrean Baldintzen Orri hauetan xedatutakoa bete izanari buruzko "ebaluazio-programa" bat proposatuko dio Segurtasun eta Osasun alorreko Koordinatzaileari lanak egiten diren bitartean, eta horren bitartez bermatu ahal izango da aurreikusitako leku eta denboretan erabakitako babesa egon badagoela, benetako prebentzio-eraginkortasuna duela eta, hala egokituz gero, erabili diren babes guztien mantentze, konponketa eta ordezkapena egin dela.Programa honek, gutxienez, ondorengoak jasoko ditu:

1. Kontratista esleipendunak duen eraikuntza-sistema propioaren arabera erabiliko duten metodologia

2. Egingo diren behaketen edo kontrolen maiztasuna.

3. Proposatutako ikuskaritza-lan horiek egiteko ibilbideak.

4. Eginkizun horretarako aurreikusten dituzten langileak.

5. Egindako kontrolen eboluzioari buruzko analisi-txostena.

Aurreko atalean idatzitakoa gorabehera, Segurtasun eta Osasun alorreko baldintza tekniko berezien orri hauetako aurkibidearen 1. eta 2. ataletako edukia gogorarazten da.Babes kolektiboko baliabide guztiek eta norbanakoen babeserako ekipoek, hurrenez hurren, bete beharreko arau eta baldintza teknikoak.

13. LANEKO ISTRIPUREN BAT GERTATUZ GERO EGIN BEHARREKOA

Egin beharrekoa

Laneko istripu batek arriskuen prebentzioak huts egin duela esan nahi du, eta arrazoi askorengatik izan daiteke hori, baina denen gainetik kontrolatzen zailak edo ezinezkoak direnak daude.

Horregatik, baliteke, prebentzio alorrean ahalegin handiak egin arren eta borondate guztia jarri arren, porroten bat gertatzea.

Kontratista esleipenduna behartuta dago bere "Segurtasun eta Osasun Planaren" barruan ondorengo sorospen-printzipio hauek jasotzera:

1. Istripua jasan duen pertsona da garrantzitsuena.Berehala eskainiko zaio arreta, jasandako lesioak larriagotu edo areagotu daitezela eragoztearren.

2. Altura batetik edo gain batetik eroriz gero, eta istripu elektrikoa edukiz gero, beti pentsatu beharko da lesio larriak egon daitezkeela, eta horrexegatik, lehen sorospenean arreta handiz artatuko dira, zauritua ibilgetzeko teknika bereziak aplikatuz, anbulantzia iristen den arte eta, istripu elektrikoa gertatuz gero, suspertze-ariketak egiten zaizkion arte.

3. Larritasuna nabarmena den kasuetan, zauritutakoa ohatilan eta anbulantzian garraiatuko dute; ahal izanez gero, lehen sorospenean zaurituari arreta egiten dioten pertsonen irizpide egokiari jarraiki, baztertu egingo dute garraio partikularrak erabiltzea, zaurituari arriskua eta deserosotasuna eragin diezaioketelako.

4. Kontratista esleipendunak, prestatzen duen "Segurtasun eta Osasun planaren" bitartez, istripua jasaten dutenei arreta egokia eskainiko zaiela eta obratik eroso eta seguru garraiatuak izango direla bermatzeko daukan osasun-azpiegitura propioa, mankomunatua eta kontratatua jakinaraziko du.

5. Kontratista esleipendunak, prestatzen duen "Segurtasun eta Osasun planaren" bitartez, istripua jasaten dutenei osasun-laguntza eskaintzeko aurreikusitako osasun-zentro hurbilenaren izena eta helbidea jakinaraziko du –erakundearen arabera–.Segurtasunari eta Osasunari buruzko azterketa honetan eskaintzen den laguntza-zentroaren izena eta helbidea behin-behinekoa dela ulertu behar da.Kontratista esleipendunak aldatu egin dezake.

6. Kontratista esleipenduna behartuta dago 2 m-ko distantziara ongi ikusteko

moduko karaktereak dituzten zenbait errotulu jartzera, langileei eta obran parte hartzen duten gainerako pertsonei osasun-zentroa ezagutzeko beharrezko informazioa eskainiko dutenak –helbidea, harremanetarako telefonoak eta abar-; errotulu horrek gutxienez ondoren datorren taulako datuak izango ditu, eta Kontratista esleipendunaren borondatearen arabera uzten da hori materialki gauzatzea:

ISTRIPUA IZANEZ GERO HONA JO:	
Osakidetza Larrialdiak Lanegunetan 17:00etatik aurrera Jaiegunetan 24 orduetan	**Telefonoa 943-461-111**
Zumarragako Ospitalea	**Telefonoa 943 03 50 00**
Helbidea	**Argixao auzoa, z/g**
Arantzazuko Ama Ospitalea (Larrialdiak)	**Telefonoa 943-451-718**
Helbidea	**Zorroaga Gaina (Donostia)**
Anbulantzien telefonoa	**112**
Larrialdi-telefonoa	**112**
Ospitaleko informaziorako telefonoa	**112**

7. Kontratista esleipendunak aurreko errotulu hori ondorengo obra-leku hauetan jarriko du nahitaez:obrako sarreran; obrako bulegoan; langileen aldagela eta garbigeletan; jangelan eta, DIN A-4 orriko tamainan, lehen sorospenerako botika-kutxa bakoitzaren barruan.Betebehar hori funtsezko baldintza dela jotzen da laneko istripuren bat gertatuz gero laguntzaren eraginkortasuna erdietsi ahal izateko.

Zaurituak garraiatu behar izanez gero jarraitu beharreko ibilbiderik egokiena

Kontratista esleipenduna behartuta dago bere Segurtasun eta Osasun Planaren barruan izan litezkeen zaurituak garraiatzeko gomendatutako ibilbide bat adieraztera, larrialdiko egoeretan akatsak gerta daitezela eragozteko, akats horiek zaurituak izan ditzakeen lesioak larriagotu egin ditzaketelako.

Laneko istripua gertatzen denean berehala jakinaraztea

Kontratista esleipenduna behartuta dago informazio eta azalpenerako ondorengo taulan jasotako ekintzak eta jakinarazpenak egitera, funtsezko jardueratzat hartzen baitira erabakitako prebentzioaren analisi hobea egiteko eta eraginkortasun handiagoa lortzeko:

LANEKO ISTRIPUA GERTATUZ GERO BEREHALA JAKINARAZI BEHARREKOAK:

Kontratista esleipendunak, bere Segurtasun eta Osasun Planean, laneko istripuak berehala jakinarazteko betebehar hau jasoko du:

Istripu arina. **Obrako Zuzendaritza Fakultatiboari**: horrelako istripu guztiak, horien arrazoiak ikertzeko eta egoki diren zuzenketak egiteko. **Lan Agintaritzari**:lan-istripuen alorreko indarreko legeriak ezartzen duen moduan.
Istripu larriak. **Obrako Zuzendaritza Fakultatiboari:**berehala, horien arrazoiak ikertzeko eta egoki diren zuzenketak egiteko. **Lan Agintaritzari:** lan-istripuen alorreko indarreko legeriak ezartzen duen moduan.
Heriotza eragiten duten istripuak **Guardiako epaitegiari:** gorpua altxatzeari eta ikerketa judizialei ekin ahal izateko. **Obrako Zuzendaritza Fakultatiboari:**berehala, horien arrazoiak ikertzeko eta egoki diren zuzenketak egiteko. **Lan Agintaritzari:** lan-istripuen alorreko indarreko legeriak ezartzen duen moduan.

Administrazio-jarduerak laneko istripua gertatuz gero

Laneko istripua gertatuz gero obrak dituen administrazio-betebeharrak jakinarazteko asmoz, Kontratista esleipenduna behartuta dago bere Segurtasun eta Osasun planean legez nahitaez egin behar dituen administrazio-jardueren bilduma bat jasotzera.

Lehen sorospenerako botika-kutxa

Obran eta, oro har, obrako etxolan, lehen sorospenerako botika-kutxa bat jarriko da, eta horren barruan, jarraian zehazten diren artikulu guztiak egongo dira:

Ur oxigenatua; 96 graduko alkohola, iodo-tintura; "merkurokromoa" edo "cristalmina"; amoniakoa, gaza esterila; kotoi hidrofilo esterila; alergien aurkako esparatrapua; hemorragien aurkako torniketeak; ur edo izotzarentzako poltsa; eskularru esterilizatuak; termometro klinikoa; hesgailu autoitsasgarriak; espasmoen aurkakoak; analgesikoak, larrialdiko bihotz-bizkorgarriak eta behin erabili eta botatzeko xiringak.

14. NORBANAKOEN BABESERAKO EKIPOAK NOLA BANATZEN DIREN KONTROLATZEA

Kontratista esleipendunak, bere "Segurtasun eta Osasun Planaren" barruan, bere obretan erabili ohi dituen "norbanakoen babeserako ekipoak banatzeko agiriaren" eredua jasoko du.Horrelakorik ez badu, egin egin beharko du eta obren Zuzendaritza Fakultatiboak onets dezan aurkeztu.Gutxienez, ondorengo datuak bilduko ditu:

1. Agiriaren zenbakia
2. Kontratista nagusiaren identifikazioa
3. Kontrolak eragindako enpresa, nagusia izan, azpikontratista izan nahiz autonomoa izan.

4. Norbanakoen babeserako ekipoak jaso dituen langilearen izena.

5. Betetzen duen lan edo lanbidea

6. Kategoria profesionala

7. Langileak jaso dituen norbanakoen babeserako ekipoen zerrenda

8. Norbanakoen babeserako ekipoak jaso dituen langilearen sinadura.

9. Enpresa nagusiaren sinadura eta zigilua.

15. PREBENTZIOKO LANGILEEN GIZA PROFILAK

- Segurtasun eta Osasuneko Arduraduna

Obra honetan, erabakitako prebentzioa eta babesa egunez egun eta garaiz kontrolatu ahal izateko beharrezkoa da Segurtasuneko Arduradun bat egotea, obrako Kontratista esleipendunak kontratatua, horretarako definitutakoaren karguarekin, Segurtasunari eta Osasunari buruzko azterketa honetako neurketa eta aurrekontuarekin bat etorriz.

16. SEGURTASUNEKO ARDURADUNAK EGIN BEHARREKO LANAK

1. Obrako Zuzendaritza Fakultatiboaren jarraibideak beteko ditu.

2. Burututako prebentzio-lanen egoeraren berri une egokian emango dio Obrako Zuzendaritza Fakultatiboari.

3. Segurtasunari eta Osasunari buruzko azterketa honek berarekin dakarren planaren jarraibideak betez, babes kolektiboen muntaketa, mantentze-lanak eta kentzekoak kontrolatu eta zuzenduko ditu.

4. Onetsitako Segurtasun eta Osasun planean erabakitako prebentzioaren eta babesaren baliabideak eta kontsumoak kontrolatuko ditu eta langileei eta bisitariei norbanakoen babeserako ekipoak banatuko dizkie.

5 Obrako segurtasun-maila neurtuko du, jarraipenerako eta kontrolerako zerrendak betez, eta obrako buruzagitzari igorriko dizkio ezagutu ditzan, baita Obrako Zuzendaritza Fakultatiboari ere, egoki diren erabakiak har ditzan.

6. Segurtasun eta Osasun arloko ziurtagirien neurketak egingo ditu, obrako buruzagitzarentzat.Alde horretatik, Proiektu honetako Segurtasunari eta Osasunari buruzko Azterketak adierazitako babes kolektiboko unitateak edo babes berezikoak eta obrarako onetsiko den Segurtasun eta Osasun Planean onetsitakoak balioetsiko dira bakar-bakarrik.

17. MAKINAK ETA MAKINA-ERREMINTAK ERABILTZEKO BAIMEN-ARAUAK

Esperientziak frogatua dago obrako istripu asko, beste arrazoi batzuen artean, gaizki ulertutako boluntarismoagatik, esperientzia edo lanerako heziketaren faltagatik eta trebetasun-faltagatik gertatzen direla.Egoera horiek ahalik eta gehien eragoztearren, obra honetan makina bat edo makina-erreminta jakin bat erabiltzeko nahitaez baimendua egon beharra ezarri da.

1. Kontratista esleipenduna behartua dago bere estiloan ondorengo dokumentua idaztera eta hori bere Segurtasun Planean jasotzera eta praktikan jartzera.

MAKINAK ETA MAKINA-ERREMINTAK ERABILTZEKO BAIMEN-AGIRIA
Data: Baimenduta geratzen den interesatuaren izena: Ondorengo makinak erabiltzeko baimena eman zaio, horretarako gaitasuna duelako: Erabili daitezkeen makinen zerrenda: Sinadurak. Interesatua. Obrako burua Eraikitzaile esleipendunaren zigilua

2. Dokumentu hauek hirukoizturik sinatuko dira.Originala obrako bulegoan artxibatuta geratuko da.Kopia bat, sinatua eta zigilatua, obrako Zuzendaritza Fakultatiboari emango zaio; eta hirugarren kopia, originalaren gainean sinatua eta zigilatua, interesatuari emango zaio.

18. KONTRATISTA ESLEIPENDUNAK SEGURTASUN ETA OSASUN ALORREAN DITUEN BETEBEHARRAK

1. Espainiar Estatuko nahiz dagokion Autonomia Erkidegoko indarreko legeriak laneko Segurtasun eta Osasunaren alorrean eskatzen dituen eta obran aplikatu beharrekoak diren betebehar guztiak obran bertan betetzea eta betearaztea.

2. Ahalik eta eperik laburrenean eta betiere obrak hasi aurretik, segurtasun-plan bat idaztea, ondorengo Errege Dekretu hauetako artikuluak betez:1990. urteko 84 E.D., 1997. urteko 1.727 E.D., eta 1986ko irailaren 20ko Ministro Agindua, "Ezbeharren Liburua" ezartzen duena, eta Segurtasunari eta Osasunari buruzko azterketa honetako dokumentu guztietan obrarako definitutako prebentzio-maila errespetatuko du:"ENIRIO-ARALARREN, ENIRIOKO TXABOLATIK DONITURRIETA AZPIKOA ETA DONITURRIETA GARAKOA TXABOLETARA IRISPIDEA ERAIKITZEKO PROIEKTUA".
   Baldintza hori bete gabe ezin izango da onetsi.

3. Segurtasun eta Osasun Plana eta jarraitu nahi duen "obraren exekuzio-plana" barneratzea, segurtasunari buruzko kontu-sailak banakaturik jasoz, garaiz eta eraginkortasunez egin ahal izan daitezen; horretarako, Segurtasunari eta Osasunari buruzko Azterketa honetan eskaintzen den obraren exekuzio-plana eredutzat hartuko du leialtasun osoz.

4. Obrari ekin aurretik Segurtasun Plana aurkeztuko du, arauzko txosten ofiziala idatzi eta obra hau atxikita dagoen Administrazioko bulegoaren aurrean izapidetu ahal izan dadin.

5. Onetsitako Segurtasun Plana eskainiko die 1997ko urriaren 34ko 1627/1997 Errege Dekretuak zehazten dituen pertsonei.

6. Obrako Zuzendaritza Fakultatiboari, hamabost egun lehenago, lanak hasi nahi dituen data jakinaraziko dio, bere jarduerak programatu ahal izan ditzan eta zuinketa-aktaren sinaduran parte hartu ahal izan dezan, dokumentu honek indarrean jarriko baitu onesten den Segurtasun eta Osasun Planaren edukia.

7. Azterketako aurrekontuaren eta Kontratista esleipendunak aurkezten duen Segurtasun eta Osasun planekoaren artean desberdintasunik egonez gero, desberdintasun horiek Segurtasunari eta Osasunari buruzko Azterketaren egileekin adostu eta ahalik eta irtenbiderik egokiena eskainiko zaie, zuinketa-akta sinatu aurretik.

8. Onetsitako Segurtasun eta Osasun Planean jasotako prebentzioa bertako langile guztiei, azpikontratistei, eta obrako autonomo guztiei jakinaraztea eta bertan adierazitako baldintzekin eta prebentzio-neurriekin betearaztea, edo bestela, enpresako laneko arriskuen prebentziorako planean aurreikusitakoa.

9. Obrako langile guztiei onetsitako Segurtasun eta Osasun planeko Baldintza tekniko eta berezien Orri hauetan definitutako norbanakoen babeserako ekipoak banatzea, berehala eta eraginkortasunez erabili ahal izan daitezen.

10. Onetsitako Segurtasun eta Osasun Planeko Baldintza Tekniko Berezien Orrietan definitutako babes kolektibo guztiak (seinaleak) garaiz muntatzea, obrako exekuzio-planean jasotakoarekin bat etorriz; egoera onean mantentzea, posizioz aldatzea eta kentzea, obrako langile guztiak babesteko diseinatuak izan direla gogoan izanik, langile horiek enpresa bati afiliatuak izan, azpikontratistak izan edo autonomoak izan.

11. Onetsitako Segurtasun eta Osasun planean jasotako Obraren exekuzio-planean jasotakoa garaiz muntatzea, alegia: "langileentzako behin-behineko instalazioak". Erosotasun- eta garbitasun-egoera onean mantentzea; beharrezkoak diren posizio-aldaketak egitea, material suntsikorrak aldatzea eta dagozkionak erretiratzea, kontuan izanik instalazio hauek obrako langile guztiek erabil ditzaten zehaztu eta kalkulatu direla, langile horiek enpresa bati afiliatuak izan, azpikontratistak izan edo autonomoak izan.

12. Onetsitako Segurtasun eta Osasun Planeko Baldintza Tekniko Berezien Orrietan, "laneko istripua gertatuz gero bete beharreko jarduerak" atalean adierazitakoa leialtasun osoz betetzea.

13. Istripuak lehenbailehen jakinarazteabai arinak, bai larriak, bai heriotza eragiten dutenak eta bai biktimarik gabekoak ere, Obrako Zuzendaritza Fakultatiboari, "laneko istripua gertatuz gero bete beharreko jarduerak" atalean definituta dagoen moduan.

14. Segurtasunari eta Osasunari buruzko azterketa honetan prebentziorako definitutako eta jasotako baliabide guztiak edukitzea obran metatuta, horiek erabili behar izan aurretik, Segurtasun eta Osasun alorreko baldintza tekniko berezien Orri hauetan berariaz zehazten diren baldintzetan.

15. Obrako Zuzendaritza Fakultatiboarekin elkarlanean aritzea proiektuan gerta litezkeen ustekabekoei edo lanak egin ahala erabakitako exekuzio-aldaketek eragindakoei prebentzio-irtenbide tekniko egokia bilatzen, obrak egiten diren bitartean.

16. Segurtasun eta Osasun Planaren barruan, arriskuei buruzko hasierako analisia egitea, Laneko Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31 Legeak eskatzen duen moduan, Obrako Zuzendaritza Fakultatiboak ezagutu dezan.

17. Obrak egiten diren bitarte guztian, Laneko Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31. Legeak hala agintzen duelako, enpresaburu gisa nahitaez egin beharreko analisi iraunkorra egitea eta Obrako Zuzendaritza Fakultatiboari jakinaraztea, hori ezagutu dadin eta egoki diren erabakiak har daitezen.

19. SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA

Segurtasun eta Osasun Plana Kontratista Esleipendunak idatziko du, ondorengo baldintza hauek betez; horietakoren bat betetzen ez badu, ezingo zaio onespena eman Segurtasun eta Osasun Planari:

Zabalera handiagoko guneak ere jarriko dira ibilgailuak gurutzatzea ahalbidetzeko.Gune horietako ezaugarriak eta horien kopurua proiektua idazterakoan eta obra egiterakoan zehaztuko dira.

INGURUMENA LEHENGORATZEKO LANAK

Obrengatik aldi baterako erasango diren aldeetan ingurumena lehengoratzeko lanak egingo dira, eredu hauen arabera:

a) Egin daitekeen aldeetan -bereziki Doniturrieta ingurunean- ezpondetako eta pendizetako ahalik eta azalerarik gehienean zotala jarriko da, ebaketa egin aurretik atera diren zotalen arabera.

b) Trazaketaren gainerako guztian hidroereiteak egingo dira hondeaketaren ezpondetan eta, kasu honetan, obraren ingurumen-zaintzakoei egoki iruditzen zaizkien erauzketetan.Kontuan izan behar da ezpondak ez duela 45°tik gorako inklinaziorik izango hidroereitea egiteko eta landare-lurra ere izan behar duela.

Hidroereitea egiteko tokiko espezie autoktonoak erabiliko dira eta honakoa bezalakoa edo antzekoa izango den nahasketa batekin ziurtatu beharko da, gutxi gorabeherako dosia 25-30 g/m^{2}ko:

Agrostis capillaris (% 20)

Festuca rubra (% 35)

Trifolium repens (% 25)

Lolium perenne (% 20).

Berariaz ziurtatu beharko da ez direla hainbat espezie sartuko, adibidez kardulatza (Cirsium eriophorum), hedatzeko gaitasun handia duelako eta ganaduzaleek larre horietan ibiltzeko inolako gogorik izaten ez dutelako.

Mulch motako ongarri egonkortzaileak erabiliko dira, hazia ondo itsasten dela ziurtatzeko eta errazago ernetzeko malda handiagoko ezpondetan.

Hidroereitea egin baino lehen, erabilitako haziaren ziurtagiria bidaliko dio kontratistak Obra Zuzendaritzari eta ingurumeneko zaintzari, eta baita jakinarazpen bat ere nork egingo duen eta horiekin harremanetan nola jarri azaltzeko.

Hidroereite lanerako erabiliko den ibilgailua hor dagoen bidetik ibiliko da normalean.Lan hori egiterakoan pistatik kanpo ibili beharko balu edo maniobrak hortik kanpo egin beharko balitu, erabaki hori Obra Zuzendaritzak, ingurumeneko zaintzak edo hidroereite lana egiteko makineria erabiltzen duen pertsonalak hartu beharko du

eta eremu-fitxan adierazi beharko da.

Hidroereitea egiteko eguraldi oneko eguna aukeratzea komeni da eta ondorengo egunetarako euria egiteko aurreikuspenak izatea, haziak ernetzeko aukera handiagoa izan dadin.Kontuan izanik data zehatza behar hainbat denborarekin zehaztea ez dela batere erraza, kontratistak edo hidroereite lanaz arduratuko den pertsonalak gutxienez 2 eguneko aurrerapenarekin jakinarazi beharko dio hori hasteko aukeratu den eguna Obra Zuzendaritzari eta ingurumeneko zaintzari.

Nolanahi ere, hasierako data hiru alderdien artean erabaki beharko da eta, horrenbestez, aurreko paragrafoan aipatzen den jakinarazpenak proposamen-izaera izango du.

Obra Zuzendaritzak eta ingurumeneko zaintzak bertan egon beharko dute hidroereite-lana hasten denean, horren ardura izango duen pertsonalarekin lanaren aurreikuspenak balioesteko eta metodologiari buruz egin beharreko edozein ohar azaltzeko.

004 LANEN HASIERA

1. LANAK GAUZATZEKO EPEA

Baldintza Teknikoen Orri honetan aipatzen diren lanak kontrata gauzatzeko lehiaketako baldintzetan adierazita dagoen epean bukatu beharko dira, edo Kontratistak lehiaketa horretako jarri zuen eta gero egindako kontratuan onartu zitzaion epean.Aurrez adierazitako epe partzialetarako ere aplikagarria izango da, horrela azaldu baldin bada.

Konprometitutako epe oro akta sinatu eta hurrengo egunaren hasieratik edo epe horren abiapuntu izango den ekintzatik hasiko da.
Egunetan finkatzen denean, horiek egun naturalak izango dira eta azkenekoa egun oso bezala kontatuko da.

Hilabeteetan finkatzen denean, datatik datara kontatuko da, egutegiko zein hilabete den zehazten ez bada behintzat.Amaitu beharreko eguna jarrita ez baldin badago, hil horretako azken egunean amaituko da.

2. LANEN PROGRAMA

Lanen programa Kontratistak prestatu beharko du eta Baldintza hauetan jasotako obra-planarekin bat etorriko da.

Kontratista lanen programa bat aurkeztera behartuta egongo da Lehiaketako Baldintza Orrietan, edo hori ezean, eskaintza-eskaeraren obra-planaren eranskinean epeari eta moduari dagokionez adierazten denaren arabera.

Programa horrek erabat arrazoitua eta justifikatua egon behar du eta kontuan izan beharko dira lehendik dauden instalazioak eta eroanbideak, materialak eta baliabide osagarriak obrara iristeko epeak eta eragiketa desberdinen arteko interdependentziagatik izango diren gorabeherak, eta baita horien garapenean klima baldintzek, urte sasoikoek, pertsonalaren mugimenduek eta kontuan izan

beharrekoak izango diren izaera orokorreko beste hainbatek izan dezaketen eragina ere, eta horiek egokitu beharrekoak izango dira lehiaketan finkatutako epearekin edo Kontratistak eskainitako gutxienekoarekin, hori balitz kasua, hori erabakitzeko modurik ezkorrenean ere.

Obra Zuzendaritzak hori behin onetsi ondoren, oinarritzat hartuko da Estatuaren Kontratazioko Araudi Orokorraren dagozkion artikuluak aplikatzeko.

Obrako Zuzendaritzak eta Kontratistak elkarrekin gainbegiratuko dituzte, hilabeteko gutxieneko maiztasunarekin, kontratatutako lanek zenbat egin duten aurrera eta hurrengo aldian egingo diren programa partzialak, gainbegiratze horiek, ordea, ez diote Kontratistari inolako erantzukizunik kenduko esleipenean hitzartutako epeei dagokienez.

Laneko programan azalduko den era guztietako makineria eta baliabide osagarriak gutxi gorabeherakoak izango dira, baina Kontratistak obran eta zerbitzuan tarteko edo amaierako helburuak betetzeko edo aurreikuspenei dagokienez sor daitezkeen akatsak behar bezala zuzentzeko beharrezkoak direnak eduki beharko ditu nahitaez, hori guztia obra egiteko erabateko epea eta kontratatutako partzialak behar bezala betetzeari begira.

Kontratistak proposatutako lan-programak izan ditzakeen akatsak zuzentzeko lanengatik horiek gauzatzeko legezko epeari dagokionez sor daitezkeen atzerapenak ez dira kontuan hartuko lanak egiteko emandakoaren luzapen moduan; horrenbestez, Kontratista bere aurreikuspenak egitera eta beharrezko baliabideak erabiltzera behartuta egongo da beti, emandako epea betetzeari dagokionez aldaketarik egon ez dadin.

3. LANAK HASTEKO AGINDUA

Lanak hasteko data esleipenaren jakinarazpenean adierazita dagoena izango da eta horri dagokionez hala epe partzialak nola lanak gauzatzeko erabatekoa izango dira kontuan.

Obra Zuzendariaren agindua jaso bezain laster hasiko ditu lanak Kontratistak eta adierazitako puntuetan hasiko ditu lanak; horretarako nahitaezkoa izango da zuinketa-egiaztapenaren akta sinatu izatea eta laneko programa Obra Zuzendariak onetsi izatea.

4. LANAK GAUZATU BAINO LEHENAGOKO GOGOETAK

Lanek erasango dituzten jabetzak aztertzea

Lanak hasi baino lehenago jabetzen egoerari buruzko informazio egokia biltzea Kontratistaren obligazioa izango da, horiek erasango dituzten jakitea, edo kalteei dagokienez izan daitezkeen erreklamazioak.

Eraikuntzako sistemek inguruko jabetzetan duten eraginari buruzko informazioa emango dio Kontratistak Obrako Zuzendariari.

Obra Zuzendariak jabeekin adostuta jabetzen egoerari buruzko informazioa biltzeko metodoa ezarriko du eta notario-aktak edo antzekoak beharko ote diren erabakiko du.

Lanak hasi baino lehen, jabetza eta lurren oraingo egoerari buruz behar bezala dokumentatutako txostena aurkeztuko dio Kontratistak Obra Zuzendariari.

Erasandako zerbitzu publikoak

Planoetan adierazten diren zerbitzuen eta jabetzen egoera jasota zegoen informazioarekin zehaztu da baina ezin dugu ziurtatu datu horiek guztiz zehatzak direnik.Ezin dugu ziurtatu antzeman ez ditugun beste zerbitzu eta jabetza batzuk ere ez dauden.

Kontratistak lanak hasi baino lehen erasandakoekin hitz egingo du lehendik dauden zerbitzuen egoera zehatza jakiteko eta eraikuntza-sistemak antolatuko ditu kalteak ekiditeko.

Berari komeni zaiolako edo eraikuntza-metodoagatik komeni delako Kontratistak zerbitzuak desbideratzeko edo kentzeko neurriak har ditzake.Kasu honetan erasandakoaren eta Obra Zuzendariaren onespena beharko dira aldez aurretik.

Proiektuan adierazi ez den zerbitzuren bat topatuko balitz Kontratistak gutun bidez jakinaraziko dio berehala Obra Zuzendariari.

Onetsi den eta indarrean dagoen lan-programak beharrezko informazio guztia ematen dio Obra Zuzendariari lanak egiteko une egokian Proiektuan aurreikusitako zerbitzuak desbideratzea edo kentzea antolatzeko.

Terrenoak ixtea eta jabetzetarako behin-behineko sarrerak

Kontratistak terrenoen jabetza hartu bezain laster terrenoa itxi egingo du Proiektuan horrela aurreikusita baldin badago edo Obra Zuzendaritzak hori egitea eskatzen badu.Kontratistak hesia ikuskatu egin beharko du eta egoera onean eduki; gerta daitezkeen akatsak eta hondatzeak ahalik eta lasterren konponduko ditu.Erasandako aldean lanak amaitu arte edukiko da terrenoetan jarritako hesia.

Jabetza baterako sarrera moztu baino lehen, Kontratistak, Obra Zuzendariaren onespena izan ondoren, hamabost eguneko aurrerapenarekin emango die horren berri erasandakoei eta sarrera alternatibo bat jarriko du.

Lanengatik edo jarri diren behin-behineko itxiturengatik sarbidea erasan zaien alboko jabetzetara Obra Zuzendariak egitea erabakitzen duen behin-behineko sarrerak Kontratistak gauzatu beharko ditu.

Itxiturak eta behin-behineko sarrerak eta egin beharreko konponketak ez dira aparte ordaintzekoak izango, eta horrenbestez, Kontratistak ordainduko ditu.

5 OBRAREN GARAPENA ETA KONTROLA

1. ZUINKETA

Lanak hasteko unean, Obra Zuzendaritzak eta Kontratistak Proiektua egiteko euskarri moduan erabili diren zuinketa-oinarriak egiaztatuko eta inbentariatuko dituzte.Iraunkorrak diren eta aldaketa-zantzurik ez duten monumentuetan markatutakoak bakarrik joko dira baliozkotzat hasiera batean.

Kontratistari entregatuko zaizkion elementuak

Onarpen-akta baten bidez Kontratistak jasotakotzat emango ditu kontserbazio-egoera onean topatu dituzten zuinketa-oinarriak.Une horretatik aurrera Kontratistaren erantzukizuna izango da oinarriak erreferentzia behar bezala jarrita zaintzea eta horien mantentze-lana egitea, eta baita dagozkien eraikuntza osagarriekin horiek berritzea ere.

Zuinketa-plana

Kontratistak, Proiektuaren informazioa eta gorde diren zuinketako mugarriak oinarri hartuta zuinketa-plan bat prestatuko du eta horren barruan sartuko da lehendik dauden mugarrien koordenatuak eta horien igotze-kota, kokapena eta koordenatuak esleitzeko kota egiaztatzea eta baita oinarri osagarrietara igotzeko kota eta zuinketa-programa eta lerrokadura nagusietako, bigarren mailako eta fabrika-obretako puntuen berdinketa egiaztatzea ere.

Programa hori Obra Zuzendaritzari entregatuko zaio onesteko eta ikuskatzeko eta zuinketa-lanak egiaztatzeko.

Zuinketa eta lerrokadura nagusietako puntuen berdinketa

Lanak gauzatzeko baliozkotzat eman diren Obra Zuzendaritzak egiaztatutako eta onetsitako zuinketa-oinarriak kontuan hartuta egingo du Kontratistak zuinketa eta jarriko ditu ziriak lerrokadura nagusietako punturik garrantzitsuenetan.

Halaber, beharrezko berdinketa lanak egingo ditu puntu garrantzitsuenei dagokien igotze-kota esleitzeko.

Puntu garrantzitsuenen kokapena ahal bada behintzat lanak gauzatzen diren bitartean horiek seguru edukitzeko moduan egingo da.

Zuinketa eta gainerako ardatzen eta fabrika-lanen berdinketa

Gainerako ardatzetan eta fabrika-lanetan gerora egingo diren xehetasun-zuinketetarako beharrezkoak diren puntu finkoak edo osagarriak kokatu eta eraikiko ditu Kontratistak.

Kokapena eta kota behar bezala adieraziko dira zuinketako oinarri nagusiei dagokienez.

Zuinketa egiaztatzea

Obra Zuzendaritzak egiaztatuko du Kontratistak egindako zuinketa eta horren barruan gutxienez obrako tarte desberdinetako eta fabrika-lanetako ardatz nagusia sartuko da, eta baita gerora egingo diren zuinketetarako beharrezko puntu finkoak eta osagarriak ere.

Kontratistak transkribatu egingo du eta Obra Zuzendariak bere sinadurarekin baimendu egingo ditu Zuinketa Egiaztatzeko Aktaren testua eta Aginduen Liburua.

Datuak, kotak eta finkatutako puntuak aktaren eranskin batean jasoko dira.

Zuinketaren erantzukizuna

Kontratistaren erantzukizuna izango da zuinketa-planean sartzen diren lanak egitea, eta baita obrak gauzatzeko, zaintzeko eta mugarriak berritzeko beharrezkoak izango diren topografia-lan guztiak ere, hortik kanpo geratuko dira Obra Zuzendaritzak egingo dituen egiaztatze-lanak.

Kontratistaren erantzukizuna diren lehen aipatutako lanak berak ordaindu beharrekoak izango dira eta, horrenbestez, esleipenaren unitate-prezioetan sartutakotzat joko dira.

2. EKIPOAK ETA MAKINERIA

Obra-unitate guztiak gauzatzeko beharrezkoak izango diren ekipoak eta makineria Kontratistak aldez aurretik justifikatu beharko ditu, egin beharreko obra-bolumenaren eta obretako lan-programaren arabera, eta Obra Zuzendaritzari aurkeztuz, horrek onetsi dezan.

Obra Zuzendaritzak emango duen onespen horren bidez aipatutako ekipo horrek Kontratistak eskaini dituen baldintzak betetzen dituela bakarrik egiaztatuko da eta ez du hori inolaz ere salbuetsiko kalitatearen eta obrak gauzatzeko epearen arduradun bakarra izateaz.

Ekipoak uneoro lanerako baldintza egokietan egon beharko du eta kontratuan adierazitako lanetan bakarrik arituko da, ezin izango dute inolaz ere kendu Obra Zuzendaritzaren idatzizko baimenik gabe, ekipo hori aurreikusita zegoen lanetako obra-unitateak amaitu direla justifikatu ondoren.

3. INSTALAZIOAK, BALIABIDEAK ETA LAN OSAGARRIAK

Instalazioen eta lan osagarrien Proiektua

Kontratistaren obligazioa izango da bulego, biltegi, estalgune, instalazio sanitario eta behin-behinekoak izango diren gainerako guztietarako eraikuntza osagarriak bere kontura proiektatu eta eraikitzea.

Kontratistak egin beharrekoa izango da baita ere energia elektrikoaren eta lanak gauzatzeko beharko den uraren lotunea eta hornidura egitea; horiek egiteko indarrean dauden araudiak eta Konpainia Hornitzailearen arauak bete beharko dira.

Obretako eta lan osagarrietako proiektuak Obra Zuzendaritzak onetsi beharrekoak izango dira.

Kokapena eta exekuzioa

Obra horiek kokapena, kotak eta obra nagusiak horrela eskatzen duenean izango duten itxura Obra Zuzendaritzak onetsi beharrekoa izango da.Terrenoen aldi baterako okupazioari buruzko atalean adierazitakoa ere aplikagarria izango da.

Obra-instalazioen kokapen zehatza adierazteko planoa aurkeztera behartuta egongo da Kontratista, hala nola, makineria-parkeak, materialen, olioen eta erregaien biltegiak, eta abar, babesa kontuan hartuta eta ez alde horretako natura-balioetan izan dezaketen eragina.Plano hori Obra Zuzendaritzak onetsi beharko du.

Instalazioak eta lan osagarriak kentzea

Kontratistak lanak amaitzerakoan edo aldez aurretik hori ahal den neurrian, bere kabuz kendu beharko ditu eraikuntza, obra eta instalazio osagarri eta/edo behin-behineko guztiak.

Horiek behin kendu ondoren, okupatu dituzten lekuak garbituko ditu eta horiek garbi eta hondakinik gabe utzi beharko ditu.

Instalazioengatik eta obra osagarriengatik trinkotu behar izan diren azaleretan tratamendu egokia gauzatu beharko du Kontratistak eta gerora hori guztia lehengoratu egingo du Baldintza Orrietan adierazitako baldintza teknikoen arabera eta zehaztutako materialekin.

4. OBREN KALITATEAREN BERMEA ETA KONTROLA

Definizioa

Egitura, eranskin eta instalazio guztiak kontratuaren, kodeen, arauen eta diseinuko zehaztapenen arabera eraikitakoak izatearen konfiantza hedatzeari begira antolatu den eta sistematikoa den ekintza-multzoa izango da kalitatearen bermea adieraziko diguna.

Kalitatearen bermean sartuko da kalitatearen kontrola eta azken honen barruan sartuko dira kalitatea aurrez zehaztutako baldintzekin bat datorrela egiaztatzeko ekintzak.Obra bateko kalitate-kontrolean alderdi hauek sartzen dira:

- Lehengaien kalitatea.
- Obrarako hornitu diren ekipoen eta materialen kalitatea, horien fabrikazio-prozesua barne.
- Lanetako exekuzioaren kalitatea (eraikuntza eta muntaia).
- Amaitutako lanaren kalitatea (ikuskatzea eta probak)

Kontratistaren kalitate-bermearen Programa

Kontratistak obra ikuskatzea

Kontratistaren ardura izango da Baldintza Orri hauetan eskatzen diren kontrolak, entseguak, ikuskatzeak eta probak egitea.

Kontratistak atal horretan jasotakoa betetzeko gauzatu beharko duen sistematika zehaztu beharko da programan.

5. MATERIALAK

Material guztiak erabiliko diren helburuetarako egokiak izango dira eta prezioen oinarrietan eta aurrekontuak prestatzerakoan kontuan hartutakoak izanik, bere motakoen artean kalitate onenekoak direla ulertuko da merkatuan daudenen artean.

Horregatik, eta horien ezaugarri bereziengatik edo garrantzia gutxiago izateagatik zehazten esplizituagoa behar izan ez badute ere, horiek erabiltzeko Obra Zuzendariaren onespena beharko da eta horrek erabaki ahal izango ditu horretarako egokiak diren probak edo harrera-entseguak.

Nonahi ere materialak Proiektuaren agiriren batean aipatu diren horien jatorritik, balioespenetik edo ezaugarrietatik ondorioztatu daitekeenaren kalitate berdinekoak edo hobekoak izango dira, arau ofizialak edo alor horretako fabrikazio onaren irizpideak bete beharko dituzte, eta Obra Zuzendariak eskatu ahal izango du berme egokiak eskaintzen dituen enpresa batek horiek hornitzea.

6. OBRETARAKO SARRERAK

Sartzeko bideak eraikitzea

Obra-leku desberdinetarako behin-behineko arrapalak eta sarrerak Kontratistak bere erantzukizunpean eta bere kontura eraikiko ditu.Horiek guztiak edo horietako batzuk lanak hasi baino lehen eraikitzea eskatu ahal izango du Obra Zuzendaritzak.

Kontratistak plano bat aurkeztu beharko du sarrerekin eta ingurunean ahalik eta eragin txikiena izatea hartuko da kontuan; plano hori Obra Zuzendaritzak onetsi beharko du.

Kontratistaren obligazioa izango da bideak, sarrerak eta behin-behineko lanak egiteagatik erasandako alde horiek guztiak bere kontura lehengoratzea.Era berean, beharrezkoak diren seinaleak jarri beharko ditu bidegurutzeetan, kaleetako desbideratzeetan, eta abarretan, eta bere kontura eta arriskuarekin kendu beharko ditu obratik soberan geratu diren material eta eraikuntzako baliabide guztiak, obra behin amaitu ondoren, eta inguru hori erabat garbi utziko du.

Zaintzea eta erabilera

Kontratistak obrako behin-behineko sarrerak eta bideak erabiltzeko baldintza egokietan edukiko ditu.

7. SEGURTASUNA ETA OSASUNA LANEAN

Laneko segurtasunaren eta osasunaren barruan sartuko dira obrak gauzatzen diren bitartean Kontratista egitera eta hartzera behartuta egongo den neurriak eta arretak arriskuen, istripuen eta gaixotasun profesionalen prebentziorako, eta baita langileen higiene eta ongizate lanetatik eratorritakoak ere.

Urriaren 24ki 1627797 Errege Dekretuaren arabera, Proiektu honetan, laneko erara eta baliabideetara egokitutako segurtasun eta osasun plan bat prestatuko du Kontratistak.

Plan horren kostua Proiektuko prezioen barruko zeharkako kostuen ehunekoaren barruan sartuta dago.

8. ZARATEN ETA DARDAREN KONTROLA

Zaratak eta dardarak gutxitzeko neurri egokiak hartuko ditu Kontratistak.

Hiri-guneetan egingo diren zarata-mailaren neurketak atal honetan adierazitakoak baino baxuagoak izango dira.

Aire librean egongo den makineria guztia ahalik eta zarata gutxien sortzeko moduan antolatuko da.

Orokorrean, Kontratistak eremu Nazionaleko ("Segurtasun eta Higiene Araudia") edo Udal erabilerako Indarreko Araudietan agindutako bete beharko du.Zalantza kasuetan zorrotzena aplikatuko da.

Konpresore mugikorrak eta erreminta PNEUMATIKOAK

Aire librean erabiltzen diren konpresore guztietan zarata-maila ez da taula honetan zehaztutako balioetatik gorakoa izango:

Aire-emaria m^3/min	Gehieneko maila dB (A)	Gehieneko maila 7 m dB (A)ra
10 arte	100	75
10 eta 30 artean	104	79
30etik gora	106	81

7 metrora 75d/B (A)tik gorako zarata-mailak sortzen dituzten konpresoreak ez dira etxebizitzetatik edo antzekoetatik 8 metro baino gutxiagora jarriko.

7 metrora 70 d/B (A)tik gorako zarata-mailak sortzen dituzten konpresoreak ez dira etxebizitzetatik edo antzekoetatik 4 metro baino gutxiagora jarriko.

Konpresore mugikorrek fabrikatzaileak emandako jarraibideen arabera funtzionatuko dute eta mantentze-lan egokia izango dute zaratak gutxitzeko.

Konpresoreak horretarako beharrik izan gabe erabiltzea ekidingo da.

Erreminta pneumatikoetan ahal bada behintzat isilgailuak jarriko dira.

9. LARRIALDIAK

Kontratistak beharrezko antolamendua izango du Obra Zuzendariaren iritziz Kontratuko lanekin lotura duten larrialdiak konpontzeko presazko lanak ordutegitik kanpo egiteko.

Kontratistaren pertsonalaren eta larrialdiko lan horiek antolatzeko ardura duenaren helbideen eta telefono zenbakien zerrenda eguneratua izango du uneoro Obra Zuzendariak.

10. OBRA-ALDAKETAK

Lanak gauzatzerakoan arazoak sortu eta horietan aldaketak egin beharko balira hasieran adierazitako lanei dagokienez edo baldintza desberdinetan, Kontratistak gertaera horien berri emango dio Obra Zuzendaritzari dagokion aldaketa hori onetsi dezan.

Hogei eguneko epean Obra Zuzendaritzak prestatutako Proiektuaren aldaketak jasotzen diren dokumentuak Obra Zuzendaritza horrek Kontratistari ematen dizkionetik hasita, edo bestela, aldaketa hori proposatzen den planoak edo dokumentuak Kontratistak Obra Zuzendaritzari ematen dizkion aldi berean, azalpen berri horiek estaltzeko prezioen zerrenda aurkeztuko du Kontratistak.

11. EXEKUTATUTAKO LANAK BERMEAK IRAUTEN DUEN EPEAN ZAINTZEA

Proiektuan sartzen diren obra guztiak bere kontura zaintzeko konpromisoa hartu du Kontratistak horien behin-behineko harrera egiten den arte.

Halaber, horren obligazioa izango da urtebeteko bermearen epe horretan obrak zaintzea behin-behineko harrera egiten denetik hasita.

Kontratistak bere kontura konpondu beharko ditu Kontratista beraren axolagabekeriagatik edo bestelako arrazoirengatik, edo baita, ekidin zitekeen beste edozein arrazoirengatik hondatu diren lan guztiak.

Era berean, obra horretako ustiapen-lanengatik hirugarrengoek sortzen dituzten istripuetan edo kalteetan, Kontratistaren obligazioa izango da horiek konpontzea eta hori horren erantzukizuna duen hirugarrengoari kobratzea.

12. OBREN AMAIERAKO GARBIKETA

Obrak behin amaitu ondoren, obraren zerbitzurako aldi bateko izaeraz eraiki diren instalazioak, gordailuak eta eraikinak kendu egin beharko dira eta horiek jarrita egon diren lekuak obrak hasi baino lehen zeuden moduan utzi beharko dira.

Antzeko eran tratatu beharko dira behin-behineko bideak eta baita mailegatutakoetarako eta harrobietarako sarrerak ere.

Erasandako aldeak erabat garbi eta inguruko paisaiarekin bat etorriko den baldintza estetikoetan uzteko egingo da hori guztia.

Lan horiek kontratuan sartutakotzat joko dira eta, horrenbestez, ez da zuzeneko ordainketarik egingo horiek egiteagatik.

6 KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA

1. BAIMENAK ETA LIZENTZIAK

Kontratistak bere kabuz lortu beharko ditu obrak gauzatzeko beharrezkoak izango diren baimenak eta lizentziak, proiektuan zehaztutako aldeak desjabetzeari dagozkionak izan ezik.

2. ASEGURUAK

Lanak egitearen ondorioz sor daitekeen edozein kalte edo kalte-ordain estaliko duen "arrisku orotarako" aseguru bat kontratatu beharko du Kontratistak.

3. HIRUGARRENEN ERREKLAMAZIOA

Kontratistak kalteengatik jasotzen dituen erreklamazio guztiak idatziz eta atzerapenik gabe jakinarazizko zaizkio Obra Zuzendariari.

Antzeko informazio-trukaketa bat egingo da idatziz jasotako kexekin.

Kontratistak idatziz eta atzerapenik gabe jakinarazi beharko dio Obra Zuzendariari lana gauzatzerakoan sortzen den edozein istripu edo kalte.

Kontratistak beharrezko arreta guztia jarriko du hirugarrenei edozein kalte mota egitea ekiditeko eta ahal bezain laster eskainiko die arreta Obra Zuzendariak onartu dituen erasandako jabeen erreklamazioei.

Hirugarrenei kalteak sortzen baldin bazaizkie, Kontratista Obra Zuzendariari eta erasandakoei emango die horren berri.Kontratistak lehen zegoen eran utziko du ondasun hori ahalik eta azkarren, bereziki funtsezko leku publiko bat baldin bada eta garrantzizko arriskuak baldin badaude.

7 NEURKETA ETA ORDAINKETA

1. LANAK ORDAINTZEA

Lehiaketako Baldintza Orrietan eta/edo Esleipeneko Kontratuan alderantzizkorik esaten ez bada behintzat kontratatutako lanak "Prezio unitarioko lanak bezala ordainduko dira, ateratzen diren unitateei prezio unitarioak aplikatuz.

Halaber, horiek erabat ordaindu daitezke edo horien parte bat, oroharreko kontu-sailen bidez.

Prezio unitarioak aplikatzeagatik egingo diren ordainketa guztietan, kontuan izan beharreko kopuruak neurketetatik ateratako kubikazioetan oinarrituz ezarriko dira.

Neurketak gauzatutako lanen, egindako metaketen edo egin diren horniduren ezaugarri diren elementu kualitatibo eta kuantitatiboetatik jasotako datuak dira neurketak; egitatezko egoera bat egiaztatzeko erabiltzen dira eta Obra Zuzendaritzak egingo ditu, eta horrek Kontratistari aurkeztuko dizkio.

Kontratista Obra Zuzendaria bertan izatea eskatzera behartuta egongo da (bere garaian) gerora egiaztatu beharrekoak izango ez diren lanetan, maileguetan eta horniduretan kontraesanezko neurketak hartzeko, eta horiek ezean, eta bere kontura aurkeztu beharko dituen alderantzizko probak izan ezean, Obra Zuzendaritzaren erabakiak nagusituko dira ondorio guztiekin.

Ziurtagiriak

Lehiaketako Baldintza Orrietan eta/edo Esleipeneko Kontratuan alderantzizkorik adierazten ez bada behintzat, ordainketa guztiak gauzatutako lanengatik hilero egindako ziurtagiriengatik egingo dira.

Obra Zuzendaritzak, hil bakoitzaren amaieran, aurreko hilean gauzatu diren lanen behin-behineko zerrenda baloratua eta zatitakoa egingo du, dagokion ziurtagiria idazteko baliagarria izan dadin, Estatuaren kontratuetarako Administrazio Baldintza Orokorretako Orrietan xedatutakoaren arabera.

Kontratuko prezioak aplikatuko dira edo Obra Zuzendaritzak onetsi dituen kontraesanezkoak.

Kontratuko prezioak finkoak dira eta ez dira berrikusiko lanak gauzatzeko epea edozein delarik ere.

Ziurtagiri baten zenbatekoaren ordainketa amaieran egingo den neurketa onaren kontura egingo da eta amaierako ziurtagiririk gabe, berme bezala jarri den zenbatekoa kenduta, eta Esleipeneko Kontratuaren Baldintzetatik atera daitezkeen ordainketak kenketa osagarriak kontuan hartuta.

Lanak erabat amaitzen direnean ziurtagiri orokor eta behin betiko bat ezarriko da.

Behin betiko ziurtagiria ezarri eta onartuta eta egin diren ordainketa partzialak kendu ondoren Kontratistari zor zaion kopurua bermearen atxikipena eta Esleipen Kontratuko Baldintzak eta/edo Lehiaketako Baldintzak ezartzetik ateratzen direnak kenduta ordainduko da.

Hileko behin-behineko ziurtagiriak, eta behin betiko ziurtagiriak, bereizita agertzeko moduan ezarriko dira eta hasieratik metatuta, administrazioak ordaindu dituen lanen zenbatekoa eta beste lanen zenbateko orokorra.

Kasu horietan guztietan ordainketak Esleipen Kontratuan, Lehiaketako Baldintzetan eta Kontratistarekin esleipenean erabakitako arauan zehaztuta dagoen moduan egingo dira.

Aplikatuko diren prezioak

Erabiliko diren exekuzio materialeko prezio unitarioak, oinarrizkoak eta oroharreko prezioak proiektuko prezio horiei guztiei Kontratistak bere eskaintzan egindako beherakada aplikatzetik ateratzen direnak izango dira.

"Exekuzio materialeko" prezio unitario edo oroharreko prezio guztiek inolako salbuespenik eta erreserbarik gabe izango dituzte barne horietako bakoitzari dagozkion lanak gauzatzeagatik sortutako gastu eta karga guztiak, Kontratuko dokumentu desberdinetan eta bereziki Baldintza Teknikoetako Orri hauetan Kontratistari ezarri zaizkion obligazioetatik ateratzen direnak barne izanik.

Prezio horietan sartuta egongo dira erabat amaitu arte eta doitu arte lan horiek gauzatzeko egin beharreko gastu guztiak, prestatuko helbururako baliagarriak izan daitezen eta, bereziki, ondorengoetarako:

- Esku-lanaren, kontsumoko materialen eta hornidura desberdinetako gastuak, beharrezko diren amaierak eta akaberak barne, prezio unitarioak justifikatzerakoan berariaz adierazi ez baldin badira ere.
- Plangintza, koordinazio eta kalitate kontroleko gastuak.
- Zuinketa, kalkuluak, planoak edo eraikuntzako krokisak egitearen gastuak.
- Biltegiratzearen, garraiatzearen eta erreminten gastuak.
- Obrako ekipo osagarria garraiatzearen, horren funtzionamenduaren, zaintzearen eta konpontzearen gastuak, eta baita horren balio-galeraren edo amortizazioaren gastuak ere.
- Beste behin-behineko obretara sartzeko bide osagarrien zaintze-lanetako gastuak.
- Indar eragilerako eta argitarako energia elektrikoan gastuak, alderantzizko aurkako adierazpenik izan ezena.
- Mota guztietako aseguruak.
- Finantziazio-gastuak.

Lehiaketako Baldintza Orrietako edo Esleipeneko Kontratuko prezioetan, gainera, sartuta daude:

- Gastu orokorrak eta industria-mozkina.
- Mota guztietako zergak eta

tasak.Gastu horien bidez ere estaliko

dira:

a) Instalazio osagarri guztiak aztertzeari eta ezartzeari buruz berreskuratuko ez diren gastuak.

b) Instalazio osagarri guztiak desmuntatzeko eta kentzeko lanetan berreskuratuko ez diren gastuak, dagozkion terrenoak konpontzeko gastuena barne.

Baldintza Teknikoen Orri hauetan espezifikoki adierazten ez diren unitateak erabat amaitzen direnean ordainduko dira, Kontratistaren eta Obra Zuzendaritzaren artean kontraesanez finkatutako prezioen arabera.

Baldintza hauetan aurreikusitako kasuetan izan ezik, Kontratistak ezingo du, inolako aitzakiarik jarrita, esleipeneko prezioen aldaketarik eskatu.

Oroharreko kontu-sailak

Obra bat edo horren zatietako bat gauzatzeari dagozkion aurrekontuko kontu-sailak dira, honako kasu hauetako edozeinetan:

- Lanak egin baino lehenago zehaztutako eta prezio unitarioetan banatu gabeko prezio finko batengatik (Oroharreko Kontu-sail finkoa edo erabat ordaintzekoa).
- Proiektuaren fasean zehazteko zailtasunak izango dituzten benetako neurketei dagozkien funtsezko prezio unitarioak edo dauden oroharrekoak aplikatuta bere kargura izango duten fakturazioa justifikatuz (Justifikatu beharreko Oroharreko Kontu-saila).

Lehenengo kasuan kontu-saila erabat ordainduko da horretan eta baldintza berezietan zehaztutako obra egin ondoren, bigarren kasuan, ordea, benetako neurketatik aterako den zenbatekoa bakarrik ziurtatuko da, eta aukerakoa izango da Obra Zuzendaritzarako horien erabateko erabilera edo erabilera partziala egitea, eta Kontratistak ez du kontzeptu horregatik inolako erreklamaziorik egiteko eskubiderik izango.

Prezio unitarioetarako eta funtsezkoetarako adierazitakoaren tratamendu bera izango dute oroharreko kontu-sailek bere sailkapenari dagokionez (exekuzio material eta kontrata bidezkoa).

Baimendu gabeko lanak eta lan akastunak

Arau orokor moduan ez dira ordaintzekoak izango Proiektuan adierazita ez dauden eta Zuzendaritza Obraren baimenik gabe egindako lanak, eta ezta ere akastunak izateagatik eraitsi eta Proiektuan eskatzen dien kalitate-mailan egin beharko direnak.

Nolanahi ere, Baldintza orrietan ezarritako baldintzen arabera zehaztasun osoz gauzatu ez den obra-unitateren bat Obra Zuzendaritzaren ustez onargarri balitz, behin-behineko harrera egiteko aukera izango da eta behin betikoa kasu horretan, baina Kontratistak inolako eratako erreklamazio eskubiderik gabe geratzeko ados dagoela adieraziko du nahitaez, erabakiko den beherakada ekonomikoarekin, baldin eta Kontratistak bere kontura eraitsi eta ezarritako kontratu-epearen barruan baldintzen arabera berriro eraikitzea nahiago ez badu.

Obraz gaindiko lanak

Obra Zuzendariak idatziz baimendu ez dituen obraz gaindiko lanak ez dira ordainduko.

Kasu honetan Obra Zuzendariak erabaki ahal izango du obra Proiektuko definiziora egokitzeko beharrezkoa den lehengoratze-lana egin dadila, eta kasu horretan horregatik sortzen diren gastu guztiak Kontratistak ordaindu beharko ditu.

Prezioak berrikustea

Lanak gauzatzeko aurreikusita dagoen iraupena kontuan hartuta ez da horretarako prezioak berrikustea aurreikusi.

2. PREZIO KONTRAESANKORRAK

Obraren garapenerako nahitaezkoa izango balitz unitateak gauzatzea, eta horietako preziorik jarrita ez balego Proiektu honetako Prezioen Taulan, Prezio Unitario horiek Obra Zuzendaritzak eta Kontratistak elkarrekin adostu beharrekoak izango lirateke.

Prezio osagarriak (materialak, makineria eta esku-lana) eta Prezio berriak prestatzeko erabiliko diren batez besteko errendimenduak, legez ezarritako prezioak kontuan hartuta (eskulana) finkatuko dira eta ohiko prezioak kontuan hartuta materialetarako eta makineriarako, tarifa ofizialen gaineko beherapenak barne izanik, aplikatu ahal izango zaien guztian.

Nolanahi ere, unitate berria gauzatu baino lehen finkatu beharko da Prezioa.Aplikatuko den prezioa Jabetzak finkatuko du, Obra Zuzendariaren proposamena eta Kontratistaren oharrak ikusi ondoren.

Ados jartzen ez badira eta desadostasun horri irtenbidea ematen zaion bitartean behin-behineko ordainketa egingo zaio Kontratistari Obrak Zuzendaritzak erabakitako prezioetan.

3. GASTUAK KONTRATISTAREN KONTURA

Orokorrean, Baldintza Teknikoen Orri hauetako kapituluetan halakotzat zehaztutakoak izango dira eta Kontratistak prezio unitario, oinarrizko eta/edo oroharreko desberdinetan sartuta daudela ulertuko da, Artikulu honetako bigarren atalean adierazten den moduan.

9 DESBIDERATZEAK ETA SEINALEAK JARTZEA

1. BEHIN-BEHINEKO DESBIDERATZEAK

Definizioa

Obrak gauzatzerakoan zirkulazioa segurtasun-baldintzetan edukitzeko Kontratistak nahitaez egin beharko dituen lanak eta hartu beharko dituen neurriak eta ardurak dira obrak gauzatzerakoan behin-behineko desbideratze eta seinale-jartze bezala definituko direnak.

Aldi horretan Kontratistak kontuan izango du Estatuko Obren Kontrataziorako Administrazio Baldintza Orokorren Orrietako 23. Baldintzako, 1. Sekzioko II. kapituluan, 1960ko martxoaren 14ko Ministro-aginduaren abenduaren 31ko 3854/1970 Dekretuan, Errepidetako Zuzendaritza Nagusiaren 67•1•1.960 zenbakiko A.Z.an jasotzen diren azalpen osagarrietan, seinaleei buruzko 8.3•IC errepide-arauan eta obrak amaitu baino lehen indarrean sar daitezkeen horri buruzko gainerako xedapenetan aurreikusitakoa, obra honetan aplikagarriak izango diren ataletan.

Arau orokorrak

Lanak hasi aurretik Kontratistak harremanetan jarri beharko du nahitaez Obrako Zuzendariarekin, hartu beharreko segurtasun-neurriei buruzko jarraibide bereziak horrengandik jasotzeko, eta baita aldizka beharrezkotzat jo ditzakegun idatzizko baimenak eta komenigarria dela ikusten den beste edozein agindu ere.

Errepidean egingo diren lanetako edozein aldaketari buruzko informazioa aurrez emango dio Kontratistak Obra Zuzendariari.

Ikusten baldin bada arau hauek ez direla betetzen, obrak etenda geratuko dira harik eta jasotako xedapen horiek Kontratistak betetzen dituen arte.

Segurtasun Arauak ez betetzearen ondorioz erabiltzaileentzat edo horien ondasunetarako kaltegarriak diren gorabeherak edo edozein eratako gertaera gertatzen bada, horien erantzukizuna Kontratistarena izango da eta legezko izaerako ondorioak bere gain hartuko ditu.

Behe-lainoa izanez gero, elurra eginez gero edo ikuspena mugatzeko edo zoruarekiko itsaspen-ezaugarriak mugatzen badira ez da inolako lanik egiterik izango.

Baldintza negatibo horiek guztiak lanak behin hasi ondoren sortzen baldin badira, horiek bat-batean eten beharko dira, horietan erabilitako elementu guztien eta horietako bakoitzaren eta dagozkien seinaleztapenetakoak bereizita.

Arau hau ez da aplikatzen premia absolutuko izaera duten lanetan zirkulaziorako arriskutsuak diren egoerak desagertzen diren kasu guztietan.Izaera hori, nolanahi ere, Obra Zuzendariak erabaki beharrekoa izango da, horri baitagokio horri buruzko edozein erabaki hartzea.

Eraikitzeko unean indarrean dauden arauen arabera erabiliko den seinale-mota Obra Zuzendariak berretsi edo zuzendu beharko du, eta Kontratistaren kontura izango dira eta horren erantzukizuna izango da beharrezkoak diren seinaleak zaintzea eta horiek egoera onean edukitzea.

Zaintzako pertsonala bertan ez izateagatik edo horren axolagabekeriagatik istripuren bat edo erabiltzaileentzat edo ondasunetarako kaltegarria den edozein arazo sortzen bada, erantzukizuna Kontratistarena izango da eta horrek bere gain hartu beharko ditu legezko izaerako ondorio guztiak.

Arau hauetan edo salbuespeneko egoeratan aurreikusita ez dauden kasuetarako (trafikoko edo ikuspeneko baldintza eskasak izan arren nahitaez egin beharreko lanak) Ingeniari nagusiak xedapen bereziak eman ahal izango dizkio Kontratistari arau hauen ordez edo arau hauek indargabetuta.

2. OBREN SEINALEZTAPENA ETA BALIZAJEA

Kontratistak bere kontura jarriko du obretako seinaleztapena eta balizajea, ordenantzetan eta Segurtasun Proiektuan adierazten den eta agintari eskudunek dioten egoeran eta ezaugarriekin.Halaber, horiek zaintzeaz arduratuko da xedatu ziren erabilerarako baliagarriak izan daitezen, lanak gauzatzen diren aldi horretan.

Nolanahi ere, jarraian zerrendatzen diren puntuak bete beharko dira, beti ere Segurtasun Proiektuarekin kontraesanean ez badaude.

- Obretako alde hori plastikozko zinta edo hesien sistemaren batekin mugatuko da, beharrezkoa den baino azalera handiagoan eragina ez izateko.

- 1,30 metrotik gorako sakonerak ebaketetatik ateratako materialen eta lurren metaketarako ertzetik 2 metrotik beherakoa izango ez den tartea utziko da.

10 INGURUNEA BABESTEA

1. TERRENOA PRESTATZEA

Terrenoa prestatzeko lanetan sartzen da lanaren kokapenerako aurreikusitako aldeetatik zuhaitzak, landareak, motzondoak, sastraka, eroritako egurrak, hondakinak, zaborrak edo enbarazu egiten duten, Eraikuntza Proiektuarekin bateragarriak ez diren edo babestu beharreko zuhaitzak ez direnak kentzea.

Soropila eta landare-lurra kentzeko lanak zotalak ateraz egingo dira eta zotal horiek metatu egingo dira gerora berriz erabili ahal izateko.

Terrenoan putzuak edo zuloak daudenean, horien tratamendua Obra Zuzendaritzak finkatuko du kasuaren arabera.

Suak deuseztatu ditzakeen material guztiak erre edo zabortegira eramango dira Obra Zuzendariak esandakoaren arabera eta herri bakoitzean horri buruz dauden arauen arabera.

2. AREKAK GARBITZEA

Areka edo ubideen eginkizuna oztopatzen duten harriak edo bestelako materialak pilatzen direnean, horiek mekanikoki edo eskuz garbituko dira.

Arekak edo ubideak hasieran zuen tamaina eta itxura ez aldatzeko ahalegina egingo da.Lan hori sartutakotzat joko da arekak zikindu ditzaketen jarduketa guztietan.

3. DAUDEN ZUHAITZAK BABESTEA

Eginkizunak edo ibilgailuen edo makinen joan-etorriak zuhaitzen bat dagoen inguruko terrenoetatik egiten direnean, lanak hasi baino lehen zuhaitzen enborra babestu beharko dugu lurretik hasita 3 metrotik beherakoa izango ez den altueran, ahal bada behintzat, alanbre bidez lotutako oholekin.Babes horiek kendu egingo dira obrak behin amaitu ondoren.

Zuhaitzak eta zuhaixkak modu eraginkorrean babestu beharko dira kolperik ez jasateko eta sustraiak hedatzeko eremua ez trinkotzeko.

Zuhaitzak landatuta dauden inguruetan zuloak edo zangak irekitzen badira, hondeaketa ez altuera normalean zuhaitzak duen diametroaren baino bost aldiz handiagoa izango den tartera oinetik hasita (1,20 m) eta, nolanahi ere, tarte hori beti 0,50 metrotik gorakoa izango da.

Hondeaketa-lanetan 5 cm-tik gorako lodierako sustraiak harrapatzen diren kasuetan sustrai horiek aizkoraz ebaki beharko dira, ebaketa garbiak eta leunak utziz, eta horren ondoren margotu egingo dira merkatuan dagoen edozein produktu orbaintzaile erabiliz.

Babestu beharreko zuhaitzen inguruko zuhaitzaren alboan zangak eta zuloak irekitzeko sasoia zuhaitza atsedenean dagoen garaia izateko ahalegina egingo dugu (abendua, urtarrila eta otsaila)

Edozein eratako hondeaketa batean zuhaitzen sustraiak erasaten baditugu, ireki zenetik hiru egunetik gorakoa izango ez den epe batean tapatu beharko da berriro, eta horren ondoren ureztatu egingo da.

Zuinketa egiten denean Kontratistak babeserako plana eta gailuak aurkeztu beharko ditu, Obra Zuzendaritzak horiek kontuan hartzeko eta onesteko, hala hondeaketak berak aldatuko dituen azalerak nola laneko pistengatik aldatuko direnak sartuz, azken hauen artean daude azalera osagarriak, mailegu-eremuak, lurra edo soberakinak uzteko aldi baterako biltegi-eremuak eta behin betiko soberakinetarako zabortegiak.

Eraikuntza Proiektuak adierazitako zuhaitzak errespetatu egingo dira.

<u>ZUHAITZAK balioestea</u>

Zuhaitz bati egindako kalteengatik eta, Kontratistari egotzi ahal izango zaizkion arrazoiengatik hori hilko balitz, kalte-ordainetarako kontratatutako erakundeak eta horregatik dagokion zehapena albora utzi gabe, bere osotasunean edo parte batean ezbeharra izan duen zuhaitza balioetsiko du, ICONAK "Ekologiako Estazio Zentralaren Buletinean" adierazitako arauen arabera, IV. bolumena, 1 zenbakia.

Kaltetu edo zatiak kendu zaizkien zuhaitzen zenbatekoa, irizpide horren

arabera tasatu ondoren, Kontratistak ordaindu beharrekoa dela ulertuko da; horregatik, horren kargura, zenbateko horretara iritsi arte birlandatuko dira eta Prezioen Taulako prezio unitarioetan beharrezkoak diren hainbat zuhaitz eta Obra Zuzendaritzak adierazitako espezietakoak.

Zaurien tratamendua

Kimatzeagatik, makineriaren mugimenduengatik edo bestelako arrazoiengatik sortzen zaizkien zauriak, mastik antiseptiko batekin estaliko dira, ura sartzea eta horren ondorioz usteltzea ekiditeko eta infekzioa eragozteko.

Mastik horren azpian osasuntsu ez dagoen inolako ehunik ez uzten ahaleginduko gara eta ebaketa garbia egiten saiatuko gara; ez dugu mastik orbaintzailea erabiliko ernatu ez diren mentuen ondoan.

4. AURKIKUNTZA HISTORIKOAK

Kontuan izanik lana egingo den ingurune horretan interes arkeologikoa duten elementu ugari dagoela, trazaketatik hurbilen daudenak balizatuko dira, obrako ibilgailuen, makineriaren edo pertsonen joan-etorriekin horiek kaltetzea eragozteko.

Zaintza arkeologikoa izango da obran eta interes arkeologikoko edozein elementu agertzen den kasuetan bete beharko diren arauak horrek jarriko ditu.

Edozein eratako aztarna historikoak aurkitzen direnean, obrak gelditu eta Obra Zuzendariari eman beharko zaio horren berri, eta obra ez da berriro hasiko alde aurreko baimenik gabe, Ondare Historiko Artistikoaren araudian ezarritakoa betez.

5. GARBIKETARAKO URA

Gurpilak garbitzeko guneak jarriko dira hiriguneetan sar daitezkeen kamioentzat.Errepideak lokatzik gabe eta beste materialik gabe edukiko dira.

Lanak egin bitartean ureztaketarako, kamioen gurpilak garbitzeko edo lehorte handiko garaietan hautsa gutxitzeko erabiliko den urak kalitate-ezaugarri hauek bete beharko ditu gutxienez:

- pHa 6,5 eta 8 bitartekoa izango da.
- Oxigeno disolbatua litroko 5 mgtik gorakoa izango da.
- Gatz disolbagarrietan duen edukia litroko 2 gtik beherakoa izango da.
- Ez du burdin bikarbonatorik, azido sulfhidrikorik, berunik, seleniorik, artsenikorik, kromatorik eta zianurorik izango.
- Uren Legean ezarritako balioen azpitik egongo da horren taularik zorrotzenean (3. taula).

Edateko ur bezala sailkatuta dauden ur guztiak onartu ahal izango dira erabilera horretarako.

6. URAREN KALITATEA ETA DRAINATZE-SAREAREN BAZTERRAK BABESTEA

Erasangarriak diren ubideetako bazter guztiak balio handiko ekosistema bat dira, eta ahalik eta gehien errespetatu beharko da obra-guneetako inguruetan, mozketetan, eta orokorrean, gurutzetako puntu guztietan.

Horri dagokionez indarrean dagoen Uren Legean eta hori garatzen duen Araudian xedatutako bete beharko da.

Izaera orokorrarekin eta Uren Legean xedatutakoa albora utzi gabe debekatuta egongo da:

- Urak kutsatuko dituzten zuzeneko edo zeharkako isurketak egitea.
- Hondakin solidoak, obra-hondakinak edo substantziak pilatzea, horien izaera eta uzten diren lekua edozein delarik ere, urak kutsatzeko arriskua edo ingurunea narriatzeko arriskua baldin badute.
- Uraren bitarteko fisikoan edo biologikoan horren narriadura sor dezaketen edo ekar dezaketen ekintzak egitea.
- Plan Hidrologikoetan finkatutako babes-parametroen barruan jarduerak gauzatzea, jabari publiko hidraulikoa kutsatzeko edo narriatzeko arrisku bat izan daitekeenean.

Atal honetan zehaztuta ez dagoen guztirako Uretako 29/1985 Legea eta jabari publiko hidraulikoaren araudia onesten duen 849/1986 Errege Dekretua beteko da.

7. ERABILITAKO OLIOEN TRATAMENDUA

Erabilitako olioak hondakin toxikoen eta arriskutsuen barruan sartuko dira.

Erabilitako olio horiek deuseztatzeko honako hauetan xedatutakoa beteko da:

- Hondakin eta Lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea, eta gerora egindako aldaketak.
- Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuen uztailaren 1eko 16/2002 Legea aldatzen duen ekainaren 11ko 5/2013 Legea, eta gerora egindako aldaketak.
- Balioesteko eragiketak eta hondakinen deuseztapena eta hondakinen zerrenda europarra argitaratu dituen otsailaren 8ko MAM/304/2002 AGINDUA, eta gerora egindako aldaketak.
- Erabilitako industria-olioen kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 67972006 Errege Dekretua, eta gerora egindako aldaketak.
- Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eremuan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 DEKRETUA, eta gerora egindako aldaketak.

Oinarri mineral edo sintetikoa duten industria-olio guztiak, hasieran eman zitzaien erabilerarako orain desegokiak diren lubrifikatzaileak eta, bereziki, errekuntza-motorretan eta transmisio-sistemetan erabilitako olioak, turbinetako eta sistema hidraulikoetako olioak hartuko dira erabilitako oliotzat.

Erabilitako olioei azken xedea emateko gauzatuko diren ekintzen multzoa da kudeaketa eta, horren bidez, gizakion osasuna, ingurumenaren zaintza eta baliabide naturalen zainketa babestea bermatu nahi da. Jasotzeko, biltegiratzeko, tratatzeko, berreskuratzeko, lehengoratzeko eta erretzeko eragiketak sartzen diren horretan.

Ekoizlea, jardueraren titular den aldetik erabilitako olioa sortzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa izango da.Ekoizlea izango da baita ere bere kabuz edo beste pertsona fisiko edo juridiko baten bidez erabilitako olioa sortzen duen pertsona fisikoa.Kontratista izango da sortzen den erabilitako olio guztiaren arduraduna.

Erabilitako olioen kudeaketako edozein jarduera gauzatzeko pertsona fisiko edo juridiko baimendua gestorea izango da, horien ekoizlea izan ala ez.

Kontratistaren obligazioa izango da erabilitako olioari kudeaketa egokia ematea, kutsadura bitarteko hartzaile desberdinetara lekualdatzea ekidinez.

Debekatua dago:

- Erabilitako olioa isurtzea gainazaleko uretan, barrukoetan, lurpekoetan, lurraldekoa den edozein itsas gunetan eta estolderiako edo hondakin-urak husteko sistemetan.

- Lurzoruan eragin kaltegarriak sor ditzakeen erabilitako olioaren metaketa edo isurketa oro, eta baita erabilitako olioaren tratamendutik sortzen diren hondakinen kontrolatu gabeko isurketa oro ere.

- Atmosfera-ingurumena babesteari buruzko legerian ezarritako maila baino handiagoko atmosfera-kutsadura sortuko duen erabilitako olioaren tratamendu oro.

Aurreko atalean jasotako debekuak bete beharko ditu Kontratistak, bere kabuz edo erabilitako olio hori baimendutako gestore bati emanez.

Aurreko atalean xedatutakoa betetzeko ekoizlearen betebeharra izango da:

- Erabilitako olioak behar bezalako baldintzetan biltegiratzea, urarekin edo oleaginosoak ez diren beste hondakinekin nahastea ekidinez.

- Bildu eta kudeatu arte erabilitako olioen zaintza ahalbidetuko duten instalazioak izatea eta bilketa hori egin behar duten ibilgailuak iristeko inolako arazorik ez izatea.

- Erabilitako olio horiek bilketarako baimendutako pertsonei ematea, edo horretarako behar den baimenarekin garraioa beraiek egitea baimendutako kudeatze-lekuraino.

Ekoizleak eta hartzaileak sinatutako kontrol eta jarraipeneko dokumentua aurkeztuko dio Kontratistak Obra Zuzendariari.Kontratistak urtebetez gordeko du lagapen bakoitzari dagokion dokumentuaren kopia.

Lagapen bakoitzari buruzko dokumentuen kopia eskuduntza duen organoari bidaltzera behartuta egongo da gestorea, Aginduak ezarritakoaren arabera.

8. KALTEEN PREBENTZIOA ETA OBRAREN INGURUKO AZALERAK LEHENGORATZEA

Kontratistak kontrol eta zaintze-lan zorrotza egin beharko ditu obrak irauten duten bitartean obraren eragina berez ez handitzeko, eta ezta jarduketa osagarriengatik eta inguruko azalerak erasateagatik ere: pista osagarriak, aldi baterako gordailuak, bereizi gabeko isurketak, eta abar.

Kontratistak Plan bat aurkeztuko dio Obra Zuzendaritzari onesteko, eta honako hauek adieraziko dira bertan:

- Erasandako eremuaren mugaketa zehatza.
- Aurreko artikuluetan zehaztu denaren arabera zuhaitzetan, belardietan, ibaiertzetan, ubideetan eta erreketan eta abarretan babesteko gailuak jartzea aurreikustea.

012. ONARPENA ETA LIKIDAZIOA

1. LIKIDAZIO-PROIEKTUA

Kontratistak Obra Zuzendaritzari emango dizkio onespenerako benetan egin den obraren krokis eta plano guztiak eta Proiektuari dagokionez aldaketak ekarri dituztenak eta ziurtagirietako neurketak ezartzea ahalbidetu dutenak edo horretarako baliagarriak izan direnak.

Behar bezala onetsitako dokumentazio horrekin guztiarekin, edo kasu honetan Obra Zuzendaritzaren planoekin eta kontraesaneko neurketekin, Likidazio Proiektua osatuko da eta horretan oinarrituta egingo da obren behin betiko likidazioa amaierako ziurtagiri bakarrean, ziurtagiriei buruzko atalean adierazitakoaren arabera.

2. OBREN BEHIN-BEHINEKO ONARPENA

Baldintza Orri hauetako helburu diren obrak gauzatu ondoren egiaztatu beharko da obra horiek agindutako baldintzen arabera amaitu direla, eta hala baldin bada obren behin-behineko onarpena egingo da Administrazio Baldintza Orokorren Orrietan (VI. Kapitulua, 1. sekzioa) eta Estatuaren Kontrataziorako Araudi Orokorrean (VI. Kapitulua, 2. sekzioa) xedatutakoaren arabera.Behin-behineko onarpenaren akta horretan Obra Zuzendaritzaren ustez Kontratistak konpondu beharko dituen lanak adieraziko dira, eta bertan, lanak gauzatzeko gehieneko epea hilabete 1ekoa dela eta lan horiek egiteko modua adierazi beharko dira.

3. BERME-EPEA:KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA

Bermearen epea, obren behin-behineko onarpena egiten den egunetik kontatzen hasita, urtebetekoa izango da, eta tarte horretan Kontratistaren ardura izango da horietan egin beharreko zaintze-lana egitea, hor gauzatu beharreko lanen izaera edozein delarik ere, beti ere ezinbesteko kasuen ondorio ez badira.

Era berean, obren behin-behineko onarpena egiteko aktan adierazitako guztia ere konpondu beharko du.

Kontratistaren kontura izango dira baita ere bermearen aldi horretan egin beharko diren proba orokorretako gastuak ere, beti ere horrela jasota baldin badago obrak onartzeko behin-behineko aktan.

4. OBREN BEHIN-BETIKO ONARPENA

Bermearen epea amaitu ondoren, hala badagokio, berme bezala atxikitako kopuruen behin betiko itzulketaren onarpena egingo da.Obren behin betiko onarpena egin ondoren Kontratista ez da legozkiokeen erantzukizunetatik salbuetsita geratuko, indarrean dagoen legeriaren arabera, obraren bizitza erabilgarrian ezkutuko arrazoiengatik sor daitezkeen akatsei dagokienez.

Obraren behin betiko onarpena egiten denean nahitaez egiaztatu beharko dira arrazoi desberdinengatik obrak onartzeko behin-behineko aktan gauzatu gabe daudela edo berme-epean konpondu beharrekoak bezala azaltzen diren lanak edo akatsak.

II. KAPITULUA:MATERIALEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

224 LURZORU EGOKIAK

1. DEFINIZIOA

Honako ezaugarri tekniko hauek betetzen dituzten lurzoruak dira:

2. EZAUGARRI TEKNIKOAK

Ez dute hamar zentimetrotik (10 cm) gorako elementurik izango eta 0,080 UNE bahetik igarotako baheketa ehuneko hogeita hamabost (% 35) baino txikiagoa izango da pisuari dagokionez.

Haren muga likidoa berrogeitik beherakoa izango da (LL < 40).

Proktor entsegu arruntari dagokion gehieneko dentsitatea kilogramo bat zazpiehun eta berrogeita hamar gramokoa izango da, gutxienez, dezimetro kubiko bakoitzeko (1.750 kg/dm3).

CBR indizea zortzi (8) baino handiagoa izango da eta, entsegu horretan, batez besteko hanpadura ehuneko bi (% 2) baino txikiagoa izango da.

Materia organikoaren edukia ehuneko bat (% 1) baino txikiagoa izango da.

3. HARRERAREN KONTROLA

Eskakizun horiek guztiak honako entsegu-arau hauek kontuan hartuta zehaztuko dira: NLT- 105/72, NLT-106/72, NLT-107/72, NLT-111/72, NLT-118/59 eta NLT-152/72.

225 LURZORU HAUTATUAK

1. DEFINIZIOA ETA SAILKAPENA

Horiek isuri, kokatu eta modu egokian trinkotu ostean, betelanetarako erabiltzen diren harrizko materialak edo lurzoruak dira.

Lurzoru hautatuen kasu berezien artean, tunel faltsuetan eta lur armatuan betegarri gisa erabiltzen direnak daude.

- Tunel faltsuan, tunel faltsuaren goialdeko materiala da, hura isuri, kokatu eta modu egokian trinkotu ostean.

- Lur armatuan, lur armatuko mazizoen gorputza osatzeko erabiltzen den materiala da.

2. EZAUGARRI TEKNIKOAK

<u>Ezaugarri orokorrak</u>

Oro har, lurzoru hautatu gisa definitzen dira jarraian deskribatzen diren ezaugarriak betetzen dituzten lurzoruak. Gainera, horiek tunel faltsuko eta lur armatuko betelanetarako zehazten diren ezaugarri zehatzak bete behar dituzte.

Horiek ez dute zortzi zentimetrotik (8 cm) gorako elementurik izango eta 0,080 UNE bahetik igarotako baheketa ehuneko hogeita bost (% 25) baino txikiagoa izango da pisuari dagokionez.

Era berean, horien muga likidoa hogeita hamarretik beherakoa (LL < 30) izango da eta plastikotasun-indizea, berriz, hamar baino txikiagoa (IP < 10).

CBR indizea hogei (20) baino handiagoa izango da eta entsegu horretan ez du hanpadurarik izango.

Ez dute materia organikorik izango.

Tunel faltsuko eta lur armatuko betelanetarako materialen ezaugarriak

Ezaugarri mekanikoak

Betelanetarako erabiltzen den materialaren barne-marruskaduraren angeluak 25º izango ditu gutxienez.

Armadura lauak erabili behar izanez gero, horien eta betegarriaren arteko marruskaduraren angelua 22ºkoa izango da gutxienez.

0,080 UNE bahetik igarotako baheketa % 15 baino txikiagoa bada edo, handiagoa izanez gero, % 15 baino diametro txikiagoa duten finen pisua % 10 baino txikiagoa bada, lurzorua baliozkotzat joko da ikuspuntu mekanikotik, marruskaduraren angeluek dituzten balioak zehaztu beharrik izan gabe.

Edonola ere, % 15etik beherako partikulen tamaina duen betegarriaren pisuaez da % 20 baino handiagoa izango.

Era berean, betelanetarako ez da 250 mm-tik gorako dimentsioak dituzten partikulak onartuko, ezta 63 mm-ko UNE baheak baztertutako % 25etik gorako partikulak ere.

Zehaztapen horiek guztiak NLT 104/72 arauari jarraiki egingo dira.

Ezaugarri fisiko eta kimikoak

- Ordubetez 20 ºC-tara asetako lurzoruaren erresistibitate elektrikoa NLT 250/80 arauaren arabera zehaztuko da eta honako hauek baino handiagoa izango da:

  . 1.000 Ω cm, obra lehorretan.

  . 3.000 Ω cm, obra aseetan.

- Uraren eta lurzoruaren arteko nahasketaren pH-a 5 eta 10 artekoa izango da.

- Materia organikoaren nahasketa 100mg/kg baino txikiagoa izango da; hura NLT 117/72 arauaren arabera zehaztuko da eta karbono-kantitatean adieraziko da.

- Uraren eta lurzoruaren arteko nahasketak dituen ioi kloruroen (CI-) eta sulfatoaren (SO4-) edukiek ez dituzte honako balio hauek gaindituko:

  . Obra lehorretan (Cl-) ? 200mg/kg

(SO4-) ? 1.000 mg/kg

. Obra aseetan (Cl-) ? 100mg/kg

(SO4-) ? 500mg/kg

Erresistibitatea 5.000 cm baino handiagoa bada, baldintza horiek automatikoki betetzen direla ulertuko da.

- Sulfuro totalen edukia –sufre bidez adieraziko da– 100 mg/kg baino txikiagoa izango da obra aseetan, eta 300 mg/kg baino txikiagoa obra lehorretan.

- Oxigenoaren eskaera biokimikoa 20 mg/kg baino txikiagoa izango da obra aseetarako betelanetan.

- Bakteria anaerobioen espezie-populazioa zenbaketa espezifiko bidez zehaztuko da. Guztira, obra aseetarako betelanetan hura 10 bakteriatik beherakoa izango da lurzoru-gramo bakoitzeko.

Arestian adierazitako ezaugarri mekaniko, fisiko eta kimikoez gain, betelanetarako materialak behar bezala bete beharko ditu oinarri-azpi pikortsuei, lubetei edo harbetei eskatzen zaizkien ezaugarriak, dagokion egiturak erabilera horiek izan behar baditu.

3. HARRERAREN KONTROLA

Kontrol orokorra

Eskakizun horiek guztiak honako entsegu-arau hauek kontuan hartuta zehaztuko dira: NLT 105/72, NLT 107/72, NLT 111/72, NLT 118/59 eta NLT 152/72.

Kontuan hartu beharreko CBR indizea obran eskatutako gutxieneko dentsitateari dagokiona izango da.

Betetzeko materialen kontrola

Erabiliko den materialak Orrihauetan adierazitakoa betetzen duela egiaztatzea da kontrol honen helburua, jatorrizko lekuan nahiz hura erabiltzeko orduan. Horrela, erauzketa-, karga-, garraio- eta deskarga-lanen eraginez sor daitezkeen aldaketak saihestuko dira.

Honako kontrol-maila hauek egingo dira:

- Arkugainaren lur armatu bidezko betelana:HANDIA

- Tunel faltsuaren betelana:ARRUNTA

Jarraitu beharreko prozedurak honako fase hauek gaineratzen ditu:

a) Obra abiarazi aurretik eta materialean aldaketak hautematen direnean.

Obra-zuzendariak adierazitako material-mota bakoitzaren lagin adierazgarrietan –bi (2) izango dira gutxienez–, honako entsegu hauek egingo dira lagin bakoitzean:

Proktor arrunt1

Entsegu granulometriko oso 1

Hondar-baliokide 1

Erresistibitatearen zehaztapen 1

pH-aren zehaztapen 1

Materia organikoko edukiaren zehaztapen 1

Sulfuro-edukiaren entsegu kualitatibo 1

UNE 0,05 bahetik igarotako baheketa % 15 baino handiagoa bada eta % 15etik beherako partikulen pisua % 10 eta % 20 artean badago, honako hauek ere egingo dira laginketa bakoitzean:

Lursailaren ebaketa zuzenari dagokion entsegu 1

Lurraren eta armaduran arteko marruskaduraren entsegu 1, armadura lauak

aurreikusten badira.Sulfuroen presentzia hautematen bada, honako hauek ere

egingo dira laginketa bakoitzean:

Sulfuro-edukiaren zehaztapen 1

Erresistibitatea 5.000 Ω cm baino txikiagoa bada, honako hauek ere egin beharko dira laginketa bakoitzean:

Kloruro-edukiaren zehaztapen 1

Sulfato-edukiaren zehaztapen 1

Aurreikusitako obra asea bada, honako hauek ere egin beharko dira laginketa bakoitzean:

Oxigeno Eskari Biokimikoaren (OEB) zehaztapen 1

Bakteria anaerobioen zenbaketa 1

Mazizoaren behealdean zabalera murriztu egiten bada, honako hauek ere egin beharko dira laginketa bakoitzean:

Proktor eraldatu 1

b) Hobian:

Honako eragiketa hauek egingo dira:

- Hasi aurretik, landare-lurrak kendu direla egiaztatu beharko da.

- Aurrealdearen arrazoizko ustiapena egiten dela egiaztatu beharko da eta, hala badagokio, erabilgarriak ez diren betak kendu beharko dira.

Lur-erauzketa edo mailegu bakoitzean induskatutako materialaren lagin adierazgarriak hartu beharko dira, obra-zuzendariak zehaztutako irizpideekin bat etorriz.Horietan, honako entsegu hauek egingo dira:

* Materialaren 500 m3 bakoitzeko edo 2 egunez behin, material gutxiago erabiltzen bada.

2 Hondar-baliokidea

Zabalera murrizten den guneak badaude

Proktor eraldatua

Kontrola handia bada

Erresistibitatearen zehaztapen 1

* Materialaren 1.500 m3 bakoitzeko edo 4 egunez behin, material gutxiago erabiltzen bada.

Entsegu granulometriko 1

Proktor arrunt 1

Kontrola handia bada

pH-aren zehaztapen 1

Materia organikoaren eduki 1

* Materialaren 500 m3 bakoitzeko edo astean behin, material gutxiago erabiltzen bada.

Kontrola arrunta bada

pH-aren zehaztapen 1

Materia organikoko edukiaren zehaztapen 1

c) Kokalekuan

Kamioiak deskargatu osteko lur-piloak aztertuko dira. Lehenik eta behin, landare-hondarrak, materia organikoa edo onartutako gehieneko tamaina baino handiagoa duten birlak baztertuko dira. Horrez gain, obrara iristen den onartutako jatorrietako materialak itxurarekin lotutako anomaliaren bat duen adieraziko da, beste kokapen bat edo plastikotasun handiegia dutenak, adibidez.

Susmagarritzat jo diren multzoen laginak hartuko dira, jatorrizko lekuan egindako entseguak errepikatzeko.

Jatorrizko lekuan edo erabiliko diren lekuan (horiek errepikatu behar izanez gero) egindako material-entseguen emaitzetako balioek Baldintza Teknikoen Orrihauetan zehaztutako mugak bete beharko dituzte beti.

Bestalde, erauzketan nahiz obran egindako entsegu mekanikoetan, fisikoetan eta kimikoetan lortutako balioak ez badira lanak abiarazi aurretik egindako kasuan kasuko entseguetan lortutakoen berdinak, materiala aldatu egin dela ulertuko da eta, beraz, 3.2.a atalean adierazitakoa aplikatu beharko da.

Eraikuntza-prozesuaren azkartasuna dela-eta, begiz egindako ikuskapena funtsezkoa izango da lubetetarako materialak kontrolatzeko orduan.

Betegarriak lubetari, harbetari edo oinarri-azpiari dagozkion funtzioak betetzen baditu, "Errepideetako Obren Kalitatea Kontrolatzeko Gomendioetako" 2, 3 eta 4. kapituluetan jasotako kontrolerako gomendioak jarraituko dira, hurrenez hurren.Entsegu arrunten maiztasunak gomendio honetan adierazitakoak izango dira,baita 2, 3 edo 4. kapituluetanadierazten dena ere.

217HAREAK

1. DEFINIZIOA

4 edo 5 mm baino txikiagoak diren eta buztin-partikularik ez duten agregakinen zatikiari deitzen zaio harea, hau da, 80 mikra baino handiagoak direnak.

2. EZAUGARRI TEKNIKOAK

Harea silizeoak (ibaiko hareak) hobetsiko dira.Harea onenak ibaikoak dira, salbuespenak salbuespen, kuartzo puruzkoak baitira; horrenbestez, ez da horien erresistentziarekin eta iraunkortasunarekin lotutako kezkarik izan behar.

Granito, basalto eta arroka analogoak birrintzetik eratorritako hareak ere oso onak dira, arroka horiek osasuntsuak badira eta deskonposizio-printzipiorik agertzen ez badute.

Bestalde, izaera granitiko eraldatua (feldespatoen kaolinizazioa) duten hareak guztiz baztertu behar dira.

3. HARRERAREN KONTROLA

Hormigoia egiteko erabiliko diren hareek ez dute hura kaltetu dezaketen substantziarik izango.

EHE Jarraibideak entsegu jakin batzuk egin beharra adierazten du, baita horien emaitzen inguruko muga batzuk ere.

Entsegu horiek nahitaez egin behar dira beti eta, horretarako, 15 litro harez osaturiko lagin bat bidali behar da laborategira.

Horniduraren jatorria onartu ostean, obran ez da entsegu gehiagorik egin behar izango baldin eta, maiz gertatzen den moduan, jatorrizko iturriak aldatuko ez direla ziurtatzen bada.Baina, horiek aldatu egiten badira (beta desberdinak dituzten harrobien kasuan) edo ezaugarriren bat muga onargarritik gertu badago, entseguak noizean behin errepikatzea komeni da; horrela, bada, gutxienez lau kontrol egingo dira obra osoan zehar.

Kontratistak material-bilketak eta horien jatorria jakinaraziko dizkio Obra Zuzendaritzari, beharrezkoa izanez gero, hark dagozkion egokitasun-entseguak egin ditzan.

Obra Zuzendaritzak entseguetako emaitzak egiaztatuko ditu, eta egokitzat jotzen dituen entseguak egin ahal izango ditu materialen kalitatea frogatzeko.

280 EDATEKO URA

1. DEFINIZIOA

Mortero eta hormigoietarako ura

Hormigoi Masa edo Armatuaren Obretako Proiektua eta Exekuzioari buruzko Jarraibidean (EHE) jasotakoa bete beharko du. Era berean, bertan jasotako oharrak bete beharko ditu, horiek aplikagarriak diren heinean.

Oro har, onargarritzat jotzen diren ur guztiak kare-esneak, morteroak eta hormigoiak oratzeko eta ontzeko erabili ahal izango dira, hau da, masak gogortzean efloreszentziarik, pitzadurarik, korrosiorik edo asaldurarik sortzen ez duten edo inoiz sortu ez duten urak.

Edateko ura

Dituen ezaugarri kimikoak eta aireztapen-ezaugarriak direla-eta, ereindako lurrak eta landaketak ureztatzeko eta hidroereiteak prestatzeko erabil daitekeen ura da.

2. EZAUGARRI TEKNIKOAK

Mortero eta hormigoietarako ura

Kare-esnearen, morteroaren edo hormigoiaren kasuan eskatzen diren ezaugarriak kaltetzen ez dituztela frogatzen duen agiri berezirik izan ezean, ez dira honako baldintza hauek guztiak betetzen ez dituzten urak onartuko:

- pH bidez neurtutako azidotasuna bostekoa edo handiagoa izango da.
- Substantziak hamabost gramoko (15 g/l) edo hortik beherako kantitatean disolbatuta egongo dira litro bakoitzeko –milioiko hamabost mila parteren (15.000 ppm) baliokidea–.

- Sulfatoen edukia ($SO_4^{=}$tan) gramo batekoa (1 g/l) edo txikiagoa izango da litro bakoitzeko –milioiko mila parteren (1.000 ppm) baliokidea–.

- Hormigoi aurreatezatuetan eta armatuetan, kloro ioiaren proportzioa gramo-hamarren batekoa (0,1 g/l) edo txikiagoa izango da litro bakoitzeko –milioiko ehun parteren (100 ppm) baliokidea–. Armadura edo elementu metalikoekin kontakturik izan behar ez duten morteroen eta masa-hormigoien kasuan, proportzio hori sei gramokoa izango da litroko (6 g/l), edo milioiko sei mila partekoa (6.000 ppm).

- Ez dute karbono-hidratorik izango.

- Eterrean disolba daitezkeen substantzia organikoen kantitatea 15 gramo baino txikiagoa izango da litroko (15 g/l) –hamabost mila parteren (15.000 ppm) baliokidea–.

Obrak gauzatu behar diren ingurunea oso lehorra bada eta, beraz, kristalizazio-fenomeno hedakorren presentzia handiagoa bada, disolbatutako substantzien muga are estuagoa izan daiteke, obra-zuzendariak hala uste badu eta, batez ere, efloreszentziak onartzen ez diren kasuetan eta guneetan.

Orri hauetan jasotzen denarekin kontraesanean ez dagoen kasu guztietan, EHE Jarraibidearen 6. artikuluan adierazitakoa eta bertan jasotako oharrak aplikatuko dira eta, hala badagokio, baita PG•4/88ren 280. artikulua ere.

Hormigoia giro hotzetan botatzen denean eta, beraz, izotz-arriskua dagoenean, berrogei gradu zentigradura (40 °C) arteko tenperaturan berotutako ura erabili ahal izango da oraketarako, inolako neurri berezirik hartu beharrik izan gabe.

Edateko ura

Ureztatzeko edo hidroereiteko erabiltzen den urak honako zehaztapen hauek bete beharko ditu:

- pH-a 6 eta 8 artekoa izango da.

- Disolbatutako oxigenoa 3mg/l baino handiagoa izango da.

- Gatz disolbagarrien edukia 2g/l baino txikiagoa izango da.

- Sulfatoen edukia ($SO_4^{=}$) 0,9 g/l baino txikiagoa izango da, kloruroarena(Cl^{-}) 0,29g/lbaino txikiagoa eta boroarenak ez du 2mg/l gaindituko.

- Ez du bikarbonato ferrosorik, azido sulfhidrikorik, berunik, seleniorik, artsenikorik, kromatorik eta zianurorik izango.

Edateko ur gisa kalifikatuta dauden ur guztiak erabili ahal izango dira erabilera horretarako.

3. HARRERAREN KONTROLA

Mortero eta hormigoietarako ura

Kontratistak uraren kalitatea kontrolatuko du haren ezaugarriak Orri hauetan eta EHE Jarraibidean adierazitakora egokitu daitezen.

Urak aztertu egingo dira erabili aurretik, baita jatorria aldatzen denean ere, haren egokitasuna frogatu ahal izateko. Entsegu oso batek (1) honako hauek hartzen ditu barne:

- Azidotasunaren (pH) azterketa bat (1) (UNE7.234/71).
- Substantzia disolbagarrien edukiaren entsegu bat (1) (UNE7.130).
- Kloruro-edukiaren entsegu bat (1) (UNE 7.178).
- Sulfato-edukiaren entsegu bat (1) (UNE 7.131).
- Karbohidratoen entsegu kualitatibo bat (1) (UNE7.132).
- Olio- edo koipe-edukiaren entsegu bat (1) (UNE 7.235).

Lortutako emaitzak agindutako mugetatik gertu daudenean eta hori arriskutsua izan daitekeenean, azterketa horiek errepikatu egingo dira obra-zuzendariak egokitzat jotzen badu. Horniduraren jatorria aldatu behar den kasuetan, kontratistak ez du apelazioak aurkeztu eta gehigarriak jasotzeko eskubiderik izango.

Orri hauetan jasotzen denarekin kontraesanean ez dagoen kasu guztietan, EHE Jarraibidearen 63.2. artikuluan adierazitakoa eta bertan jasotako oharrak aplikatuko dira.

Edateko ura

Obra Zuzendaritzak arestian aipatutako parametro guztiak aztertu daitezela agindu ahal izango du egokitzat jotzen badu.Aurreko atalean zehaztutakoa betetzen ez duten unitateak baliogabetu eta lanak errepika daitezela agindu ahal izango du, material hori modu egokian erabiliz.

286EGURRAK

1. DEFINIZIOA

Hesietarako egurrak PG•3 atalean adierazitako baldintzak bete beharko ditu.

2. EZAUGARRI TEKNIKOAK

Ez da, inola ere, zuritu gabeko egurrik baimenduko, ezta eskoratze edo apeoetan ere.

Egur osasuntsuak erabiliko dira, eta ez usteltzen ari direnak; dena den, kolore-aldaketak dituztenak onartuko dira, koniferoetako urdinxkak, adibidez.Egurrak ez du konpresioak eragindako hausturarik izango.

Haren iraunkortasun naturala "sylvestris" pinuarena izango da, gutxienez.

Orri hauetan jasotzen denarekin kontraesanean ez dagoen kasu guztietan, PG•3aren 286.1. atalean adierazitakoa aplikatuko da.

Formari eta dimentsioei dagokienez, PG•3ko atalean adierazitakoa aplikatuko da.

3. HARRERAREN KONTROLA

Kontratistak obran erabili beharreko egurraren kalitatea kontrolatuko du hark Orri hauetako aurreko ataletan adierazi diren ezaugarriak bete ditzan.

Obra Zuzendaritzak obra-eremuetara bideratutako egurraren erabilera baimendu beharko du.

III. KAPITULUA: OBRA-UNITATEAK

300 LURSAILA HUSTU ETA GARBITZEKO LANAK

1. DEFINIZIOA ETA IRISMENA

Lursaila hustu eta garbitzeko beharrezko lanak egin beharko dira, lur-berdinketarako mugen artean, lursail naturala inolako oztoporik, sastrakarik, zuhaitzik, motzondorik, hesirik, hormatxorik, zaborrik, obra-hondakinik eta obra-zuzendariak kaltegarritzat jotzen duen bestelako materialik gabe uzteko. Horrela, gune horiek erabilgarri geratuko dira eta ez dute indusketa- eta/edo betetze-lanen hasiera baldintzatuko.

Obra-unitateak honako hauek hartzen ditu barne:

- Materiala mugitzea; soropila zotalak eginez aterako da, gero berriz erabili ahal izateko.Eginkizun hori langile espezializatuek bete beharko dute.
- Motzondoak ateratzea.
- Aprobetxatu ezin daitezkeen material erregaien errausketa.
- Materialak kargatu, garraiatu eta zabortegian deskargatzeko, horiek behin-behineko izaeraz pilatu eta biltegiratzeko, eta behin betiko isuri arteko lan guztiak.
- Beharrezko elementu laguntzaile edo babesle guztiak, hesiak eta hormatxoak, adibidez.
- Pilatutako materialak modu egokian mantenduko dira, baita material ez erregaiak deskargatzeko zabortegiak eta zabortegietako kanonak, kalte-ordainak, zergak, gastuak eta abar ere. Era berean, proiektuko zabortegian modu egokian mantenduko dira materialak biltegiratzeko edo zabaltzeko eta trinkotzeko lekuak.
- Obra-unitatea modu egokian eta azkar gauzatzeko beharrezko lanak, makinak, materiala edo elementu laguntzaileak.

2. OBRAK GAUZATZEA

Obrak Obra Publiko eta Garraio Ministerioaren Errepide eta Zubietako Obretarako Baldintza Tekniko Orokorren Orrietako (PG-3) 300. artikuluan xedatutakoari jarraiki egingo dira.

3. NEURKETA ETA ORDAINKETA

Obra-unitate hau benetan gauzatu den metro karratu (m2) bakoitzeko neurtu eta ordainduko da. Neurketa lursaila osatzen duen planoaren arabera egingo da.

"Benetan gauzatutako" obra-unitatetzat joko dira lur-berdinketarako lerroen artean dauden gainazalak, horiek eraitsitako eraikin, errepide, bide, komunikabide edo, oro har, lehendik zeuden zoladura edo bide-zoruei ez dagozkienean.

Aurrekontuan adierazten den prezioa ordainduko da, kontratistak eskainitako beherapena kontuan hartuta. Bertan, obra guztiz gauzatzeko eragiketa guztiak gaineratzen dira, Orri hauetan adierazitako baldintzekin bat etorriz.

320 MOTA GUZTIETAKO LURSAILEN INDUSKETAK

1. DEFINIZIOA ETA IRISMENA

Errepidea edo obra kokatuko diren guneak induskatzeko eta berdintzeko eragiketen multzoa da.

Unitate horretan sartzen dira:

- Lur-erauzketaren ezaugarri geometrikoen zuinketa.
- Indusketaren edo betelanen maila guztietara iristeko pistak, eta obrako guneak komunikazio-sistemarekin lotzeko pistak.
- Lur-erauzketako materialen indusketa, belar-sastrakak garbitu edo eraikinak, zubiak eta hormigoizko fabrikako obrak eraitsi ostean. Indusketa horiek proiektuan zehaztutako edo obra-zuzendariak adierazitako mugetara arte egin ahal izango da, kunetoiak, bermak, betegarriak finkatzeko eserlekuak eta beharrezko gainerako saneamenduak barne.
- Saneamenduak: gainazalean edo lubetetan, nahiz zuzendu beharreko ezpondetan, atzeraeman beharragatik nahiz horien egonkortasun ezagatik.
- Lur-erauzketaren indusketa-unitatean sartuko dira, halaber, obra-zuzendariak berariaz agindutako indusketa osagarriak.
- Era berean, unitate horren irismenean sartzen dira beharrezko babes-neurri laguntzaileak:

  Lur-erauzketaren oineko lur-metaketak.

  Obra Zuzendaritzak agindutako sareak, tarteko hesiak, olanak eta sareak, elementu solteen proiekzioek eta errodadurek eragin ditzaketen arriskuak saihesteko.

  Lur-berdinketaren ertzetatik kanpo, ordaindu beharrekoak izango ez diren itxitura metalikoak eta kabailoi arruntak eraikiko dira. Horrela, bada, kota-desberdintasuna 15 metrokoa izango da, gehienez ere, haren gailurraren edo, hala badagokio, itxitura metalikoaren eta lan egiten ari den bankadaren artean, betiere eraikinak eta errepideak solte dauden birletatik eta gertuen dagoen lur-berdinketako ertzaren eta babestu beharreko elementuaren artean jaulki daitezkeen elementuetatik babesteko.

  Mailu harkaitz-hausle bidez, Obra Zuzendaritzak agindutako indusketako ezponda guztiak apurtuko dira horiek gertu daudenean edo errepideko zirkulazioan kalteak eragin ditzaketenean, baita lur-erauzketaren aurkako gunean dauden eta indusketa-maila bakoitzari dagozkion azken lursail-prismak ere, bloke eta birlen errodadurak gerta daitezkeen guneetan lehergailurik ez erabiltzeko.

Dardaren kontrola, mazizoa karakterizazio-monitorizazioak eginez eta horien egokitzapena kontrolatuz, eta DIN 4.150 arauak jasotzen duen kalteei aurrea hartzeko irizpidea kontuan hartuta. Era berean, Meategietako Segurtasunerako Oinarrizko Arauen Erregelamendu Orokorreko I.T.C. 10.3.01 arauan xedatutakoa betetzen duten mikroatzerapenak erabiliko dira, 0380-1-85 zenbakiko zehaztapen teknikoaren arabera.

Batatxe bidezko saneamenduak, ezponden euskarrietan batez ere, hurrengoa ireki aurretik hura berehala betez.

Lur-berdinketaren mugen artean dauden bide-zoru eta zolaten indusketa.

- Behin-behineko biltegiratze- edo erabilera-guneetako karga-, garraio- eta deskarga-eragiketak –baita material bera hainbat aldiz biltegiratu behar denean ere–, eta azken biltegiratzetik hura erabiliko den lekura edo zabortegira (egokiak ez diren edo sobera geratu diren materialen kasuan) egindako karga-, garraio- eta deskarga-eragiketak, eta azken material horiek zabortegian zabaldu eta trinkotzeko eragiketak.

- Materialen kontserbazio egokia eta maileguen, biltegiratze-lekuen eta zabortegien kanonak, kalte-ordainak eta mota guztietako gastuak.

- Beharrezkotzat jotzen diren ahitzeak eta drainatzeak, eta lanak gauzatzen diren bitartean horiek baldintza egokietan mantentzeko lanak.

- Lur-erauzketako ezpondak uniformatu, berriz zehaztu eta kontserbatzea.

- Landare-lurra ateratzea, hau da, lurzoruaren goiko geruza induskatzea eta hura bilketa- edo zabaltze-lekura garraiatzea, betiere obrari dagokion eremuaren barnean eta gero hura ereintza eta landaketetan erabili ahal izateko kantitate egokietan.Haren barnean, indusketa-, garraio- eta deskarga-eragiketak sartuko dira.

- Zuhaitzen mozketa eta garraioa ez da obra-unitate honen barnean sartzen.

2. MATERIALAK

Ez da lehergailurik erabiliko.

3. OBRAK GAUZATZEA

Landare-lurraren indusketan zotalak sortuko dira, Proiektuan adierazitako guneetan eta sakonerara arte.Lanak abiarazi aurretik, Obra Zuzendaritzak bilketa-guneen aukeraketa onartu eta, hala badagokio, erauzketarako guneak eta sakonerak jasotzen dituen plano bat onartu beharko ditu.

Eragiketak gauzatzen diren bitartean, landare-lurra trinkotu ez dadila zaindu beharko da; horregatik, erauzi beharreko lurren gainetik makina pisutsurik ez igaro behar izateko teknikak edo makina arinak bakarrik behar dituzten teknikak erabiliko dira.Are-makinak lehor dauden lurzoru hareatsuetan edo oso hareatsuetan bakarrik erabili ahal izango dira.

Traza garbitu eta gero erabili ahal izateko beharrezko landare-lurra kendu ostean, indusketa-lanak abiaraziko dira, honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Lur-berdinketarako lanak garatzeko programa bat prestatu eta hura obra-zuzendariari aurkeztu beharko zaio eta, hala badagokio, hark hura onartu beharko du.Oro har, ez da lur-erauzketarako lanak abiaraz daitezela baimenduko eta horiek eten egin ahal izango dira, xede horretarako zabortegi edo obra-leku bat edo gehiago prestatu ez badira.

b) Eragindako gunean eta, obra-zuzendariaren ustez, harekin lotuta dauden guneetan behar bezala amaitu beharko dira prestakuntza-eragiketa guztiak, lanak modu egokian gara daitezela bermatu eta, batez ere, proiektuko zabortegia behar bezala egokituta eta prestatuta egon dadin.

c) Era berean, obra-zuzendariak mailegu baten irekiera baimendu beharko du, kontratistak proposatu eta eskura dauden entseguak aztertu ostean.Mailegua ireki dadila baimendu eta hura ustiatzen hasi aurretik, kontratistak lurra garbitu eta sastrakak kentzeari ekingo dio, bere kontura. Era berean, landare-lurra garbitu eta hura bilketa-gune nagusira eramango du, beharrezkoa izanez gero, hura berriz erabili ahal izateko, baita ustiatu beharreko gunean dauden gainerako produktu desegoki guztiak ere.Lurzorua ustiatzen den bitartean, mailegatutako eremua baldintza egokietan mantendu beharko da.

Galtzada, bazterbide, berma, kunetoi eta areken indusketa bat etorriko da planoetan jasotako informazioarekin eta obra-zuzendariak zentzu horretan agintzen duenarekin. Horrela, bada, ez da onartuko fase guztietan kasuan kasuko erreferentzia tipografikoak betetzen ez dituzten indusketak.

PG-3ko 330.3.1. atalean adierazitako definizioen, eskakizunen eta mugen arabera, lurzoru "onargarri", "egoki" edo "hautatu" gisa sailkatu daitezkeen indusketetatik eratorritako produktuak betelanetarako erabili daitezke.

Indusketa-sistema lursailaren baldintza geologiko eta geoteknikoekin bat etorriko da kasu bakoitzean. Era berean, unitate hori gauzatzean gertuko eraikinetan edo instalazioetan sor daitezkeen ondorioak saihestuko dira; hori dela-eta, ahalik eta sistemarik egokiena erabiliko da, obra-zuzendariak bere onespena eman ostean.

Lehendik dauden ur-ibilguak ez dira aldatuko obra-zuzendariaren aldez aurretiko idatzizko baimenik gabe.

Ezponda aldera zeharkako malda duten lur-erauzketetako ezponda-bermek ehuneko erdiko (% 0,5) luzetarako malda izango dute, gutxienez.

Zabaldegiak behar besteko malda izango du, eta drainatze-sistema nagusiarekin lotutako ibilguetara eta lubakietara isuriko ditu urak. Helburu horrekin, obra-zuzendariak beharrezkotzat jotzen dituen behin-behineko ibilguak eta lubakiak egingo dira.

Behin-behineko edo behin betiko isurbide-sistemak egiteko orduan ez da higadurarik sortuko indusketetan.

Indusketan akuiferoak aurkituz gero, kontratistak obra-zuzendariaren onespena duten neurriak hartuko ditu berehala.

Kontratistak drainatze-neurriak garaiz hartzen ez baditu –behin-behinekoak nahiz behin betikoak–, obra-zuzendariak adierazi bezain laster, eragindako obrak leheneratu beharko ditu. Eragindako gastuak berak ordaindu beharko ditu, baita hirugarrenei sortutako kalteek eragindako gastuak ere.

Planoetan agertzen diren lur-erauzketako ezpondak askotarikoak izan daitezke.Obra-zuzendariak, lursaila eta azterketa geoteknikoak aztertu ostean, horiek zehaztuko ditu, arrazoiak arrazoi, aldaketaren bat sortu bada. Kasu horretan, kontratistaren betebeharra izango da indusketa egitea, zehaztutako ezpondekin bat etorriz.

Proiektuak hala aurreikusten badu edo Obra Zuzendaritzak hala eskatzen badu, arrokako lur-erauzketako ezponden oinean 1 □ 1 baino ezponda-tarte txikiagoa definituko da, haren eta aurrekoaren artean bermarik utzi gabe.Ezponda-aldaketa horrek arrazoi estetikoei erantzuten die, gero ingurumen arloko egokitzapena egin ahal izateko.

Azken tarte horretan ebaki-lerrorik ez egin ahal izanez gero, tarte horretako ezponda teorikoak sortutako hirukia xehatze bidez egingo da, tartea eta karga mugatuz, eta ezpondari atxikitako mailak sortuz (1,5 m zabaleko 5 maila gutxienez). Horrela, gero lurra berriz zehaztu eta landare-lurra zabaldu ahal izango da, 0,30 eta 1,00 metro arteko lodierakoak eta aurreikusitako ezponda teorikoa lortu arte.

Betelanak asentatzeko, gutxienez 1,00 metroko mailako artekak utziko dira maila bakoitzerako; horiek isurpen, zabaltze eta trinkotzeko makinek bertan zirkulatu eta lan egiteko beharrezko zabalera izango dute.

Arteka horiek atzerako hondeamakina bidez bakarrik egin ahal izango dira, materiala kenduz, baina ez lubeta-guneak dituen mendi-hegalaren erdialdera berdinduz.

Lubeta-oinetan, ibarbide azpian, planoetan adierazitako guneetan eta obra-zuzendariak adierazitako lekuetan, lubeta asentatzean substratu harritsuraino iritsi beharko da, kasuan kasuko arketak eginez.

Substratu harritsura arteko lodierak 2,00 metrotik gorakoak direnean, batatxe bidezko indusketa egin beharko da; dena den, indusketa horrek 5,00 metroko luzera izango du gehienez ere, eta gutxieneko zabalera isurpen- eta zabaltze-makinak zirkulatzeko modukoa izango da. Beste batatxe bat irekitzeko, aurrez ireki dena bete beharko da lehenengo.

Indusketak lur-erauzketaren goialdetik hasiko dira, eta gero zabalgunerik ez uzten saiatu beharko da.Edonola ere, gero zabalguneak behar izanez gero, horiek goitik egingo dira beti, baina ez zabaldu beharreko gunearen oineko indusketa bidez.

4. KALITATEAREN KONTROLA

Amaitutako indusketak eragindako gainazalen egiaztatze geometrikoa egitea da helburua, betiere Planoak eta Baldintza Tekniko BerezienOrriak kontuan hartuta.

Ardatzaren zuinketa-kotak, lur-berdinketaren ertzak eta ezponden maldak egiaztatuko dira, 20 metro bakoitzeko, gutxienez.

Onartutako tolerantziak gainditzen dituzten irregulartasunak kontratistak berak zuzendu beharko ditu eta, indusketa gehiegizkoa izan den kasuetan, horiek ez dira neurketa eta ordainketaren ondorioetarako zenbatuko.

Horrez gain, monitorizazioak egingo dira aurreko puntuan adierazitakoa aintzat hartuta.

5. NEURKETA ETA ORDAINKETA

Mota guztietako lursailetan egindako indusketak metro kubikotan (m^3) neurtuko dira. Horiek lursaileko zeharkako profil egiaztatuen –indusketa abiarazi aurretik hartuak– eta planoetan adierazitako edo, hala badagokio, obra-zuzendariak agindutako profil teorikoen arteko desberdintasuna izango dira, eta teoriko gisa hartuko dira, betiere gertatu diren profil teorikoekiko gehiegikeriak kontuan hartu gabe.

Neurriz gaineko indusketak obra-zuzendariak bakarrik erabaki ahal izango ditu.

Indusketaren prezioa ez da aldatuko, garraiatu beharreko distantzia edo obra gauzatzeko momentuan erabili beharreko zabortegia dena dela.

Erabilera-kanonak kontratistak ordaindu beharko ditu horiek beharrezkoak izanez gero, baita iristeko pistak eta hondakinak proiektuko zabortegian zabaldu eta trinkotzeko lanak ere. Dena den, ez da gauza bera gertatuko beharrezko drainatze-obren eta zabortegietan egin beharreko euskarrien kasuan.

Lur-erauzketako indusketa "ez sailkatutzat" jotzen da PG-3an definizio horri esleitzen zaion zentzuan, hau da, kalifikazioaren eta ordainketaren ondorioetarako, lursaila homogeneotzat joko da eta ez du diferentziaziorik eragingo, duen naturagatik edo gauzatzeko moduagatik, obrak abiarazten diren momentuan nahiz hondakinak kargatzen eta garraiatzen diren momentuan.

Zabortegian bildu edo zabaldutako materiala erabili behar denean, horiek kargatu, garraiatu eta isurtzeko lanetarako ez da neurketa independenterik egingo.

Lubeta-oinetako arteken batatxe bidezko indusketa proiektuko profil teorikoen arabera neurtuko da; dena den, ez dira neurtuko batatxe bidez bete diren eta hurrengoan induskatu behar diren guneak, berriz ere betetzeko. Kasu horietan, behin bakarrik neurtuko da bolumen bakoitza.

Unitate horren prezioa justifikatu ahal izateko, lurzoruetan eta arroketan induskatu beharreko materialen xehakapena egingo da, aurreikusitako indusketa-motak haztatuz.Balioespen horren ondorio gisa, unitatearen batez besteko prezio bat lortzen da.

Edonola ere, eta obra amaitu ostean benetako xehakapena dena dela, unitatearen prezioa aldaezina izango da.

Lur-erauzketako indusketa, maileguen indusketa, artekak eta lubeta-oinetarako saneamenduak eta, oro har, Proiektu honetan zehaztutako sailkapenik gabeko mota guztietako lursailen indusketak Aurrekontuan zehaztutako kasuan kasuko unitate-prezioaren arabera ordainduko dira.

330 LUBETEN BETELANA

1. DEFINIZIOA ETA IRISMENA

Indusketatik edo mailegutik eratorritako lurrak zabaltzea eta trinkotzea da. Betelanak gune zabaletan egin ohi dira, lubetak asentatzeko artekak eta batatxeak betetzeko orduan errendimendu handiko nahiz errendimendu baxuko makinak erabili ahal izateko.

Unitate honetan sartzen dira:

- Orri hauekin bat etorriz beharrezkotzat jotzen diren entsegu-tarteak.
- Materialak zabaldu, hezetu edo lehortu eta trinkotzeko lanak.
- Beharrezkoa izanez gero, geruzak, materialak eta trinkadura berriak aratzea.
- Geruzak onartzeko beharrezko entseguak.
- Landare-lurra haren gainean zabaldu aurretik ezponda fintzea.
- Obra-unitatea modu egokian gauzatzeko beharrezko lanak, makinak, materiala edo elementu laguntzaileak.
- Obra-unitate honek ez dio eragingo lurzoru hautatuaren 0,60 metroko geruzari; hura bide-zoru moten sekzioan sartzen da, etaOrri hauetako dagokion artikuluan garatzen da.

2. MATERIALAK

Materialek izan behar dituzten ezaugarriak zehazteko, horiek lubetan duten posizioa begietsiko dugu. Bertan, honako gune hauek hartu beharko dira kontuan:

- Zabaldegi hobetuko gunea (bide-zoruen kapituluan aztertzen da).

- Gailurrari dagokion gunea (zabaldegi hobetuaren azpiko lehen metroa).

- Zimenduari eta nukleoari dagokion gunea (lubetaren gainerako zatia).

- Arteka-gunea (profilen arabera).

- Saneamendu-gunea (profilen arabera).

Gailurrean metro bateko (1 m) lodiera duen gune bat gaituko da. Hura PG-3ko 330.3.1 artikuluan lurzoru "egokiaren" kategorian katalogatutako materialarekin osatuko da, hau da:

- Haren muga likidoa berrogeitik beherakoa izango da (LL < 40).

- Proktor entsegu arruntari dagokion gehieneko dentsitatea kilogramo bat zazpiehun eta berrogeita hamar gramokoa izango da, gutxienez, dezimetro kubiko bakoitzeko (1.750 kg/dm^3).

- CBR indizea bost (5) baino handiagoa izango da eta, entsegu horretan, batez besteko hanpadura ehuneko bi (% 2) baino txikiagoa izango da.

- Materia organikoaren edukia ehuneko bat (% 1) baino txikiagoa izango da.

- Ez dute hamar zentimetrotik (10 cm) gorako elementurik izango eta 0,080 UNE bahetik igarotako baheketa ehuneko hogeita hamabost (% 35) baino txikiagoa izango da pisuari dagokionez.

Zimenduari eta nukleoari dagokion gunean, materialak ere lurzoru egokiaren kategoria izango du eta PG-3ko 330.3.1. artikuluan zehaztutako baldintza zehatzak beteko ditu, granulometriaren kasuan salbu, hura 60 cm-koa izan baitaiteke –1,00 metroko geruzatan trinkotuta gehienez ere– materiala leherketetatik atera bada, edo 30 cm-koa –0,50 m-ko geruzatan trinkotuta–, horrela ez bada.

Artekari eta saneamenduari dagokion gunean, materialek PG-3an zehaztutako harbetetarako materialen ezaugarri berberak izango dituzte.

Oro har, ez dira erabiliko eranskin geoteknikoan onargarri edo desegokitzat jotzen diren materialak, eta ez da horien aprobetxamendua gomendatzen.

3. OBRAK GAUZATZEA

Zabalera nahikoa izango duen entsegu-tarte bat gaituko da, obra-zuzendariak onartutako proiektuan jasotakoarekin bat etorriz. Izan ere, tarte horretatik ondorio baliagarriak atera daitezke tokian bertan lortutako harrizko materialei, trinkadurarekin lotutako hezetasunari, makineriari, pasada-kopuruari eta abarrei, hartu beharreko neurri bereziei, geruzen lodierari eta beharrezko gainerako berezitasunei dagokienez.Entsegu-tarte horretan, hainbat pasada-kopuru eta hezetasun-konbinazio probatu beharko dira geruza-lodiera bakoitzerako, gutxienez, lau geruzatarako.

Informazio horrekin, obra-zuzendariak onartu beharreko exekuzio-programa bat prestatuko da.

Artikulu honen xedea hori ez izan arren, landare-lurra modu koordinatuan zabalduko da, lubeta egiten den bitartean.

Izendatze-ondorioetarako, gaineko ehun zentimetroak (100 cm) "lubetaren gailur" gisa hartuko dira, eta baldintza geotekniko eta exekuzio-baldintza zehatzak izango ditu.Lurzoru hautatuaren geruza, hau da, material harritsuekin egindako lur-erauzketako fondoa –30 cm-ko sakonera baliokidea izango duena–, bide-zoruen kapituluan aztertuko da, eta zabaldegi hobetu gisa hartuko da.

Lubetak ez dira, inola ere, lurzoru ezegonkorren gainean zuzenean eraikiko.Beharrezkoa izanez gero, lubetaren zimendatze egokia bermatuko duten izaera eta lodierako asentu-geruza bat jarriko da.

Mendi-hegalaren erdialdeko lubetetan, asentuaren azalera prestatzeko beharrezko zati mailakatuan (artekan) –indusketa-unitatearen zehaztapenak kontuan hartuta egingo da–, harbeta hirurogei (60 cm) eta ehun zentimetro (100 cm) arteko lodierako geruzatan zabalduko da; trinkotu ostean, horretarako erabiliko den materialaren tamainak ez du gainditukо geruzak duen lodieraren ehuneko hirurogeita hamarra (% 70), eta 4. zenbakiko ASTM (4,76 mm) bahetik igarotako baheketak ez du ehuneko bosta (% 5) gainditukо, laginaren pisuari dagokionez.Trinkotze-hezetasuna obra-zuzendariak onartuko du, entsegu-tartearen emaitzak oinarritzat hartuta.

Trinkadurarako, gutxienez hamabi tona (12 t) dituen arrabol bibrakorra erabiliko da eta pasada-kopurua entsegu-tarteko emaitzen arabera zehaztuko da; abiadurari dagokionez, bost (5 m/min) eta hogeita hamar (30 m/mm) metro artean egingo dira minutuko, eta bibrazio-maiztasuna mila (1.000 rpm) eta bi mila (2.000 rpm) erreboluzio artekoa izango da minutuko.

Lubeten zimenduetan eta nukleoetan, dentsitatea ez da Proktor entsegu arruntean lortutako gehieneko dentsitatea baino ehuneko laurogeita hemezortzi (% 98) txikiagoa izango.

Trinkotu ostean, azken geruzak gutxienez ehun zentimetro (100 cm) izango ditu puntu guztietan, betelanaren azken sestraren azpitik.

Azken geruza hori egin ostean, irregulartasunak bete eta gailurra zabalduko da.

Betelanen gailurrean, metro bateko (1 m) lodierako gunea gaituko da, material egokiarekin eraikia.Gune horretan, Proktor Arruntaren ehuneko ehun eta hiruko (% 103) trinkadura eskatuko da.Gailurrean, karga-plaken entseguak egingo dira. Horretarako, 30 cm-ko diametroa duten plakak erabiliko dira eta, kargaren bigarren aplikazio-zikloan, E2 moduluaren balioak zortziehun kilopondiotik gorakoa izan behar du zentimetro karratu bakoitzeko (800 kp/cm^2), betiere formula hau oinarritzat hartuta:

$$E^2 = \frac{1{,}5 \cdot r \cdot p}{s}$$

Bertan:

r = plakaren erradioa zentimetrotan.

p = aplikazioaren presioa,

kp/cm^{2}tan.

s = plakaren

asentua,zentimetrotan.

ZTVE-STB 59 arau alemaniarrarekin bat etorriz, lehen eta bigarren zikloko moduluen E2/E1 erlazioa 2,2 baino txikiagoa izango da E1eko balioak E2rako eskatutakoak baino % 60 txikiagoak badira.

Materialak garraiatzeko eta zabaltzeko ekipoek geruza osoan zehar jardungo dute.

Ehuneko hogeita bostetik (% 25) gorako malda duten lursailaren mendi-hegalaren erdialdeko lubeta guztiak hiru eta bost metro arteko (3 eta 5 m arteko) zabalerako eta metro bat eta bi arteko (1 eta 2 metro artean) altuerako berma horizontaletan finkatu behar dute.Baldintzak onuragarriak badira eta obra-zuzendariak baimena ematen badu, berma horiek induskatuko dira malda duen ezpondaren azpian, mendi-hegalaren noranzko berean.Bermen gainean, metro erdiko (0,50 m) gutxieneko lodiera jarraitua izango duen lehen geruza bat eraikiko da, arroka osasuntsuko indusketetatik ateratako material pikorkatu hautatua erabiliz.

Obra-zuzendariaren iritziz, bermak induskatzean hezetasun-orbanak edo iragazpen txikiak hautematen badira, hautatutako materiala ehuneko hamarretik (% 10) beherako finen edukia duen kareharri-harrobiko "zagorrarekin" ordezkatu beharko da.

Indusketetan agertzen diren iturri guztiak betelanetatik kanpo bideratu beharko dira, malda handiko (% 4tik gorakoa) eroanbideak erabiliz.

Ibarbideen bidegurutze guztietan, erreken antzinako ibilgua (horiek etengabeko nahiz aldizkako ibilgua izan), geotestil bidez inguratutako material iragazlearekin betea, harrobiko "zagorrarekin" egindako 0,25 metro lodiko geruza batekin estali behar da, eta finen ehunekoa ehuneko hamar (% 10) baino txikiagoa izango da.

Lurzoru hautatuetako geruzen gainazala konbexua izango da eta ehuneko biko (% 2) zeharkako malda izango du gutxienez.

Lurzoru egokietan edo arroketan, geruzen gainazala konbexua izango da, eta zeharkako malda ehuneko bi (% 2) eta ehuneko bost (% 5) artekoa izango da.

4. KALITATEAREN KONTROLA

Obra-unitate honetan, honako material hauek kontrolatuko dira:

- Hura osatzen duten materialak.
- Hedadura.

- Trinkadura.
- Geometria.

Materialen kontrola

Honako prozedura honi jarraiki egingo da:

a) Jatorrizko lekuan

Lur-erauzketa edo mailegu bat ustiatzen hasi aurretik, landare-lurrak kendu direla egiaztatu beharko da.

Aurrealdearen arrazoizko ustiapena egin dela egiaztatu eta, hala badagokio, erabilgarriak ez diren betak kendu beharko dira.

Lur-erauzketa edo mailegu bakoitzean induskatutako materialaren lagin adierazgarriak hartu beharko dira, obra-zuzendariak zehaztutako irizpideekin bat etorriz, honako entsegu hauek egiteko:

Entseguak

. Materialaren 5.000

m^3bakoitzeko:Proktor arrunt 1

Granulometriko 1

Atterberg mugen zehaztapen 1

. Materialaren 20.000 m3

bakoitzeko:Laborategiko CBR 1

Materia organikoaren zehaztapen 1

b) Obra-lekuan edo materiala erabiliko den lekuan bertan

Kamioiak deskargatu osteko lur-piloak aztertuko dira. Lehenik eta behin, landare-hondarrak, materia organikoa edo onartutako gehieneko tamaina baino handiagoa duten birlak baztertuko dira. Horrez gain, obrara iristen den onartutako jatorrietako materialak itxurarekin lotutako anomaliaren bat duen adieraziko da, beste kokapen bat edo plastikotasun handiegia dutenak, adibidez.

Susmagarritzat jo diren multzoen laginak hartuko dira, jatorrizko lekuan egindako entseguak errepikatzeko.

Jatorrizko lekuan edo erabiliko diren lekuan (horiek errepikatu behar izanez gero) egindako material-entseguen emaitzetako balioek Proiektuaren Baldintza Teknikoen Orri hauetan zehaztutako mugak bete beharko dituzte beti.

"Erauzketa-trinkadura" kate operatiboaren azkartasuna dela-eta, begiz egindako ikuskapena funtsezkoa da lubetetarako materialak kontrolatzeko orduan.

Zabaltzearen kontrola

"Azaletik", geruzen lodiera eta zabalera egiaztatu beharko dira.

"Azaletik" egindako neurketen emaitzak modu subjektiboan interpretatuko dira eta, tolerantzia handia izan arren, Proiektuko Baldintza Teknikoen Orrietan eta Planoetan adierazitakoa bete beharko dute.

Trinkaduraren kontrola

Kontrolatu beharreko obra-lekuaren barnean, honako hauek zehazten dira:

Lotea:5.000 m^2ko geruzan sartzen den materiala, 2,00 m zabaleko ertzeko zerrendak salbu.

Eguneko zatikia 5.000 m^2 baino handiagoa baina bikoitza baino txikiagoa bada, antzeko bi lote sortuko dira.

Lagina:Lote gisa definitutako gainazaletik ausaz hartutako 5 unitateko multzoa.Unitate horietako bakoitzean, honako hauen entseguak egingo dira:

- Hezetasuna
- Dentsitatea

Ertzeko zerrendak:Arestian zehaztutako Lotearen ondoko 2,00 m zabaleko albo-banda bakoitzean, puntu bat finkatuko da 100 m lineal bakoitzeko.Puntu horien multzoa aurrekoarengandik independentea den Lagin baten gisa hartuko da eta, horietako bakoitzean, honako entsegu hauek egingo dira:

- Hezetasuna
- Dentsitatea

Azaldutako kontrol-sistemaren osagarri gisa edo haren ordez, eta zuzendariak eraginkorragoa dela uste badu obra jakin baten ezaugarri bereziak direla-eta, gauzatze-prozeduraren kontrol-sistema ezarri ahal izango da. Horretarako, obrak abiarazi aurretik geruzaren lodiera, pasada-kopurua eta erabili beharreko ekipamendua zehaztuko dira, eta, horren ostean, horiek behar bezala betetzen direla zaindu beharko da, aldian behin ikuskapenak eginez.

Trinkotutako geruzan lortu diren dentsitate lehorrek entseguko puntu bakoitzean zehaztutakoak edo handiagoak izan beharko dute.Dena den, Lagin baten barnean gehienez ere eskatutakoak baino ehuneko bi (% 2) txikiagoak diren banako emaitzak onartuko dira, Lagin osoaren batez besteko aritmetikoa Orrietan zehaztutako balioaren berdina edo handiagoa bada.

Geruza trinkotuen hezetasun-edukia ez da uko egiteko arrazoia izango.

Prozeduraren kontrolak lodierari, pasada-kopuruari eta trinkotze-ekipoaren identifikazioari dagozkion egiaztapenak hartu baditu, horiek guztiek aldekoak izan beharko dute.

Trinkotze-entseguetan lortutako hezetasun onena datu orientagarri gisa hartuko da, eta obran erabilitako zapaltze-ekipoaren trinkotze-energiarekin eta kasu bakoitzean lortutako emaitzak kontuan hartuta zuzendu beharko da.

Hezetasunen eta dentsitateen "in situ" zehaztapenetan, honako metodo hauek erabili ahal izango dira: isotopo erradioaktiboak dituzten gailuak, aire-piknometroak, kaltzio karburoko botila eta abar. Dena den, eta aldez aurretiko entseguen bitartez, arrazoizko korrespondentzia lortu behar da, obra-zuzendariaren iritziz, metodo horien eta Baldintza Teknikoen Orrietan zehaztutakoen artean.

Trinkaduran zehar bigunguneak sortzen diren zaindu beharko da eta, hala bada, horiek kontrol-entseguak egiten hasi aurretik zuzendu beharko dira.

Kontrol geometrikoa

Ardatzaren zuinketa-kotak –20 m bakoitzeko– eta puntu bereziak (kurba horizontalen eta bertikalen tangenteak, eta abar) egiaztatuko dira, eta mm-etaraino berdindutako hesolak jarriko dira.Puntu horietan bertan, zabalera eta zeharkako malda frogatuko dira, zeharkako profilaren ertzetan hesolak kokatuz.

Zuinketa-puntuetatik, zabalerarekin, sestrarekin edo zeharkako maldarekin lotutako aldaketak agertu diren egiaztatuko da, eta 3 m-ko araua aplikatuko da baimendutakoak baino aldaketa handiagoak hautematen badira.

Baldintza Teknikoen Orrietan eskatutako baldintza geometrikoak betetzen dituzten sekzioak onartuko dira.

Onartutako tolerantziak gainditzen dituzten irregulartasunak kontratistak berak zuzendu beharko ditu, materiala induskatuz edo gehituz, eta aldez aurretiko azpiko gainazala aratuz.

Konpondu beharreko gunea trinkotu ostean, dentsitate-entseguak errepikatu eta egiaztapen geometrikoa egin beharko da.

Era berean, lubeta-gailurraren sendogarri gisa jardungo duen gainazalaren "azaleko" egiaztapen geometriko bat egitea komeni da.

Asentuen kontrola

Asentuen kontrolerako, lubeta finkatuko den zimenduen lursail-geruza zurruna edo konprimagarria den hartu beharko da kontuan.

Geruza zurruna bada, lubetaren asentua bakarrik kontrolatuko da. Hura egonkorra dela eta, beraz, aglomeratuaren geruza zabaltzeko egokia dela esan ahal izango da bi asteko edo hortik gorako tartean hartutako asentuen neurriak 2 mm baino gutxiago aldatzen badira; horiek lubetaren gailurrean kokatutako asentu-iltzeen gainean neurtuko dira,

eta horiei esker, doitasunezko topografia bidez neur daitezke sortutako mugimenduak, angeluzuzen-hiruko hiru ardatz ortogonalen arabera.

Lubetaren zimenduak jartzeko lursail-geruza konprimagarria denean eta maila freatikoak hari eragiten ez dionean, asentuak hartuko dira kontuan, eta ez lubetak berak sortutakoak bakarrik, baita euskarriaren geruzak sortutakoak ere. Hura egonkortzat eta, beraz, aglomeratuaren geruza zabaltzeko egokitzat joko da horien neurriek arestian adierazitako emaitzak ematen dituztenean.

Zimenduak jartzeko lursail-geruza konprimagarria bada eta maila freatikoak eragin egiten badio, Obra Zuzendaritzak, Proiektuan hala aurreikusten ez bada eta haren ezaugarriak aintzat hartuta, (lursaila sendotzeko) metodorik egokiena aztertuko du, urean sortutako tentsio interstizialak xahutzeko.

Kasu horretan, lubetaren egonkortasuna zaindu beharko da, hazte-abiadura eta asentuen bilakaera mugatuz. Horretarako, honako hauek egingo dira:

- Presio eraginkorren kontrola.
- Lubetaren hazte-kontrola, hala badagokio, sendotze-metodoa dena dela.
- Asentuen kontrola.

Kasu bakoitzean, metodo zuzena aplikatu beharreko metodologia eta sistematika xehatuko dituen Auskultazio Proiektu baten bitartez garatuko da.Auskultazio-proiektu hori eta bertan jasotzen diren zehaztapenak kalitatea kontrolatzeko obraren ehuneko orokorraren kontura ordainduko da.

5. NEURKETA ETA ORDAINKETA

Betelanak metro kubikoetan (m^3) neurtuko dira, betelanak abiarazi aurretik lursailak zituen hasierako profilen eta Planoetan zehaztutako ezpondei eta lur-berdinketari dagokion profil teorikoaren arteko emaitza gisa. Dena den, ez dira kontuan hartuko ezpondek sortutako gehiegikeriak eta lubetako gainzabalerak edo eraikitzeak.

Saneamendu- eta arteka-batatxeen betelanak proiektuko profil teorikoen arabera edo obra-zuzendariak definitutako profilaren arabera neurtuko dira; horrenbestez, ez dira neurtuko batatxe bidez bete diren eta hurrengoan induskatu behar diren guneak, gero berriz bete behar direnean. Kasu horietan, behin bakarrik neurtuko da bolumen bakoitza.

Aurrekontuan adierazten den prezioa ordainduko da, kontratistak eskainitako beherapena kontuan hartuta. Bertan, obra guztiz gauzatzeko eragiketa guztiak gaineratzen dira, Orri hauetan –"M3 Indusketatik edo mailegutik eratorritako materialarekin egindako lubetako betelana, baita hura zabaltzeko eta trinkotzeko lana ere"– adierazitako baldintzekin bat etorriz.

331 HARBETA

1. DEFINIZIOA

Unitate honetan, arrokan egindako indusketetatik eratorritako tamaina handiko harrizko material egokiak zabaltzen eta trinkotzen dira, errendimendu handiko makinak erabiltzea ahalbidetzen duten lan-eremuetan.

Unitateak honako eragiketa hauek hartzen ditu barne:

- Harbeta asentatzeko gainazala prestatzea.

- Harrizko material egokiaren indusketan, kargan eta garraioan kontuan hartu beharreko neurri bereziak.

- Materiala geruzatan zabaldu eta trinkotzea.

Unitate honetatik kanpo geratzen dira harbetaren gailurrerako beharrezko eragiketa guztiak; horien dimentsioak eta ezaugarriak Orri hauen 330. artikuluan zehazten dira, lubeten gailurrei dagokien atalean.

2. MATERIALAK

Erabili beharreko materialak lur-berdinketaren indusketatik eratorritako harrizko produktuak izango dira.

Materialek izan behar dituzten ezaugarriak zehazteko, honako gune hauek bereiziko dira:

- Gailurra (lubetaren betelanerako artikuluan aztertzen da).

- Trantsizioa.-Harbetaren goialdeak osatzen du eta metro bateko (1 m) lodiera edo Obra Zuzendaritzak zehaztutako beste bat izango du.

- Nukleoa.-Zimenduaren eta trantsizioaren artean dagoen harbetaren zatia.

- Zimendua.-Lurrarekin kontaktuan dagoen harbetaren behealdea; hark nukleoaren ezaugarri berberak izango ditu.

Harbetan erabiliko den arrokaren kalitateari dagokionez, PG-3aren 331.4.2. atalean gaineratutako sailkapena hartuko da kontuan.

Obra-zuzendariak berariaz onartzen duenean salbu, atal horretan "Arroka egoki" gisa sailkatutako arrokak bakarrik erabili ahal izango dira eta, beraz, guztiz debekatuta daude "Arroka desegokiak".

Partikulen formari eta granulometriari dagokionez, PG-3aren 331.4.3. eta 331.4.4. artikuluetan zehaztutako preskripzioak arautuko dira.

3. OBRAK GAUZATZEA

ASENTUAREN GAINAZALA PRESTATZEA

Lur edo lursail ezegonkorren gaineko harbetak eraikitzen direnean –zohikatzak edo buztin bigunak, adibidez–, material hori ezabatu egin beharko da, kasuan kasuko arteken edo mailakatzeen bitartez, mendi-hegalaren erdialdean bada. Horrela, lubeta arroka osasuntsuaren gainean asentatu ahal izango da.

HARRIZKO MATERIAL "EGOKIEN" ERABILERA

Obra-zuzendariak zehaztuko ditu indusketa-gune bakoitzetik ateratako materialak zein harbeta zehatzetara bideratuko diren.

Harbetetan erabiltzeko baldintzak betetzen ez dituen arroka egokian induskatutako materiala obran erabili edo zabortegira garraiatuko da, obra-zuzendariak emandako jarraibideen arabera.

Harrizko materialen indusketa abiarazi aurretik, induskatu beharreko gunea estaltzen duten lurrak ezabatuko dira, baita harbetetan erabiltzeko egokia ez den gainazaleko arrokaren gunea ere.

Era berean, indusketan zehar arroka-eraketaren barnean agertzen diren lursail-gune desegokiak ezabatuko dira.

Indusketa-lanak egiterakoan, ateratako materialen forma eta granulometria harbetetan erabiltzeko modukoak izango dira, artikulu honi jarraiki.

Beharrezkoa izanez gero, indusketaren ostean forma edo dimentsio desegokiak dituzten elementu bereziak ezabatu edo zatituko dira.Obra-zuzendariak erabakiko du kasu bakoitzean zein eragiketa osagarri gauzatuko den.

Induskatutako produktuak kargatu eta horiek erabiliko diren lekura garraiatzeko lanak materiala ez bereizteko moduan egingo dira.

LANERAKO METODOA

Harbeta asentatzeko gainazala prestatu ostean, hura eraikitzeari ekingo zaio. Horretarako, arestian zehaztutako baldintzak betetzen dituzten materialak erabiliko dira, eta horiek lodiera uniformea duten eta zabaldegiaren gainazalarekiko paraleloak diren ondoz ondoko geruzetan zabalduko dira.

Geruza bakoitzeko materiala obran deskargatuko da, geruza horretan dagoeneko zabaldu den zatiaren gainean eta aurrealdetik gertu.Kokaleku horretatik, geruzaren aurrealdera arte bultzatu eta haren jarraian zabalduko da bultzatzeko pala duen beldar-traktore batekin; horrela, eragiketa egiten den bitartean materialean egon daitezkeen bereizketak zuzenduko dira.

Geruzen lodiera txikia izango da, bitarteko erabilgarriak erabiliz, lortu nahi den trinkotasuna lortu ahal izateko.Obra-zuzendariak berariazko baimena ematen duenean salbu, geruzen gehieneko lodiera honako irizpide hauen arabera zehaztuko da, horiek trinkotu ostean:

- Nukleoa.-Metro bateko (1 m) lodiera izango du.

- Trantsizio-gunea.-Geruzen lodiera txikiagotu egingo da gunearen behealdetik goialdera, nukleoaren eta gailurraren artean pixkanakako pasagune bat finkatzeko helburuarekin.Era berean, ondoz ondoko bi (2) geruzaren artean honako baldintza hauek betetzen direla egiaztatuko da:

.$I_{15}/S_{85} < 5$

$I_{50}/S_{50} < 25$

I_x beheko geruzari dagokion materialaren % x igarotzen den (pisua) bahearen irekidura izango da eta S_x, berriz, goiko geruzari dagokion materialaren % x igarotzen den (pisua) bahearen irekidura.

Aukeratutako trinkotze-metodoak beharrezko gutxieneko trinkotasuna lortzeko modukoa izan behar du.Xede horrekin, behar bezala aukeratu beharko dira, harbetaren gune bakoitzerako, materialaren granulometria, geruzaren lodiera, trinkotze-makinaria mota eta ekipoaren pasada-kopurua.Aldagai horiek obra-zuzendariak berak zehaztuko ditu, lanerako metodoa martxan jartzean lortutako emaitzak ikusi ostean, hurrengo atalean adierazten den moduan.

Trinkaduran arrabol bibrakorrak erabiltzen badira, ekipoaren pisu estatikoa ez da hamar tonatik (10 t) beherakoa izango.

4. KALITATEAREN KONTROLA

Kontratistak idatziz proposatuko dio zuzendariari erabili beharreko material-mota bakoitzarentzat egokitzat jotzen duen eraikuntza-metodoa, betiere artikulu honetan adierazitako preskripzioak betez.Proposamen horretan, honako datu hauek zehaztuko dira:

- Erabili beharreko makina guztien ezaugarriak.

- Harrizko materialak induskatu, kargatu eta garraiatzeko metodoa.

- Horiek zabaltzeko metodoa.

- Geruzen lodiera, trinkotze-metodoa eta ekipoaren pasada-kopurua.

- Proposatutako exekuzio-metodoaren esperientziak, antzeko materialak erabiliz.

Proposatutako lan-metodoaren inguruko esperientzia nahikoa eskaintzen denean salbu, obrako entsegua egin beharko da obra-zuzendariak hura onartu ahal izateko.Entsegu horretan, esperimentu-tarte bat eraikiko da, gutxienez, hiru mila metro kubikoko (3.000 m^3) bolumena izango duena. Horrela, proposatutako metodoaren egokitasuna frogatu edo hura egokitzeari ekingo zaio.

Harbeta esperimentala eraikitzeko orduan, induskatu berri den materialaren eta zabaldutako materialaren granulometria zehaztuko da, baita trinkotutako materialaren granulometria eta dentsitatea ere.Balio horiek zehazteko, gutxienez lau metro kubikoko (4 m^3) bolumena izango duten lagin adierazgarriak erabiliko dira. Mota bakoitzeko hamar (10) entsegu egingo dira gutxienez.Era berean, harbetan egindako laginketetako hormak ikuskatuko dira trinkotutako materialaren ezaugarriak zehazteko.Laginketa horiek geruzaren lodiera osoari eragingo diote eta lau metro karratuko (4 m^2) azalera izango dute gutxienez. Prozedura topografikoen bitartez, harbetaren gainazaleko deformazioak –trinkotze-ekipoa pasatzen den bakoitzean– eta trinkotutako materialaren batez besteko dentsitatea kontrolatuko dira.

Lortutako emaitzak aztertu ostean, obra-zuzendariak proposatutako metodoa onartzea, aldatzea edo baliogabetzea erabakiko du.

Harbetari dagozkion materialen ezaugarriak zertxobait aldatuz gero, betiere obra-zuzendariaren arabera, lanerako metodoa berriz aztertu beharko da.

Nukleoko eta trantsizio-guneko gainazal amaituak fintze-hesolak erabiliz egiztatuko dira. Horiek zentimetrotaraino (cm) berdinduta egongo dira, eta ardatzean eta zeharkako profilen ertzetan kokatuta egongo dira, elkarren artean hogei metro (20 m) baino gehiago ez daudenean.

Ziriztatutako puntuen benetako koten eta horien kota teorikoen –Planoen arabera– arteko aldea aztertu eta horien muturreko balio aljebraikoak zehaztuko dira, ehun metro (100 m) baino gehiago dituzten tarteetan. Gainazal teorikoaren gainetik kokatuta dauden puntuen kota-kendurak positibotzat joko dira.

Dena den, honako baldintza hauek bete behar dira:

- Muturreko balioen baturaerdia positiboa bada, hark azken geruzak duen lodieraren bostena (1/5) baino txikiagoa izan beharko du.

- Muturreko balioen baturaerdia negatiboa bada, haren balio absolutuak azken geruzak duen lodieraren erdia (1/2) baino txikiagoa izan beharko du.

- Muturreko balioen kenduraerdia bost zentimetro (5 cm) baino txikiagoa izango da nukleoaren gainazalean, eta hiru zentimetro (3 cm) baino txikiagoa trantsizio-gunearen gainazalean.

Lehenengo baldintza betetzen ez bada, gauzatutako azken geruza induskatu eta lodiera egokiko beste bat eraikiko da.Bigarren baldintza betetzen ez bada, lodiera egokiko geruza berri bat egingo da.Hirugarren baldintza betetzen ez bada, gutxienez hamabost zentimetroko (15 cm) lodiera izango duen berdintze-geruza bat gehituko da nukleoaren gainean, edo hamar zentimetrokoa (10 cm) trantsizio-gunearen gainean. Hura behar bezala graduatuta dagoen eta harbetako materiala baino ezaugarri mekaniko txikiagoak ez dituen material pikortatuarekin egingo da, eta gehienez ere hamar zentimetro (10 cm) edo sei zentimetro (6 cm) izango ditu, hurrenez hurren.

5. NEURKETA ETA ORDAINKETA

Harbetak metro kubikoetan (m^3) neurtuko dira, harbeta abiarazi aurretik lursailak zituen hasierako profilen eta Planoetan zehaztutako ezpondei dagokien zeharkako profil teorikoaren arteko emaitza gisa. Dena den, ez dira kontuan hartuko ezpondek sortutako gehiegikeriak eta lubetako gainzabalerak edo eraikitzeak.

Saneamendu- eta arteka-batatxeen betelanak proiektuko profil teorikoen arabera edo obra-zuzendariak definitutako profilaren arabera neurtuko dira; horrenbestez, ez dira neurtuko batatxe bidez bete diren eta hurrengoan induskatu behar diren guneak, gero berriz ere bete behar direnean.Kasu horietan, behin bakarrik neurtuko da bolumen bakoitza.

Obra-unitate hau 1. zenbakiko Prezio Koadroko prezioaren arabera ordainduko da:"M3 Harbeta indusketatik edo mailegutik ateratako materialarekin betetzea, eta zabaltzea eta trinkotzea". Prezio bera aplikatuko zaie harbeta guztiei eta haren guneei, gailurrari salbu.

Harbetaren metro kubikoaren (m^3) prezioan sartuko da harrizko produktu egokiak lortzeko hartu diren neurriek eragindako arrokako indusketaren kostu gehigarria.

Aurrekontuan adierazten den prezioa ordainduko da, kontratistak eskainitako beherapena kontuan hartuta. Bertan, obra guztiz gauzatzeko eragiketa guztiak gaineratzen dira, Orri hauetan adierazitako baldintzekin bat etorriz.

502MACADAMA

1. DEFINIZIOA

Granulometria eteneko agregakin-multzo batek osatutako materiala da. Macadama agregakin lodi bat zabaldu eta trinkotzean lortzen da, eta hutsuneak agregakin fin batekin betetzen dira, berrelikagai deiturikoa.

2. MATERIALAK

Agregakin lodia

Baldintza orokorrak

Agregakin lodia harrobiko harria edo legar naturala txikitu eta birrintzean lortzen da; kasu horretan, bi (2) haustura-aurpegi edo gehiago dituzten elementu txikituen ehuneko hirurogeita hamabost (% 75) izango du gutxienez.

Agregakina elementu garbi, solido eta erresistenteekin osatuko da. Elementu horiek arrazoizko uniformetasuna izango dute eta ez dute hautsik, zikinik, buztinik edo gai arrotzik izango.

Osaera granulometrikoa

Agregakin lodiaren kurba granulometrikoa 502.1 Koadroan adierazitako ardatzetako baten barnean egongo da.

Erabili beharreko ardatza M1 edo obra-zuzendariak adierazitakoa izango da.

502.1
Koadroa

UNE baheak	Bahekin ponderal metatua (%)			
	M1	M2	M3	M4
100	100	—	—	—
90	90-100	—	—	—
80	—	100	—	—
63	—	90-100	100	—
50	—	—	90-100	100
40	0-10	0-10	—	80-90
25	—	—	0-10	—
20	0-5	0-5	—	0-10
12,5	-	—	0-5	0-5

Kalitatea

Los Angeles saioaren bidez neurtutako higadura-koefizientea hogeita hamabost (35) baino txikiagoa izango da, NLT- 149/72 arauaren arabera.

Berrelikagaia

Baldintza orokorrak

Oro har, hondar naturala, lurzoru hautatua, birrindu osteko detritusa edo tokiko materiala izango da berrelikagaia.

Osaera granulometrikoa

Berrelikagai guztia UNE 10 bahetik igaroko da.5 UNE baheak bahetutako zatikia ehuneko laurogeita bostetik (% 85) gorakoa izango da, pisuari dagokionez.

0,080 UNE baheak bahetutako zatikia ehuneko hamar (% 10) eta ehuneko hogeita bost (% 25) artekoa izango da, pisuari dagokionez.

Plastikotasuna

Berrelikagaia ez da plastikoa izango.Hondar-

baliokidea, berriz, hogeita hamarretik (30) gorakoa

izango da.

Zehaztapen horiek NLT- 105/72, NLT-106/72 eta NLT 113/72 entsegu-arauak edo indarrean daudenak kontuan hartuta egingo dira.

3. OBRAK GAUZATZEA

Gainazala prestatzea

Macadama ez da zabalduko hura asentatuko den gainazalak beharrezko dentsitatea eta Planoetan adierazitako sestrak dituela egiaztatu arte, betiere Orri hauetan zehaztutako tolerantziak aintzat hartuta.

Gainazal horretan aipatutako tolerantziak gainditzen dituzten irregulartasunak badaude, horiek Orri hauetako dagokion obra-unitatean xedatzen denarekin bat etorriz zuzenduko dira.

Agregakin lodia zabaltzea eta trinkotzea

Geruza asentatuko den gainazala egiaztatu ostean, hura eraikitzeari ekingo zaio.Agregakin lodia hamar (10 cm) eta hogei zentimetro (20 cm) arteko lodiera uniformea duten geruzatan zabalduko da.

Agregakin lodiko geruza zabaldu ostean, hura trinkotzeari ekingo zaio.Luzetara egingo da, kanpoko ertzetatik hasi eta erdialdera aldera. Ibilbide bakoitzean gainjarritako zabalera ez da elementu trinkotzailearen heren bat (1/3) baino txikiagoa izango.

Trinkadurak agregakin lodia behar bezala landuta geratu arte jarraituko du, trinkogailuaren aurrean lerradurarik, uhindurarik edo desplazamendurik sortu gabe.

Hautemandako irregulartasunak pasada bakoitzaren ostean zuzenduko dira, eta ez da geruza berririk zabalduko aurrekoaren trinkotze-maila egiaztatu eta nibelazioa egin arte.

Guneek hedadura murriztua edo malda dutelako, edo fabrika-obren ondoan daudelako, normalean erabili ohi den ekiporik erabili ezin denean, horiek sumil mekanikoekin edo zuzendariak onartutako beste baliabide batzuekin trinkotuko dira, ohiko prozedurekin lortutakoen antzeko emaitzak lortu arte.

Berrelikadura

Agregakina behar bezala sartuta geratzen denean, hutsuneak berrelikagai gisa onartutako materialarekin betetzeko beharrezko eragiketak gauzatuko dira.

Berrelikagaia zabaltzeko zuzendariak bere onespena eman beharko du eta, hura zabaldu eta berehala, trinkotzeari ekingo zaio.

Trinkaduran elementu bibrakorrak erabiltzen ez badira, berrelikagaia modu gradualean eta uniformean hedatuko da, geruza meheak sortuz. Horiek urarekin trinkotu eta ureztatuko dira, agregakin lodian behar bezala txertatu dadila lortu arte. Eragiketa horiek erraztu egin daitezke eskuzko erratzak eta eskuilak erabiliz, eta zuzendariak egonkortasun nahikoa lortu dela balioesten duen momentura arte jarraituko dira.

Trinkadurarako elementu bibrakorrak erabiltzen badira, agregakin lodi txertatuaren gainean hutsune guztiak betetzeko aurreikusi den berrelikagaiaren ehuneko berrogeita hamar (% 50) inguru zabalduko da. Horren ostean, bibragailua pasatuko da, hura guztiz txertatu arte.Gero, eragiketa hori errepikatu egingo da beste ehuneko berrogeita hamarra (% 50) baino zertxobait berrelikagai gutxiago erabiliz eta, azkenik, gainerako berrelikagai-kantitatearekin errepikatuko da.Edonola ere, agregakin lodia osatzen duten harriek ez dute kontakturik galdu behar gehiegizko bibrazioa dela eta.

Gainazala modu uniformean hezetuko da, zuzendariak onartutako zuzkidurarekin.

Berrelikagai bidez behar bezala bete ez diren guneak eskuz tratatuko dira, eskuzko erratzekin edo eskuilekin lagunduz.

Macadamaren azken akabera arrabol estatikoak erabiliz egingo da.

4. GAINAZAL AMAITUAREN TOLERANTZIAK

Fintze-hesolak jarri eta, Planoak zehaztutakoaren arabera, milimetroetara (mm) berdindu ostean –zeharkako profilen ertzetan eta ardatzean, distantzia ez da hogei metrotik (20 m) gorakoa izango–, amaitutako gainazala hesola horien buruetatik igarotzen den teorikoarekin alderatuko da.

Gainazal amaituak ez du teorikoa puntu bakar batean ere gaindituko.

Gainazalak ez du hamar milimetrotatik (10 mm) gorako aldaketarik izango hiru metroko (3 m) erregela batekin egiaztatzen denean; hura modu paraleloan nahiz arruntean aplikatuko zaio bidearen ertzari.

Irregulartasunek aipatutako tolerantziak gainditzen dituzten guneetan, horiek berreraiki egingo dira zuzendariak emandako jarraibideak aintzat hartuta. Bestalde, hark sestra modu egokian alda dadila baimendu ahal izango du akatsa gehiegikeriagatik sortu bada eta haren gainean bide-zoruaren beste geruza bat jarri behar da; era beran, erregularizazio egokiko geruza bat jarri ahal izango da, hura zoruaren gainean jarri behar bada.

5. MUGAK

Madacama giro-tenperatura, itzalean, bi gradu zentigradutik (2 °C) gorakoa denean gauzatuko da. Tenperatura muga horretatik jaisten denean, lanak eten egin beharko dira.

Geruzen gainean, mota guztietako trafikoak debekatuko dira, hura guztiz trinkotu eta berrelikatu arte.Hori bideragarria ez bada, horien gainetik igaro beharreko trafikoa banatu egingo da, gainazalean gurpil-arrastorik gera ez dadin.Kontratista arrazoi horrek eragindako kalteen erantzule izango da eta, beraz, zuzendariaren argibideak aintzat hartuta konpondu beharko ditu.

6. NEURKETA ETA ORDAINKETA

Macadama benetan gauzatutako metro kubikoko (m3) ordainduko da eta horiek Planoetan adierazitako sekzioetan neurtuko dira.

Aurrekontuan adierazten den prezioa ordainduko da, kontratistak eskainitako beherapena kontuan hartuta. Bertan, obra guztiz gauzatzeko eragiketa guztiak gaineratzen dira, Orri hauetan adierazitako baldintzekin bat etorriz.

800 LANDARE-LURRA JARRI ETA ZABALTZEA

1. DEFINIZIOA ETA IRISMENA

Proiektuan adierazitako lekuetan eta kantitateetan, egindako bilketatik eratorritako landare-lurraren geruza bat kokatzeko eragiketa da.

Honako eragiketa hauek hartzen ditu barne:

- Lur-bilketa, hala dagokionean.
- Lurra kargatzea.
- Proiektatutako lekura garraiatzea.
- Geruza uniformean banatu edo zabaltzea.

Ereintzarako prestakuntza-lanen barnean, asentu-lursaila aldez aurretik aratu, rotobatorra pasatu, harriak kendu eta lurra aratuko da.

2. MATERIALAK

Materialek behar bezala bete behar dute PG-3ko 169. artikuluan –"Landare-lurra, ongarriak eta medeapenak"– zehaztutakoa, baita Ingurumen Inpaktuaren Azterketan jasotako baldintzak eta hura onartzeko baldintzak ere.

Orri hauen ondorioetarako, lurra obraren oinean pilatuta dagoela ulertuko da.Dena den, mailegatutako lurrak hartu behar izanez gero, kasu horretan behar-beharrezkoa izango da teknikariaren aldez aurretiko baimena jasotzea.Koloreari dagokionez, landare-lurra inguruko laboreetan dagoenaren tonu berekoa izango da.

3. OBRAK GAUZATZEA

Oro har, Proiektu honetan obran pilatutako eta modu egokian kontserbatutako lurrak erabiliko dira, Proiektu honi erantsitako landare-lurra erauzteko eta pilatzeko planoaren arabera.

Ezinbestekoa izango da materiala modu egokian pilatzea.Material-bilketa aukeratutako lekuetan egingo da, honako jarraibide hauei jarraiki:Kabailoiak edo azpilak egin behar dira, eta horien altuera metro eta erdi (1,5) inguruan mantenduko da, bi metroak (2) inola ere gainditu gabe.

Pilatutako lurraren gainetik ez da deskarga-kamioirik edo bestelako ibilgailurik igaroko.

Oraska edo pilaketaren goiko geruzan hondoratze txikiak egin behar dira euriak lurzorua garbitu ez dezan eta higaduraren eraginez aldeak deforma ez daitezen; era berean, kasuan kasuko tratamenduak erraztu beharko dira.

Material-bilketaren bat aurreikusiz gero, hura mineral bidez ongarritu eta lurraren medeapen organikoa egin beharko da, hura isurtzean edo modelatzean.Ongarri mineral ez oso disolbagarriak modelaketaren ostean erantsiko dira, eta laborantzarako traktoreak erabiliko dira beti.

Pilatutako materiala denbora luzez mantendu behar denean, euriak sortutako higadurak geldiarazi eta kabailoia landare biziekin estalita mantendu beharko da, lekadunak ahal izanez gero, nitrogenoa finkatzeko duten gaitasunagatik.

Landare-lurra zabaldu aurretik, makinak ibili diren gainazalak destrinkotu beharko dira, makinen pisuak materialak trinkotzen baititu eta, beraz, horrek landareen sustraiak garatzea eta sartzea galarazten baitu.

Horregatik, eta obra-zuzendariak hala adierazten badu, landare-lurra zabalduko den gainazalak zertxobait aratu behar dira aldez aurretik, eskuz edo modu mekanikoan.

Oro har, lurra pala kargatzaile bat eta iraulki-kamioiak erabiliz kargatu eta banatuko da banaketa modu mekanikoan eginez gero, horiek jarduketa-eremuen goialdean uzten baitute lurra; banaketa eskuz egingo da gainerako kasuetan.

Material-bilketan bezala, ahal izanez gero ez da lurra trinkotu dezaketen makina pisutsuak igaroko lurraren gainetik, lurra hezea badago batez ere; horrenbestez, atzerako martxa bidez zabalduko da lurra.

Malda dela-eta, landare-lurra bere horretan sostengatzen ez bada, jarraian deskribatzen denaren gisako teknika berezietara jo beharko da.Malda handia edo zeharkako dimentsio handia duten ezpondetan, hamabost bider hamabost zentimetrotako sekzioko zanga txikiak induskatuko dira metro bateko distantziara gutxi gorabehera, zabaldutako lurra lerra ez dadin.

Ez dugu ahaztu behar ereintza landare-lurra zabaldu eta berehala egiten bada, ezponda eutsita geratzen dela haren gainazala finkatzean. Gainera, isurketak eta profil-aldaketak saihesten dira, baita azaleko ur bidezko arrasteak ere.

Lurrak behar bezala erabiltzen ez badira edo aurreko paragrafoetan xedatutakoa betetzen ez bada, eraikitzailea izango da erantzule bakarra.

4. KALITATEAREN KONTROLA

Zabaldutako landare-lurraren lodiera bereziki kontrolatuko da proiektatutako lodierarekin alderatuta. Izan ere, landarearen biziraupena hertsiki lotuta dago hark duen nutriente-kantitatearekin eta, jakina, hura lotuta dago nutrienteak dituen lur-bolumenarekin.

Era berean, horien kalitatea egiaztatu beharko da, PG-3ko 169. artikuluan –"Landare-lurra, ongarriak eta medeapenak"– zehaztutako kasuan kasuko entseguen bitartez.

Obra Zuzendaritzak baliogabetu egin ahal izango ditu azterketa horietan zehaztutakoa betetzen ez duten lurrak, eta kasuan kasuko medeapenak edo ongarritzeak agindu ahal izango ditu zehaztutako mailak lortu ahal izateko.

5. NEURKETA ETA ORDAINKETA

Obra-unitate hau zotaletako soropil-landaketaren m2 unitatearen barnean sartzen da eta, beraz, ez da modu independentean ordainduko. 815.- Belarkarak ereitea.

6. DEFINIZIOA ETA IRISMENA

Xede horretarako egokituta dagoen lursail batean haziak modu egokian banatzea da ereitea.

Unitate honetan hainbat kasu bereizten dira:

- Eskuzko ereintza.
- Ereintza

mekanikoa.Obra-unitate

honek honako hauek

gaineratzen ditu:

- Haziaren hornidura eta banaketa.
- Hazia estaltzea.
- Ondorengo zaintzak.

7. MATERIALAK

Erabili beharreko haziak Ingurumen Inpaktuaren Azterketan eta hura onartzeko baldintzetan jasotakoak izango dira.Horiek PG-3ko 168. artikuluan zehaztutakoa bete behar dute purutasunari, potentziari, ernegarritasunari eta presentziari dagokionez.

Honako hazi-espezie hauek erabiliko dira:

- Agrostis capillaris (% 20)
- Festuca rubra (% 35)

- Trifolium repens (% 25)

- Lolium perenne (% 20).

Hazia landare-lurrarekin berarekin edo ereintza babesteko material organikoak –lurrustela, zohikatza, azala, lastoa, belar ondua eta abar– erabiliz estali ahal izango da, Baldintza Tekniko BerezienOrrietan adierazten den moduan.Material organiko horiek erabiliz gero, horiek PG-3ko 170. artikuluan zehaztutakoa bete beharko dute.

8. OBRAK GAUZATZEA

- Haziak banatu eta estaltzea.

Espezie anitzeko ereintzetan, haziak ez dira nahastuko Obra Zuzendaritzak horiek ikuskatu arte. Izan ere, hark haziak modu bereizian erein daitezela eskatu ahal izango du, hazi lodiak txikiak baino gehiago lurperatu behar direlako eta, behar-beharrezkoa ez izan arren, haziak honela ereitea komeni delako:

. Lehenik eta behin hazi lodiak ereiten dira; gero, arrastelua emeki pasatu behar da, egin den azken pasaldiaren kontrako norabidean, eta lurrustelarekin edo antzeko beste material batekin egindako geruza arin bat zabaldu behar da haziak lurpean gera daitezen; azken bi eragiketa horiek inbertitu egin daitezke.Gero, hazi finak ereiten dira, horiek ez baitira nahitaez gaineztatu behar.

- Hazi-multzo bakoitza –lodiak eta finak– bi zatitan ereiten da:lehenengoa edozein norabidetan egin daiteke eta bestea, berriz, aurrekoarekiko modu perpendikularrean.

Ereiteko haziak purraka bota daitezke. Horretarako, langile gaituak behar dira, hazien banaketa uniformea izan dadin, edo ereile bat erabili ahal izango da.Hazi finen banaketa errazteko, horiek hondarrarekin edo oso lur finarekin nahas daitezke, bat eta lau (1:4) proportzioan, bolumenari dagokionez.

Eragiketa horiek guztiak bakar batera murriztu daitezke pasaldi bakar batean haziak ondo banatu direla bermatzen bada eta hazi lodiak oso azaletik estalita geratu izana garrantzitsua ez bada.Azken hori gertatzen da hazi lodiak nahasketan hasierako efektua bermatzeko bakarrik sartzen direnean, horiek azkarrago ernatzen baitira, gainerakoak ezartzen diren bitartean (hori maiz gertatzen da Lolium generoko urteko espezieen eta biurteko espezieen kasuan).

Gainera, honako neurri hauek hartu beharko dira:

- Ezpondetan, goranzko norabidean ereingo dira haziak eta hazi gehiago ereingo dira goiko zatian.

- Erein beharreko guneen mugan ere hazi gehiago ereingo dira.

- Haziak behin betiko kokalekua baino zentimetro batzuk haratago ereingo dira, gero sobera geratu den soropila moztu eta ertz garbi bat ezartzeko.

- Ereiaroa.

Ereiteko momenturik egokienak udazkena eta udaberria dira, haizerik gabeko egunetan eta lur-giroa duten lurretan.Bestalde, garai horiek luzatu egin daitezke obraren bilakaerak hala eskatzen duenean eta gero ere zaintza nahikoak bermatu daitezkeenean.

- Dosifikazioa

Gainazal-unitate bakoitzeko erabili beharreko hazi-kantitatea Proiektuan adierazitakora egokituko da, baina berariaz adierazten ez bada, Obra Zuzendaritzak hogeita hamar (30) eta hirurogeita hamar gramo (70 g/m^2) artean finkatu ahal izango ditu metro karratuko, hazi lodien goranzko ehunekoaren arabera.

Kantitate horiek handitu egin beharko dira erneketa murriztu egingo dela aurreikusten bada, lursaila behar adina prestatu ez delako edo inguruan txori edo inurri asko dabiltzalako.

- Ondorengo zaintzak

Lurra ureztatzea eta segatzea.

Haziak erein ostean, Obra Zuzendaritzak baimena ematen badu, berak edo kontratistak hala eskatu duelako, lurrak ureztatu egingo dira defizit hidrikoa dela-eta, landareen biziraupena arriskuan jartzen bada. Era berean, ez dira lurra eta haziak herrestatuko.Defizit hori handiegia ez bada, hobe da horiek sustraitu ostean ureztatzea.

Haziak aipatutako ereiaroan ereiten badira, euria egingo du lehenago edo beranduago eta, beraz, hobe da horiei itxarotea lurrak ureztatzea eta hazien banaketan eta gainazalaren uniformetasunean aldaketak eragitea baino.

Haziak erein eta berehala ureztatzeko kasuan kasuko neurriak hartu beharko dira, lurrak edo haziak ez herrestatzeko.

Ureztatzeko eguneko momenturik egokienak arratsalde amaierako orduak eta goizeko lehen orduak dira.

Zaila da beharrezko ur-kantitatea zehaztea, baina hamar (10) eta berrogei metro kubikokoa izan daiteke hektarea eta ureztatze bakoitzeko (40 m^3/Ha eta ureztatze bakoitzeko).

Ez da ohiko jarduna jarraitu beharrik izango, hau da, ez da lehen aldiz segarekin moztu beharrik izango, horrela plantulak atera baitaitezke.Eragiketa hori sega-makina egoki batekin egin daiteke, ebaketa-maila nahiko altu mantenduz, bi zentimetro (2 cm) ingurutan.Ebaketaren altuera handitu egingo da eguraldia lehorra bada.

- Neurri gehigarriak

Txoriek jandako hazien arazoa garrantzitsua izan daiteke.Horiek uxatzeko eta haziak tratatu eta horiek desiragarri ez egiteko hainbat prozedura

daude.Lur gainean zentimetro gutxi batzuetara kotoi-zatiak jartzea izango da, beharbada, guztietan eraginkorrena.

Antzeko zerbait gertatzen da inurriekin ere, hazi-kantitate handiak eraman baititzakete inurritegietara.Tratamendua sinpleagoa da kasu honetan, xede horrekin merkaturatzen diren produktuak erabil baitaitezke.

Kasu horietan, kontratistak Obra Zuzendaritzarekin kontsultatuko ditu hartu beharreko neurriak.

Kontratistari egokituko zaio arrazoi horien eraginez sortutako gastuak ordaintzea, baita ereintza berrien gastuak ere, adierazitako neurriak hartu ez badira.

9. KALITATEAREN KONTROLA

Haziek proiektatutako espeziearen itxura eta kolore bera izango dute. Modu egokian etiketatutako zaku itxietan aurkeztuko dira eta ez dute elementu patogenorik izango.

Erabilitako dosiak Baldintza Tekniko Berezien Orrietan zehaztutakoak izango dira ahal izanez gero, eta ereintzari dagozkion lanak aurreko atalean zehaztutakoaren arabera garatuko dira.

Soropilarenharrerarako gutxieneko epeak "jaiotako belardi" edo "lehen uztaren osteko" terminoekin ezar daitezke; epe horien barnean, edo urtebetetik beherako epean, Proiektuan zehazten diren edo obra-zuzendariaren ustez aplikagarriak diren mantentze-lanak bakarrik egingo dira.

Haziak erein eta bi hilabeteko gehieneko epean haziak gune tratatu batean ernatzen ez badira edo gutxiegi ernatu badira, obra-zuzendariak ereintza-eragiketa errepikatzea erabaki ahal izango du. Haziak berriz ereitea erabakiz gero, kontratistak bere gain hartuko ditu eragindako gastuak, betiere obra-zuzendariak hala adierazten badu.

10. NEURKETA ETA ORDAINKETA

Obra-unitate hau zotaletako soropil-landaketaren m2 unitatearen barnean sartzen da eta, beraz, ez da modu independentean ordainduko.Berrereintza ordainketan gaineratuta geratuko da obra-zuzendariak hala adierazten duenean.

Lursaila prestatzeak eta ongarriak eta medeapenak gehitzeak ez du aparteko ordainketarik eragingo.

818 ZOTALETAKO SOROPIL-LANDAKETA

1. DEFINIZIOA ETA IRISMENA

Proiektuak adierazitako gainazaletan zotal-xaflak jartzeko helburua duten eragiketen multzoa da. Horiek lursailean errotzeko moduko baldintzetan jarriko dira, soropil uniformea osatu eta hazi dadin.

Honako eragiketa hauek hartzen ditu barne:

- Lursaila prestatzea eta egokitzea.
- Zotalen hornidura.
- Zotalen kokapena.
- Ondorengo zaintzak.

2. MATERIALAK

Zotalak sastrakak kentzeko eragiketetatik eratorrikoak izango dira, eta obrako leku egokietan pilatuko dira.

Zotalak plaka angeluzuzen edo bilkari gisa konfiguratuko dira, eta 30 cm-ko zabalera izango dute gutxienez.Plaken lodiera uniformea eta 4 cm ingurukoa izango da gutxienez. Horiek garapen erradikular nabarmena izango dute eta ondo banatuta egongo dira, substratua guztiz finkatzeko moduan.

Unitate honetan gaineratutako materialen artean, simaurrak, ongarri organikoak edo mineralak, medeapenak, landare-lurra eta ureztatzeko ura ditugu. Horiek II. kapituluko kasuan kasuko artikuluetan zehaztutakoa bete beharko dute.

3. OBRAK GAUZATZEA

Eginkizun hori langile espezializatuek bete beharko dute.

Zotalen soropila landatzeko ezinbestekoa da lursaila aldez aurretik prestatzea, hau da:

- Ahal izanez gero, materia organikoa, ongarri mineralak eta medeapenak gehitzea, 5 eta 10 m arteko sakonerako laborantza bidez.
- Landatu beharreko gainazal osoan landare-lurraren T1 motako ekarpena egitea; hark 2 cm-ko lodiera izango du gutxienez.
- Gainazala aratzea, zotalentzako elementu lodirik gabeko ohe leuna eta uniformea uzteko.

Lurra egokitu ostean, zotalak landatuko dira.Horretarako, plakak edo bilkariak ilara horizontaletan jarriko dira; lursaila maldan badago, horiek behealdean jarriko dira lehenengo, eta ilarak goranzko noranzkoan jarriko dira pixkanaka.

Zotalak jartzen diren heinean, haren sustrai-sistemaren eta asentu-lurraren arteko kontaktu egokia eragingo da. Horretarako, horiek trinkotu egingo dira, lehenengo eskuarekin eta, gero, gainazal leuneko erreminta batekin; zotalen izkinak edo perimetroak lursailera behar bezala atxikita geratzen ez badira, horiek kako bidez finkatu eta ureztatu egingo dira.

Landatzeko orduan, zotalak horiek ez zapaltzeko moduan kokatuko dira eta piezen bukaerak ez dira lerrokatuta geratuko.

Zotalen artean gera daitezkeen junturak edo tarteak landare-lur finarekin beteko dira.

Zotalen landaketa planifikatzeko orduan bereziki kontuan hartu beharko da horiek mozten direnetik landatu arte denbora gehiegi igaro ez dadila:egun beroetan, egun bat gehienez ere eta, egun freskoetan, berriz, lau egun.

Landaketa amaitu eta berehala, gainazal guztia ureztatuko da –hogei litro, gutxi gorabehera, metro karratuko (20 l/m^2)–, zotala eta lurzoruaren lehen zentimetroak ase daitezen.

Hezetasuna landaketa amaitu eta hurrengo hiru asteetan zehar mantendu beharko da.

Baldintza Tekniko Berezien Orrietan landaketaren ostean egin beharreko ureztatze-eta igitatze-kopurua zehaztuko da.

Ureztatze horietako bakoitzaren dosia hamar litrokoa izango da metro karratu bakoitzeko (10 l/m^2), eta arratsalde amaierako edo goizeko lehen orduak izango dira horretarako eguneko momenturik egokienak.

Soropila hark 5 eta 10 cm arteko altuera duenean moztuko da, eta hondakinak baztertu egin beharko dira.

4. KALITATEAREN KONTROLA

Zotalen osaera floristikoa, lodiera, uniformetasuna eta sustraitzea Baldintza Teknikoen Orrietan adierazitakoak izango dira.Asenturako lursailaren prestakuntza, zotalaren "freskotasuna" –landatu den unean– eta landaketa-lanen garapena Orri hauetan zehaztutakoak izango dira.

Landaketa egin eta bi hilabeteko gehieneko epean zotalak behar bezala sustraitu ez badira edo gutxiegi sustraitu badira, obra-zuzendariak landatze-eragiketa errepikatzea erabaki ahal izango du. Hori erabakiz gero, kontratistak bere gain hartuko ditu eragindako gastuak, betiere obra-zuzendariak hala adierazten badu.

5. NEURKETA ETA ORDAINKETA

Obra-unitate hau benetan gauzatu den metro karratuko neurtuko da.

Aurrekontuan adierazten den prezioa ordainduko da, kontratistak eskainitako beherapena kontuan hartuta. Bertan, obra guztiz gauzatzeko eragiketa guztiak gaineratzen dira, Orri hauetan adierazitako baldintzekin bat etorriz.

990 BERME-ALDIKO KONTSERBAZIOA

Kontratistak obrak kontserbatu beharko ditu urtebeteko (1) epean, behin-behineko harrera egiten denetik kontatzen hasita.Epe horretan, obrak egoera ezin hobean mantentzeko beharrezko lan guztiak gauzatu beharko ditu.

Obra-garaian zehar modu desegokian gauzatu izanagatik berriz egin behar diren obrak kontratistaren kontura ordainduko dira.

Bide-zoru eta/edo ezponden geruzetatik herrestatutako materialen erreten eta kutxatilen garbiketa kontratistaren kontura egingo da beti, hura guztiz nahiz partzialki itxi izanaren arrazoia dena dela.

Isuri, erortze, ezponden "txineo" eta abarren garbiketak arreta handiz eta Administrazioak jakinarazten duen momentuan egin beharko dira, eta horiek ordaintzeko eskubidea eragingo dute induskatutako ezpondak Proiektuan jasotakoekin edo, hala badagokio, obra-zuzendariak adierazitakoekin bat badatoz. Horiek "M^3 Mota guztietako lursailen indusketa" gisa ordainduko dira, horiek kentzeko erabili den metodoa dena dela, hau da, horiek eskuz nahiz modu mekanikoan kendu.

Denboraldi horretan zehar egin diren obraren eginkizun osagarriak –obrak berak hala eskatzen duelako nahiz hirugarrenen erreklamazioei erantzuteko (adibidez: lubeta eta lur-erauzketen egonkortasuna ziurtatzea, ezpondak partzialki hustea, hesiak eta harri-lubetak egitea, sarbide berriak berriz jarri edo irekitzea, zerbitzuak, bide-zoruak areagotzea, drainatze eta/edo bideratze berriak, balizajea, itxitura, argiztapena, seinaleztapena hobetzea, eta abar)– kasuan kasuko artikuluen orrietan jasotako zehaztapenekin bat etorriz eta kontratuko prezioen koadroan indarrean diren prezioen arabera gauzatuko dira.

Donostia, 2017ko maiatza

Proiektuaren egilea

Stua.:Álvaro García González,
Bide, Ubide eta Portuetako ingeniaria
8.345 zenbakiko kolegiatua
Plazuela, Ingeniería Civil y Ambiental, S.L.

4. DOKUMENTUA. AURREKONTUA

NEURKETA ETA AURREKONTU PARTZIALAK

Agindu zk.	Obra-unitateen azalpena	Un.	Longitudea	Latitudea	Altuera	Azpitotala	Neurketa	Prezioa	Zenbatekoa

01 Lursaila prestatzea

01.01 m2 Sastrakak kentzea
0221000001
Lursailean sastrakak kentzea eta garbitzea, eta landare-lurra gero erabiltzeko ateratzea, zotalak osatzea Ingurumene arloko Obra Zuzendaritzak adierazten duen tokietan, bitarteko mekanikoz eginda, eta halaber, 20 cm-ko perimetroa duten zuhaitzak kimatzea, zuhaitz-ipurdiak eta sustraiak ateratzea, sasiak kentzea, garbitzea eta metatzea.

Bidearen azalera osoa	1	17,222.56			17,222.56		
Pilaketaguneak	2	200.00			400.00		
01.01 kontu-saila guztira					17,622.56	2.26	39,826.99

01 kapitulua guztira 39,826.99

02 Lur mugimenduak

02.01 m3 Induskatzea era guztietako lurretan.
0234200001
Bitarteko mekanikoak erabiliz era guztietako lurretan induskatzea, baita ura xukatzea eta eskoratzea, behar izanez gero, kargatzea, metalekura edo zabortegi baimendu batera garraiatzea eta isurketa-kanona.

Bidea guztira	1	5,789.18			5,789.18		
Gurutzatze-guneak	10	10.00	3.00	2.00	600.00		
02.01 kontu-saila guztira					6,389.18	6.34	40,507.40

02.02 m3 Harbeta materialik gehitu gabe
0236200002
Harbetan betelana egitea, baita lurgaina prestatzea ere, materiala kokatzea, zabaltzea eta geruzatan trinkotzea eta lurgaina prestatzea.

Bidea guztira	0.8	5,310.16			4,248.13		
Gurutzatze-guneak	10	10.00	3.00	1.20	360.00		
02.02 kontu-saila guztira					4,608.13	2.26	10,414.37

02.03 m3 Lubeta materialik gehitu gabe
0236100002
Lubetan betelana egitea, baita lurgaina prestatzea ere, materiala kokatzea, zabaltzea eta geruzatan trinkotzea eta lurgaina prestatzea.

Bidearen azalera osoa	0.2	5,310.16			1,062.03		
02.03 kontu-saila guztira					1,062.03	1.41	1,497.46

02 kapitulua guztira 52,419.23

03 Bide-zoruak

03.01 m3 Macadam motako bide-zorua
1212000012Z1
ZA25 kalitateko zagor artifiziala ekartzea eta kokatzea oinarrian, zabaltzea eta geruzatan trinkotzea, sekzio motaren arabera, edozein geruza lodiera eta kopurutarako, baita obrara garraiatzea, lurgaina garbitzea, zabaltzea, trinkotzea, hezetzea eta goraguneak osatzea ere.

Bidea guztira	1	2,704.33	3.50	0.15	1,419.77		
Gurutzatze-guneak	10	10.00	3.00	0.15	45.00		
Bideak konpontzea	1	500.00	3.00	0.15	225.00		
03.01 kontu-saila guztira					1,689.77	11.91	20,125.16

03 kapitulua guztira 20,125.16

04 Ingurumenaren leheneratzea

04.01 m2 Landare-lurra zabaltzea
1511000301
Sastrakak garbitzeko lanetatik datorren landare-lurra zabaltzea eta berreskuratutako zotalen bidez soropila jartzea, eta halaber, baldintza teknikoen orrietan definitutako hitzetan lursaila prestatzea eta egokitzea, zotalak ekartzea eta jartzea eta geroko zainketa-lanak egitea.

Bidearen azalera osoa	1	17,222.56			17,222.56		
Bidearen azaleratik kentzekoa	-1	2,701.79	3.00		-8,105.37		
Metatze-guneak	2	200.00			400.00		
04.01 kontu-saila guztira					9,517.19	3.07	29,217.77

04.02 m2 Landare-substratua zabaltzea eta hidroereitea
1201000001

Bidearen azalera osoa	1	17,222.56			17,222.56		
Bidearen azaleratik kentzekoa	-1	2,701.79	3.00		-8,105.37		
Metatze-guneak	2	200.00			400.00		
04.02 kontu-saila guztira					9,517.19	2.44	23,221.94

Agindu zk.	Obra-unitateen azalpena	UN.	Longitudea	Latitudea	Altuera	Azpitotala	Neurketa	Prezioa	Zenbatekoa

04 kapitulua guztira 52,439.71

Aurrekontua guztira 164,811.09

AURREKONTUEN LABURPENA

Código	Descripción	Subtotal	Importe
Capítulo: 01	Lursaila prestatzea	39,826.99	
Capítulo: 02	Lur mugimenduak	52,419.23	
Capítulo: 03	Bide-zoruak	20,125.16	
Capítulo: 04	Ingurumenaren leheneratzea	52,439.71	
	Exekuzio materiala, gutzira		**164,811.09**

Exekuzio Materialaren aurrekontuak, guztira, arestian aipatutako zenbatekoa du, hots:EHUN ETA HIRUROGEITA LA MILA ZORTZIEHUN ETA HAMAIKA EURO ETA BEDERATZI XENTIMO

Exekuzio Materialaren Aurrekontua Guztira		**164,811.09**
% 21 B.E.Z.	34,610.33	
Kontrata Bidezko Exekuzioaren Aurrekontua guztira		**199,421.42**

Kontrata bidezko Exekuzioaren Aurrekontua, guztira, EHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI MILA LAUREHUN ETA HOGEITA BAT EURO ETA BERROGEI XENTIMO da.

Donostia, 2017ko maiatza. Proiektuaren

Egilea

Stua.:Álvaro García González
Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria
8.345 zk. Elkargokidea
Plazuela, Ingeniería Civil y Ambiental, S.L.